# 174. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2022ko abenduaren 22an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da Ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak:
Alex Oliden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Maider Alberdi Yeregui, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Marina Bidasoro Arocena, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Oier Korta Esnal, jna.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and
Cristina Vicente Iciar, and.

Ez bertaratuak
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Maddi Aldalur Osa, and.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (173. zbkia – 2022.12.01)**

173. akta onartutzat ematen da.

Bigarren puntua:

**2.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-**

**2.1.- IRIZPENA:**

**2.1.1.- JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA.**

**2022KO ABENDUAREN 16KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.**

**AURREKARIAK**

**1.-** Araudi honen xedea da Udalarenak diren jabetza eta erabilera publikoko lurzoruen aprobetxamenduaren erregimen juridikoa arautzea, baita erabilera publikoari lotutako jabetza pribatuko lurzoruen erregimena ere, ostalaritzako eta merkataritzako jarduerak garatzeari loturik.

**2.-** 2020ko abuztuak 18an jarri zen indarrean ZUMAIAKO JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZRAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA, urte horretan pandemia izan genuen eta horren ondorioz, ostalaritzaren barruko jarduerak jaso zituen murrizketak tarteko hainbat baimen eman ziren.

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DE 16 DE DICIEMBRE DE 2022 SOBRE LA APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DEL SUELO PARA HOSTELERÍA Y COMERCIO EN LOS CASOS DE USO PÚBLICO EN DOMINIO PÚBLICO Y PRIVADO.**

**ANTECEDENTES**

**1.-** La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación del régimen jurídico del aprovechamiento, de terrenos de dominio y uso público tanto de titularidad municipal como terrenos de titularidad privada afectos al uso público, para el desarrollo de la actividad de hostelería y comercial.

**2.-** El 18 de agosto de 2020 entró en vigor la ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DEL SUELO EN SUPUESTOS DE USO PÚBLICO EN LOS DOMINIOS PÚBLICOS Y PRIVADOS DE ZUMAIA PARA LA HOSTELERÍA Y EL COMERCIO, año en el que se produjo la pandemia y como consecuencia de ello se concedieron diversas autorizaciones por restricciones a la actividad dentro de la hostelería. Superada la situación de pandemia se

Pandemia egoera gaindituta hainbat joerak berdin jarraitzen dute, eta ondorioz, aurrez zehazki arautu gabeko hainbat egoera arautzearen beharrari erantzuteko ordenantza berri hau idatzi da.
2022. urtean prozesu parte-hartzaile bat garatu da.

mantienen algunas tendencias, por lo que se redacta esta nueva ordenanza para dar respuesta a la necesidad de regular una serie de situaciones no reguladas con anterioridad.
En el año 2022 se ha desarrollado un proceso participativo.

**3**.- Ikusirik ostalaritza eta merkataritza gremioarekin eta hainbat Lurralde Antolamenduaren Batzordeetan JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN , ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA buruz informatu zela.

**3.-** Visto que se informó sobre la ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DEL SUELO PARA HOSTELERÍA Y COMERCIO EN LOS CASOS DE USO PÚBLICO EN DOMINIO PÚBLICO Y PRIVADO en varias Comisión de Planificación del territorio.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2022ko abenduaren 16ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordean, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro(EHBildu)
Alex Oliden(EHBildu)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

**ALDEKO** irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen
Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, arautkoakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo
sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren

**DICTAMEN**

En consecuencia la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras, Servicios, Medio Ambiente y Policía Municipal de fecha 17 de Marzo de 2020 tras la siguiente votación:

A favor: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro(EHBildu)
Alex Oliden(EHBildu)
Oier korta Esnal(EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

En contra: 0

Abstención: 0

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

**1.-** JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAri hasierako onarpena ematea.

**2.-**Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.

Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

**1.-** Aprobar inicialmente la ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DEL SUELO PARA HOSTELERÍA Y COMERCIO EN LOS CASOS DE USO PÚBLICO EN DOMINIO PÚBLICO Y PRIVADO.

**2.-** Someter a información pública el expediente, por plazo de 30 días hábiles, contados a partir de la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

En caso de que durante el referido plazo no se presenten reclamaciones o sugerencias se entenderá conforme al artículo 49 de la Ley 7/1985 definitivamente aprobado el acuerdo provisional.

Zumaian, 2022ko Abenduaren 13an

Iñaki Ostolaza Esnal

Alkatea



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

**JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

ORDENANZA REGULADORA DE LA OCUPACIÓN DEL SUELO PARA HOSTELERÍA Y COMERCIO EN LOS CASOS DE USO PÚBLICO EN DOMINIO PÚBLICO Y PRIVADO.


| | |
|---|---|
| ZIOEN AZALPENA | EXPOSICIÓN DE MOTIVO |
| I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK | TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES |
| 1. artikulua. Ordenantzaren xedea. | Artículo 1. Objeto. |
| 2. artikulua. Aplikazio eremua. | Artículo 2. Ámbito de aplicación. |
| 3. artikulua. Araudi aplikagarria | Artículo 3. Normativa de aplicación. |
| 4. artikulua. Baimenen ezaugarriak. | Artículo 4. Naturaleza de las autorizaciones. |
| 5. artikulua. Definizioak. | Artículo 5. Definiciones. |
| 6.artikulua.Hizkuntza baldintzak | Artículo 6. Requisitos lingüísticos |
| 7.artikulua. Berdintasun baldintzak | Artículo 7. Requisitos de igualdad |
| II. TITULUA. INSTALAZIOEN DENBORALDIAK ETA ORDUTEGIAK | TÍTULO II. TEMPORADAS Y HORARIOS |
| 8. artikulua. Denboraldiak. | Artículo 8. Temporadas. |
| 9. artikulua. Ordutegiak. | Artículo 9. Horarios. |
| III. TITULUA. INSTALAZIO BALDINTZAK. | TÍTULO III. CONDICIONES DE LAS INSTALACIONES |
| I. Atala: Baldintza orokorrak. | Sección I: Condiciones generales |
| 10. artikulua. Terrazen baldintza orokorrak . | Artículo 10. Condiciones generales de las terrazas. |
| 11. artikulua. Terrazetako elementuen ezaugarri orokorrak. | Artículo 11. Características generales de los elementos de las terrazas. |
| 12. artikulua.Hiri espazioaren araberako baldintzak: espaloiak, oinezkoen kaleak eta plazak. | Artículo 12. Condiciones según el espacio urbano: aceras, calles peatonales y plazas. |
| 13. artikulua. Jatetxe zerbitzua. | Artículo 13. Servicio de restaurantes. |
| 14. artikulua. Ingurua garbitzea. | Artículo 14 Limpieza de la zona. |
| II. Atala: Terraza ereduen araberako baldintza bereziak | Sección II: Condiciones específicas según los modelos terrazas |
| 15. artikulua: Terraza arrunten berezitasunak | Artículo.15. Condiciones específicas correspondientes a Terrazas Corrientes |
| 16. artikulua: Egiturak dituzten terrazen berezitasunak | Artículo 16. Condiciones específicas correspondientes a terrazas con estructuras |
| 17. artikulua. . Errepideetan kokatutako terrazen berezitasunak | Artículo 17. Condiciones específicas correspondientes a terrazas ubicadas sobre las zonas de aparcamiento |




Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| III. Atala. Komertzioak. | Sección III. Comercios. |
| 18. artikulua. Baldintza orokorrak. | Artículo 18. Condiciones generales. |
| IV. TITULUA. BAIMENAK EMATEKO PROZEDURAK. | TÍTULO IV. PROCEDIMIENTOS PARA EL OTORGAMIENTO DE AUTORIZACIONES. |
| 19. artikulua. Baimen eskariak. | Artículo 19. Solicitudes de autorización. |
| 20. artikulua. Baimenak ematea. | Artículo 20. Concesión de autorizaciones. |
| 21. artikulua. Terrazak ezartzeko baimena emateko irizpide teknikoak. | Artículo 21. Criterios técnicos para la autorización de la implantación de terrazas |
| 22. artikulua. Baimenen indarraldia eta baimenak berritzea. | Artículo 22. Vigencia de las autorizaciones y renovación de las mismas. |
| 23. artikulua. Baimenak deuseztatzea. | Artículo 23. Anulación de autorizaciones. |
| 24. artikulua. Baimenak eskualdatzea | Artículo 24. Transmisión de autorizaciones |
| 25. artikulua. Okupatu daitekeen azalera mugatzea | Artículo 25. Delimitación de la superficie susceptible de ocupación |
| V. TITULUA. EGINBEHARRAK | TÍTULO V. DEBERES |
| I. KAPITULUA. BAIMENEN TITULARRENAK | CAPÍTULO I. DE LOS TITULARES DE LAS AUTORIZACIONES |
| 26. artikulua. Jarduerari buruzko betebeharrak. | Artículo 26. Obligaciones relativas a la actividad. |
| 27. artikulua. Betebehar ekonomikoak. | Artículo 27. Obligaciones económicas. |
| II. KAPITULUA. – UDALARENAK | CAPÍTULO II. – MUNICIPALES |
| 28. artikulua. Baimenen titularrekiko betebeharrak. | Artículo 28. Obligaciones con los titulares de las autorizaciones. |
| 29. artikulua. Herritarrekiko betebeharrak. | Artículo 29. Obligaciones con la ciudadanía. |
| VI. TITULUA. MANTENTZE PLANA | TÍTULO VI. PLAN DE MANTENIMIENTO |
| 30. artikulua. Instalazioen Mantentze eta Berritze Plana. | Artículo 30. Plan de Mantenimiento y Renovación de Instalaciones. |
| VII. TITULUA. ZIGOR ERREGIMENA | TÍTULO VII. RÉGIMEN SANCIONADOR |
| 31. artikulua. Ikuskaritza. | Artículo 31. Inspección. |
| 32. artikulua. Kautelazko neurriak. | Artículo 32. Medidas cautelares. |
| 33. artikulua. Arau-hausteak. | Artículo 33. Infracciones. |
| 34. artikulua. Zigor prozedura. | Artículo 34. Procedimiento sancionador. |
| 35. artikulua. Mailaketa irizpideak. | Artículo 35. Criterios de graduación. |
| 36. artikulua. Zigorrak. | Artículo 36. Sanciones. |
| VIII. TITULUA. BAIMENAK IRAUNGITZEA | TÍTULO VIII. DE LA CADUCIDAD DE LAS AUTORIZACIONES |
| 37. artikulua. Baimenak iraungitzea. | Artículo 37. Caducidad de las |




Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

autorizaciones.

38. artikulua. Instalazioak desmuntatzea.

Artículo 38. Desmontaje de instalaciones.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

AZKEN XEDAPENAK

DISPOSICIONES FINALES

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honek Zumaiako udalerriko erabilera publikoko espazioetako ostalaritza arloko erabilerak arautzen ditu, honako lege hauetan ezarritakoa oinarri hartuta: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia. Ordenantza honen ondorioetarako, Zumaiako udal-mugarteko erabilera publikoko espazioetan ostalaritzaren eta merkataritza jardueraren eremuan egin beharreko erabilerak edo erabilerak arautzeko, eremu hori udal jabari eta erabilera publikoko bide eta espazio guztiak kontuan hartuta, bai eta lehendik dauden beste espazio batzuk ere, titulartasun pribatukoak izanik, oro har herritarren erabilera publikoari atxikita daudenak.

Araudi honen xedea da ostalaritza eta merkataritza arloan erabilera publikoko espazioez egin litezkeen erabilerak arautzea, aprobetxamendu berezikoak edo erabilera pribatibokoak diren heinean; eta espazio horien erabilera komunaren babesari eustea, herritar guztiei baitagokie, denei berdin eta bereizketarik gabe. Horrez gain, auzokoen atsedenerako eskubidea zaintzea eta ostalaritzaren eta merkataritza sektorea garatzea, bereziki kontuan hartuta herritarren artean zein erro sakonak dituen eta herriko ekonomian zer-nolako eragina duen.

Hauek dira xedapenaren oinarrizko balioak eta irizpideak: Lehentasuna ematea erabilera komun orokorrari, oinezkoen joan-etorrietan arreta berezia jarrita; eta, hala, ez mugatzea herritarrei

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Esta Ordenanza se dicta al amparo de lo establecido en la Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local, en la Ley 33/2003 la normativa reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas, y en el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, para regular los usos o utilizaciones a realizar en el ámbito de la hostelería y actividad comercial, en los espacios de uso público del término municipal de Zumaia, considerando éste como el conjunto de las diferentes vías y espacios del dominio y uso público municipal, así como otros espacios existentes que, correspondiendo a la titularidad privada, se hallan afectos al uso público de la ciudadanía en general.

El presente Reglamento tiene por objeto regular los posibles usos de los espacios de uso público en el ámbito de la hostelería y el comercio, en cuanto sean de aprovechamiento especial o de uso privativo, y mantener la protección del uso común de dichos espacios, que compete a todos los ciudadanos por igual e indiscriminadamente. Además, velar por el derecho al descanso de los vecinos y el desarrollo de la hostelería y del sector comercial, teniendo en cuenta especialmente sus profundas raíces entre la ciudadanía y su impacto en la economía del municipio.

Los valores y criterios en los que se fundamenta esta disposición, son: La preferencia del uso común general, con especial atención al tránsito peatonal, debiendo garantizarse que no se merme



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

erabilera publikorako espazioetarako sarbidea, horietan erraz, eroso eta segurtasunez ibili ahal izateko moduan.

la accesibilidad de la ciudadanía a los espacios destinados a uso público, en condiciones de fluidez, comodidad y seguridad.

Zuhaitzak, parterreak, hiri paisaiako landaredia eta hiri altzariak babestea.

Preservación del arbolado, parterres, vegetación del paisaje urbano y de los elementos del mobiliario urbano.

Zerbitzu publikoen funtzionamendua bermatzea, larrialdiko zerbitzuena bereziki.

Garantía del funcionamiento de los servicios públicos, en especial los de emergencia.

Pertsonek ingurumen osasungarria edukitzeko duten eskubidea babestea.

La protección del derecho de las personas a un medio ambiente saludable.

Ordenantza honek, zerbitzu jardueretara oztoporik gabe iristeari buruzko 17/2009 Legea eta merkataritza eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legea aintzat hartuta betiere, zer udal baimen eta administrazio emakida eskatu eta lortu behar diren arautzen du, jabetza eta erabilera publikoko ondasunak erabiltzen direlako eta beharrezkoa delako horietan ongi uztartzea askotariko erabilerak, intentsitateak, mugak eta herritarrek oro har eta jarduera horien bezeroek dituzten interesak.

Esta Ordenanza, sin perder de vista la Ley 17/2009 sobre el libre acceso a las actividades de servicios, y la Ley 12/2012, de 26 de diciembre de medidas urgentes de liberalización del comercio y de determinados servicios, regula las autorizaciones administrativas municipales y las concesiones administrativas municipales a solicitar y a obtener, porque se utilizan bienes de dominio y uso público, en los que se deben armonizar los diferentes usos, su intensidad, sus limitaciones, y los intereses de los la ciudadanía en general y de los clientes de esas actividades.

Araudi honetan, arreta berezia emango zaio altzarien eta instalazioen estetikari, baimenak emateko garaian; hain zuzen ere, elementu horien estetikak bat etorri beharko du terraza ezarriko den kalearen edo plazaren estetikarekin.

En esta regulación se da importancia a la estética del mobiliario y de las instalaciones a autorizar, que deberán estar en consonancia con la de las calles y plazas donde se instalen.

Pandemiaren ondorioz, ostalaritzaren barruko jarduerak jasan zituen murrizketak tarteko, hainbat baimen berezi eman ziren terrazak jartzea ahalbidetzeko eta ostalariek euren lanarekin jarraitu ahal izatea ahalbidetzeko helburuarekin. Pandemia egoera gaindituta, dirudienez, hainbat joera geratzeko etorri dira, eta ondorioz, aurrez zehazki arautu gabeko hainbat egoera (aparkalekuetan terrazak jartzea adibidez) arautzearen beharrari erantzutera dator ordenantza hau.

Debido a las restricciones que sufrió la hostelería en el interior de la actividad a causa de la pandemia, se concedieron varios permisos especiales con el objetivo de permitir la instalación de terrazas y permitir que los hosteleros pudieran continuar con su trabajo. Superada la situación de pandemia, parece que han venido varias tendencias para quedarse, por lo que esta ordenanza viene a dar respuesta a la necesidad de regular situaciones no reguladas previamente, como la instalación de terrazas en los

aparcamientos.

Zumaiako Udalaren 2015-2025 Plan Estrategikoaren arabera, helburu estrategikoetako bat da euskaraz bizi den eta euskararen arnasgune den herria izatea. Era berean, 2018ko Turismo planeko erronketako bat da merkatariekin eta ostalariekin elkarlanean turismo jardueratan euskara ikusaraztea, identitatearekin lotutako alderdia den aldetik.

De acuerdo con el Plan Estratégico 2015-2025 del Ayuntamiento de Zumaia, uno de sus objetivos estratégicos es que sea un pueblo que vive en euskera y espacio vital del euskera (arnasgune). Asimismo, relacionando ese aspecto con la identidad, uno de los retos del plan de Turismo de 2018 es visibilizar el euskera en las actividades turísticas, trabajando con el sector del comercio y de la hostelería.

Era berean, Zumaiako III. Berdintasun Planean (2019-2022), Udalak konpromisoa hartu zuen Udaleko lan prozedura eta politika guztietan genero ikuspegia txertatzeko. 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak adierazten ditu 3. artikuluan, Euskal Herriko aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak, eta horien artean, genero ikuspegiaren txertaketa azpimarratzen du.

Asimismo, en el III Plan de Igualdad (2019-2022), el Ayuntamiento se comprometió a incorporar la perspectiva de género en todos los procedimientos y políticas de trabajo municipales. La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, señala en su artículo 3 los principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes del País Vasco, entre los que destaca la integración de la perspectiva de género.

Hori guztia kontuan hartuta, ordenantza honetan berariazko puntu banatan zehaztu dira hizkuntza nahiz berdintasun baldintzak.

Considerando todo eso, en esta Ordenanza se concretan las condiciones lingüísticas y de igualdad en sendos puntos específicos.

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da Udalarenak diren jabetza eta erabilera publikoko lurzoruen aprobetxamenduaren erregimen juridikoa arautzea, baita erabilera publikoari lotutako jabetza pribatuko lurzoruen erregimena ere, ostalaritzako eta merkataritzako jarduerak garatzeari loturik.

### 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Udalerrian erabilpen publikoa duten leku guztietan (bide publikoak, espazio libreak, berdeguneak eta abar) izango da aplikagarria ordenantza hau, horien titularitatea publikoa edo pribatua izan.

## TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto.

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación del régimen jurídico del aprovechamiento, de terrenos de dominio y uso público tanto de titularidad municipal como terrenos de titularidad privada afectos al uso público, para el desarrollo de la actividad de hostelería y comercial.

### Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que sean de uso público, sean de titularidad pública o privada.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Erabilpen publikoko baldintza betetzen den egiaztatzeko, leku bakoitzaren egitatezko egoerari eta indarrean dagoen hirigintza planeamenduak araututakoari begiratuko zaio.

Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

**3. artikulua. Araudi aplikagarria.**

**Artículo 3. Normativa de aplicación.**

Espazioen okupazioa Administrazio Publikoen Ondarearen Legearen eta Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren arabera arautuko da.

La ocupación de los espacios quedará sujeta a la normativa de aplicación de la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas y al Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales.

Baimen horietan, partikularrak ez du lehendik lurzoru publikoa okupatzeko eskubiderik, eta Udala izango da, segurtasun publikoaren, oinezkoen joan-etorriaren, atsedenaren, ingurumenaren defentsaren edo hiri-estetikaren alorretan dagoen interes publikoa baloratuz, baimen horiek ematea edo ez ematea erabakiko duena, bai eta horiek ez betetzeak horiek errebokatzea ekar dezakeen mugak edo baldintzak ezartzea ere.

Nos encontramos ante autorizaciones donde el particular carece de un derecho preexistente a ocupar suelo público y donde será el Ayuntamiento, quien, valorando el interés público existente en sus distintas facetas de seguridad pública, tránsito peatonal, descanso, defensa del medio ambiente o de la estética urbana, decida su otorgamiento o no, y su sometimiento a límites o condiciones, de modo que su incumplimiento pueda traer como consecuencia su revocación.

**4. artikulua. Baimenen ezaugarriak.**

**Artículo 4. Naturaleza de las autorizaciones.**

1. Terraza eta erakustoki komertzialak instalatzeko espazioak okupatzeko, aldez aurreko udal baimena behar da, desmuntagarriak direlako.

1. La ocupación de espacios a para la instalación de terrazas y expositores comerciales requiere autorización municipal previa por su condición de desmontables.

2. Ostalaritza eta merkataritza establezimenduen titularrek baino ezingo dituzte eskatu baimenak, betiere establezimendu horiek hirigintza arauen eta ostalaritza eta merkataritza sektoreko arauen araberako funtzionamendua eta jarduera badute.

2. Solo podrán solicitar el otorgamiento de autorizaciones, las personas titulares de los establecimientos hosteleros y comerciales, cuyo funcionamiento y actividad se desarrolle conforme a las normas urbanísticas y sectoriales que la regulen.

3. Dagokien ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduen baimenei lotuak izango dira lur zorua okupatzeko baimenak, nahitaez, eta ezingo dira baimen horiek eskualdatu establezimenduen jardueratik bereiz.

3. Las autorizaciones quedarán necesariamente vinculadas a las de los establecimientos hosteleros y comerciales que se encuentren anejas, sin que se puedan transmitir con independencia de la actividad de esos establecimientos. El

Ostalaritzako establezimenduaren titulartasuna aldatuz gero, titular berriak espazioa okupatzeko baimena eskatu beharko du, nahitaez.

cambio de titularidad del establecimiento hostelero y comercial conllevará la obligación del nuevo titular de solicitar la autorización para la ocupación del espacio.

4. Baimenak interes publikoaren mende egongo dira, eta, beraz, baimenak emateak ez dio titularrari inolako eskubide edo itxaropen legitimorik ekarriko, beste aldi baterako baimena lortzeko.

4. Las autorizaciones estarán supeditadas al interés público, por lo que de su otorgamiento no se derivará para su titular ningún derecho ni expectativa legítima, para obtener autorización para un nuevo periodo.

5. Baimenak jabetza eskubidea gordeta eta hirugarrenen kalterik gabe emango dira.

5. Las autorizaciones se otorgarán salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

6. Baimenen titularrek beren gain hartuko dituzte jardueraren mentura eta arriskuak.

6. La actividad se desarrollará a riesgo y ventura de los titulares de las autorizaciones.

**5. artikulua. Definizioak.**

**Artículo 5. Definiciones.**

Ordenantza honen ondorioetarako baimendu daitezkeen hiru terraza eredu eta merkataritzako erakustoki moduluak zehazten dira.

A efectos de esta Ordenanza, se definen tres modelos de terrazas y los módulos de las actividades comerciales a autorizar.

1. Terraza ereduak:

1. Modelos de terrazas:

**a) 1. eredua. Terraza arruntak.**

**a) Modelo 1: Terraza “corriente”**

Terraza arrunt gisa ulertzen da, mahaiak, aulkiak eta elementu mugikorrak soilik dituztenak eta egunero jaso eta lokalaren barruan gordeko direnak, bide publikoa guztiz libre uzteko moduan.

Se entiende por terraza corriente, las ocupaciones para el desarrollo de la actividad de hostelería con mesas, sillas, y elementos, que diariamente han de ser recogidos al interior del local, dejando totalmente libre la vía pública.

**b) 2. eredua: Egiturak dituzten terrazak.**

**b) Modelo 2: Terrazas con estructuras.**

Egiturak dituzten terrazatzat hartuko dira ostalaritza jarduera garatzeko okupazioaren baitan bide publikoan utzi beharreko elementuren bat dutenak (eguzkitako handiak, eguzkitakoen euskarriak, espazioa mugatzeko-pantailak, manparak edo loreontziak) eta neurriagatik egunero lokalean jaso ezin direnak edo lokalean espaziorik ez dagoelako kanpoan utzi behar badira.

Se entiende por terrazas con estructuras las ocupaciones para el desarrollo de la actividad de hostelería en las que algún elemento de la instalación requiera su permanencia en la vía pública (parasoles de gran tamaño, soportes de parasoles, estructuras para la delimitación de terrazas tales como mamparas o jardineras), y no puedan recogerse diariamente al interior del local por su envergadura o por falta de espacio en la misma.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

**c) 3. Eredua: Aparkaleku eremuetan kokatutako terrazak.**

Aparkaleku eremuetan kokatutako terrazatzat hartuko dira, ostalaritza-jarduera garatzeko galtzada okupatzen denean

2. Merkataritzako moduluak.

a)Frutategi eta antzekoetako moduluak: Jakiak erakusteko erabiliko diren elementu desmuntagarriak.

b) Bestelako merkataritza jarduerетako moduluak: bestelako produktuak erakusteko erabiliko diren elementu desmuntagarriak.

**6. artikulua: Hizkuntza baldintzak.**

179/2019 Dekretuak (Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea hizkuntzaren arloan garatzen duenak, eskumena ematen dio Udalari herriko espazio publikoan kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat jarritako informazio idatzia euskaraz egongo dela arautzeko.

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren testu guztiak (menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzak, arbeletako oharrak...) euskaraz idatziko dira. Beste hizkuntza batzuetan ere idatzi daitezke, eta orduan euskarari emango zaio lehentasuna (hurrenkeran, tamainan eta abar).

Establezimenduek Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute testuak euskaratzeko. Gainera, Udalak dirulaguntzak emango ditu errotulazioko elementuak euskara hutsean jartzeagatik.

**c) Modelo 3: Terrazas ubicadas sobre las zonas de aparcamiento.**

Se entiende por terraza ubicada sobre zona de aparcamiento aquella ocupación en la calzada para el desarrollo de la actividad de hostelería.

2. Módulos de la actividad comercial.

a) Módulos de fruterías y similares: Elementos desmontables sobre los que se exponen los alimentos.

b) Resto de actividades comerciales: Elementos desmontables sobre los que se exponen resto de productos.

**Artículo 6. Requisitos lingüísticos**

El Decreto 179/2019, sobre la normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, y por el que se desarrolla la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi en materia lingüística, autoriza al Ayuntamiento de Zumaia a regular el uso del euskera en la información escrita situada en el espacio público del municipio dirigida a las personas consumidoras y usuarias.

Todos los textos que se pongan a disposición y vista del público en la zona ocupada (menús, listas de precios, carteles, ofertas, notas de las pizarras...) se redactarán en euskera, sin perjuicio de que se puedan redactar también en otros idiomas, en cuyo caso se dará prioridad al euskera (en lo que respecta al orden, tamaño, etcétera).

Para realizar las traducciones al euskera los establecimientos contarán con la colaboración del Servicio de Euskera. Asimismo, el Ayuntamiento concederá subvenciones por poner elementos de rotulación íntegramente en euskera.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Edonola ere, une oro bete beharko dira Udalak aldi bakoitzerako onartzen dituen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

En cualquier caso, se estará a lo dispuesto en el Plan de Normalización del Uso del Euskera y el Plan de Acción para la Promoción del Euskera que apruebe el Ayuntamiento para cada periodo.

**7.artikulua: Berdintasun baldintzak**

**Artículo 7: Requisitos de igualdad**

Nahitaez bete behar dira Zumaiako Udalak indarrean duen Berdintasun Planean onartutako genero irizpideak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraituz.

Son de obligado cumplimiento los criterios que en materia de género se encuentren aprobados en el Plan de Igualdad que tenga en vigor el Ayuntamiento de Zumaia en su momento, y los principios de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres.

Honela, honako baldintzak hartu beharko dituzte kontuan:

- Oro har, komunikaziorako erabiltzen diren materialetan, honako baldintzak bete beharko ditu: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol aniztasuna eta genero identitateak jasoko dituen irudia sustatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean ezarritako printzipioari jarraituz).
- Ez da aplikazio eremuaren baitan inongo jarrera matxistarik onartuko.
- Neurriak hartuko dira sexu jazarpena eta sexu ondoriozko laneko jazarpena saihesteko, eta gertatzen den kasuetarako esku hartzeko protokolo bat zehaztuta egongo da aurretiaz.

Así pues, se tendrán en cuenta las siguientes condiciones:

- En general, en todos los materiales que utilicen para la comunicación, tendrán que cumplir las siguientes condiciones: hacer un uso no sexista del lenguaje; evitar cualquier imagen discriminadora y estereotipada de la mujer, y fomentar valores de igualdad, una presencia equilibrada, corresponsabilidad, diversidad de roles y una imagen que recoja la diversidad e identidades de género (siguiendo el principio establecido en la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres).
- No se admitirán conductas sexistas en dicho ámbito de aplicación.
- Adoptar medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo, y en caso de producirse se seguirá el protocolo de intervención que debe estar previamente establecido.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## II. TITULUA. INSTALAZIOEN DENBORALDIAK ETA ORDUTEGIAK

### 8. artikulua. Denboraldiak.

1. Bi denboraldi mota ezartzen dira okupazioetarako baimenak emateko.

a) Udako denboraldia: Aste Santutik urriaren 31ra.
b) Urte osoko denboraldia; baimendutako aldi bakoitzeko urte naturalarekin batera amaituko da.

### 9. artikulua. Ordutegiak.

1. Terrazen elementuak jarri eta bertan jarduera hasteko ordutegia establezimenduaren irekiera ordutegi errealaren araberakoa izango da. Kasuan-kasu, irekiera ordutegia 17/2019 DEKRETUAk, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenak zehaztuko du.

Honako hau izango da terrazaren jarduera amaitzeko eta terrazak jasotzeko ordutegia:

a) Udako denboraldian:

— Igandetik ostegunera, 00:30etan.
— Ostiral, larunbat eta jai bezperatan, 01:30ean.

b)Udako denboralditik kanpo:

— Igandetik ostegunera, 24:00etan.
— Ostiral, larunbat eta jai bezperatan, 01:00ean.

Ordu horretatik aurrera, lehen aipatutako Dekretuan ezartzen dena bete beharko da.

2. Zati batean itxita daudelako, soinu baldintza bereziak dituzten plazetan, edo etxebizitzen forjatua plazaren

## TÍTULO II. TEMPORADAS Y HORARIOS

### Artículo 8. Temporadas.

1. Se establecen dos tipos de temporadas a efectos del otorgamiento de las autorizaciones para las ocupaciones.

a) La temporada de verano: desde semana santa hasta el 31 de octubre.
b) La temporada anual finalizará en el año natural de cada período autorizado.

### Artículo 9. Horarios.

1. El horario de colocación de los elementos de las terrazas y el inicio de la actividad en ellas dependerá del horario real de apertura del establecimiento. En cada caso el horario de apertura vendrá fijado en el Decreto 17/2019 del 5 de febrero en el que se aprueba el reglamento que desarrolla la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.

El horario de retirada de terrazas será el siguiente:

a) Para temporada de verano:

— De domingo a jueves, las 00:30 h.
— Viernes y sábados y vísperas de festivos, las 01:30 h.

b) Para el resto de temporada:

— De domingo a jueves, las 24:00 h.
— Viernes y sábados y vísperas de festivos, las 01:00 h.

A ese respecto, a partir de la hora citada se deberá cumplir con lo establecido en el Decreto referido.

2. En las plazas parcialmente cerradas o en calles que alberguen ambientes de especial sensibilidad al ruido, o en


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

forjatuarekiko altuera baxuan egoteagatik kexak dauden lekuetan, edo, beste edozein kausa dela eta, bizilagunei eragozpenak eragiten zaizkien lekuetan elementuak erretiratzeko ordua mugatu egin dezake Udalak.

aquellos casos en los que se produjeran quejas por situarse el forjado de las viviendas a una cota baja con respecto al forjado de la plaza, así como en aquellos casos en que por cualquier otro motivo se produjeran molestias al vecindario, el Ayuntamiento podrá limitar el horario.

3. Halaber, terrazara ematen duten leiho zuzenak edo zerbitzu emateko mostradoreak dituzten establezimenduek 22:30ean itxi beharko dituzte irteera horiek, establezimenduko musikak auzoen lasaitasuna hautsi ez dezan.

3. Asimismo, en todo caso, aquellos establecimientos que utilicen una ventana directa o mostrador de servicio sobre la terraza, a partir de las 22:30 h. deben eliminar esa salida, al objeto de que la música del establecimiento no perturbe la tranquilidad del vecindario.

Terrazak zerbitzatzeko erabiltzen diren leihoak itxita egon beharko dira 22:30etik aurrera. Leihoak jarduerari eskatutako gutxieneko isolamendu akustikoa ziurtatu beharko du.

Las ventanas utilizadas para el servicio de terrazas deberán permanecer cerradas a partir de las 22:30 horas. La ventana deberá asegurar el aislamiento acústico mínimo exigido a la actividad.

4. Egun berezietan (San Telmo jaiak, San Pedro jaiak, auzoetako jaiak), Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako Ordutegien Dekretuak –17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena– arautuko itxiera ordua baino ordu bat lehenago arte luzatu ahalko da ordutegia; baina inoiz ez goizaldeko ordu bietatik haratago.

4. Durante fechas especiales (fiestas de San Telmo, fiestas de San Pedro, fiestas municipales de barrio) el horario podrá incrementarse hasta una hora antes del horario de cierre establecido por el Decreto de Horarios del Departamento de Interior del Gobierno Vasco por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas (DECRETO 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas) sin que en ningún caso pueda rebasarse las dos de la madrugada.

5. Gauzak jasotzeko ordua iritsita, ezingo da bezerorik egon instalazioetan. Ordu horretan, establezimenduko langileak izango dira bertan egon ahalko diren bakarrak, gauzak jasotzeko eta garbitzeko. Lan horiek soinurik egin gabe egin beharko dira.

5. Llegada la hora establecida para la retirada, la instalación deberá estar totalmente desalojada de clientes, permitiéndose únicamente la permanencia de empleados del local en tareas propias de la retirada y limpieza de la instalación, que en ningún caso podrán generar ruidos.

6. Egun jakin batzuetan ordutegia luzatzeko baimena eman ahal izango da, baita banakako muga edo muga orokorrak ezarri ere, terraza dagoen inguruan bizikidetza asaldatzen duen

6. Se podrán autorizar ampliaciones del horario para determinadas fechas, e imponer restricciones individuales o generales ante circunstancias especiales que motiven perturbación de la



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

egoera bereziren bat gertatuz gero.

convivencia en esa zona.

7. Inola ere ezingo da terraza ezarrita eduki ostalaritzako edo salmenta establezimenduetarako onartutako ordutegitik kanpo.

7. En ningún caso podrá estar instalada la terraza en horario superior al permitido en el establecimiento de hostelería o comercial.

8. Komertzioetako moduluen okupazio ordutegia dendaren berbera izango da eta ezingo da inoiz tarte hau baino gehiago luzatu: 9:00-21:00

8. El horario de ocupación de los módulos de los comercios será el mismo que el de la tienda, de tal manera que nunca podrá ampliarse más que el siguiente rango: 9:00-21:00

**III. TITULUA. INSTALAZIOEN BALDINTZAK.**

**TÍTULO III. CONDICIONES DE LAS INSTALACIONES**

**I. Atala. Baldintza orokorrak.**

**Sección I. Condiciones generales**

**10. artikulua. Terrazen baldintza orokorrak.**

**Artículo 10. Condiciones generales de las terrazas.**

1. Ez da baimenik emango ezaugarri fisiko bereziak edo oinezkoen joan-etorrien intentsitatea direla-eta pertsonen segurtasun, mugikortasun eta irisgarritasunerako desegokiak izan daitezkeen tokietan terrazak ezartzeko.

1. No se otorgarán autorizaciones para instalar terrazas en aquellos espacios que, por particulares características físicas o por razón del nivel de intensidad del tránsito peatonal, puedan resultar inconvenientes desde el punto de vista de la seguridad de las personas, de su movilidad y accesibilidad.

Ez da honako hauetan ere terrazak ezartzeko baimenik emango: larrialdiko irteeren aurrean, pasabideen aurrean, zabor edukiontzien aurrean, ezinduentzako aparkalekuen aurrean, autobus geltokien aurrean, aldamioen azpian edo alboan, edo <u>lorategi edo berdeguneetan.</u>

Tampoco se autorizará la instalación de terrazas delante de las salidas de emergencias, frente a vados, contenedores de basura, aparcamientos de minusválidos, paradas de autobús, debajo o junto a un andamio, o <u>jardines o zonas verdes.</u>

2. Irisgarritasunari buruzko arauekin bat etorriz, oinezkoen eskubideak lehenetsiko dira, eta, horretarako saltokien eta atarien fatxada-eremuak libre utzita jarriko dira terrazak.

2. En concordancia con las disposiciones de accesibilidad se primará el derecho del peatón, para ello, la colocación se realizará dejando libre las zonas de fachada de comercios y portales.

3.- Kasu guztietan, arau orokorrez 2,00 m-koa edo handiagoa izango da oinezkoen pasabidea. Ezingo da inoiz 1,50m baino txikiagoa izan. Tarte hori arau orokorrez, eraikinaren fatxadaren aldean mantenduko da.

3.- En todo caso, con carácter general el paso de peatones será igual o superior a 2,00 m. Nunca inferior a 1,50 m. Dicho tramo se mantendrá, con carácter general, en el lado de la fachada del edificio.

4.- Salbuespenezko kasuetan, mahaiak

4.- En casos excepcionales se podrá



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

eta aulkiak fatxadari itsatsita egotea baimendu ahal izango da, eta ondorioz, oinezkoen pasabidea ezingo da mantendu fatxadaren aldean. Kasu horretan ere, arau orokorrez 2,00m-koa edo handiagoa izango da oinezkoen pasabidea. Ezingo da inoiz 1,5 m baino txikiagoa izan.

autorizar que las mesas y sillas estén pegadas a la fachada. Por lo que no se podrá mantener el paso de peatones en el lado de la fachada. También en este caso, con carácter general el paso de peatones será igual o superior a 2,00 m. Nunca inferior a 1,50 m.

5.-Baimena eskatzen duten establezimenduek beren aurrealdearen %100 okupatu ahalko dute; baina, salbuespenez, azalera handiagoa okupatu ahalko dute, gehienez %50 gehiago, eskatzaileen alboz-alboko establezimenduak beren aurrealdea mahaiez eta aulkiez okupatzeko baimena eskatu ahal duten horietakoak ez badira, eta, betiere alboko establezimenduen baimenarekin. Edonola ere, ezkaratzetarako atarien sarrerak eta denden atariak libre utzi beharko dira beti. Terrazak beste saltoki baten aurrealdea hartuz gero, ezingo da eguzkitakorik ezarri, saltokiko erakusleihoak ez estaltzeko.

5.- Los establecimientos que soliciten autorización podrán ocupar el 100% de su fachada, pero excepcionalmente podrán ocupar una superficie mayor, hasta un máximo del 50%, siempre que los establecimientos colindantes a los solicitantes no pertenezcan a los que puedan solicitar la autorización para ocupar su fachada con mesas y sillas, y siempre con la autorización de los establecimientos colindantes. En todo caso, deberán quedar libres las entradas a los portales y portales de los comercios. En el caso de que la terraza ocupe la parte delantera de otro comercio, no se permitirá la colocación de parasoles para no cubrir los escaparates del establecimiento.

6.- Terrazako elementuek ezingo dute gainditu terrazarako baimendutako eremuaren proiekzio bertikala, ez zoruan, ez altueran.

6.- Ningún elemento de la terraza podrá sobrepasar ni en el suelo ni en altura, la proyección vertical de la zona autorizada para la terraza.

7.- Oro har, ostalaritza establezimenduaren ikuspen angeluan egongo da terraza osoaren kokapena, gehienez ere 25 m-ko distantzian, segurtasun arrazoiengatik hura jartzea gomendagarria ez denean izan ezik.

7.- Como regla general, la ubicación de la terraza completa estará en el ángulo de visión del establecimiento hostelero, a una distancia máxima de 25 m, salvo que por motivos de seguridad no sea aconsejable su implantación.

8- Elkarren alboz alboko establezimenduetan terrazak ezartzekotan, lerrokatuta ezarri beharko dira, oinezkoen joan-etorriak zuzenak izan daitezen eta sigi-sagan ibili beharrik izan ez dezaten; gainera, bi terraza gertu dauden terrazen artean, orokorrean, 1,5 m-tik gorako distantzia utzi beharko da. Ondoz ondokoak direnean jarraian jarri ahal izango dira, betiere mugikortasuna ez badute oztopatzen.

8.- La ubicación de varias terrazas en establecimientos colindantes, deberá guardar una linealidad en su conjunto para que los tránsitos peatonales sean rectos, evitando zig-zags; además, en el caso de la existencia de terrazas de dos establecimientos contiguos, se colocarán a una distancia mínima de 1,5 m entre ellas. Cuando sean consecutivas podrán colocarse de forma consecutiva, siempre que no obstaculicen la movilidad.

9.- Arau orokorrez ez da ibilgailuen

9.- Como regla general, no se permitirá la



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

errepidearen beste aldean okupatzeko baimenik emango.

ocupación al otro lado de la calzada rodada.

10.- Terrazek gutxienez metro bateko tartea gorde beharko dute banku publikoen aurrean.

10.- Las terrazas deberán guardar una distancia mínima de 1m frente a bancos públicos.

11.- Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola olanak eta erlaitzak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

11.- La autorización de cualquier elemento sujeto a las fachadas como toldos y repisas, se someterá a la regulación urbanística.

12.- Terrazetan edo horien alboan ezingo da gorde edo pilatu bestelako produktu edo materialik (kuboak, orgak, plataformak, itzalkinen oinarriak, etab.), ezta instalazioetako hondakinak ere, arrazoi estetikoak eta higienikoak direla eta.

12.- No se permite almacenar o apilar productos o materiales en las terrazas ni junto a ellas (cubos, carros, plataformas, bases de sombrillas, etc.), así como residuos propios de las instalaciones, tanto por razones estéticas como de higiene.

Hala ere, altzari osagarri bat instalatu ahal izango da jatetxeetako terraza-zerbitzuan zerbitzuari laguntzeko elementu gisa. Terraza-zerbitzua amaitu ondoren, lokalaren barrualdera eraman beharko da.

6.- Los establecimientos hosteleros podrán presentar una consulta previa del criterio municipal sobre su proyecto de terraza, y facilitarán un croquis descriptivo de la instalación, con indicación de las medidas de la ocupación, planta y alzado, y sección de la calle al menos hasta una altura de 3 m, y su relación con el espacio público afectado, y sus servicios y circunstancias, y una infografía o montaje descriptivo de la instalación pretendida.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

den instalazioa deskribatzeko infografia bat edo muntaia bat. Titular bakoitzari udal irizpide teknikoa jakinaraziko zaio, udal argibideen araberako behin betiko proiektua egin dezan.

Se notificará a cada persona titular, el criterio técnico a fin de que confeccione el proyecto definitivo de acuerdo a las indicaciones municipales.

7. Eremua okupatu eta instalazioa jartzen hasi aurretik, udal teknikariek bisita bat egingo dute lekua aztertzeko, eta okupazioaren kokaleku eta azalera zehatzak adieraziko dituzte.

7. Antes de ocupar el dominio y de iniciar cualquier instalación, se efectuará una visita o inspección por los técnicos municipales, señalando la ubicación y la superficie exacta de la ocupación.

8. Instalazioa amaitu ondoren, udal teknikariek azterketa bat egingo dute, instalazioaren amaieraren jakinarazpenetik 15 eguneko epean, jarduera martxan jartzeko oinarrizko baldintzak eta baldintza espezifikoak bete direla egiaztatzeko. Epe hori udal teknikarien bisitarik gabe amaitu bada, instalazioak onartutzat hartuko da. Obrak egiteko eta instalazioa jartzeko epea udal teknikariek kontrolatuko dute.

8. Finalizada la instalación, el personal técnico municipal realizará una inspección en el plazo de 15 días para verificar que se han cumplido las condiciones básicas y específicas señaladas para iniciar la actividad. Transcurrido dicho plazo sin la visita del personal técnico municipal, se considerará aprobada la instalación. El plazo de ejecución de las obras y la instalación se controlará por el personal técnico municipal.

**22. artikulua. Baimenen indarraldia eta baimenak berritzea.**

**Artículo 22. Vigencia y renovación de las autorizaciones.**

1. Okupazio aldia urte naturalarekin batera amaituko da, eta udako denboraldikoa edo urte osokoa izan daiteke, instalatu beharreko terrazen modulu mota guztietarako.

1. El periodo de ocupación a autorizar podrá ser, en todos los tipos de módulos a instalar, para la temporada estival y para la temporada anual a finalizar con el año natural.

2. Baimenak indarrean egongo dira urte natural bakoitzerako onartutako denboraldian, eta esan gabe luzatuko dira, gehienez 4 urtez, denboraldi bertsuetarako eta baimena lortu ondorengo urteetan, non eta aldeetako batek idatziz jakinarazten ez duen baimena aldatzeko edo eteteko asmoa, indarraldia amaitzen den egunetik hilabete bateko epean.

2. Las autorizaciones mantendrán su vigencia durante el período autorizado en ese año natural, y se entenderán tácitamente prorrogadas hasta un plazo máximo de 4 años, en esos mismos períodos, en los años naturales siguientes al de su obtención si ninguna de las partes, comunica por escrito a la otra su voluntad de modificar o de no prorrogar la autorización, dentro del plazo de un mes desde el día en que finalice su vigencia.

**23. artikulua. Baimenak deuseztatzea.**

**Artículo 23. Suspensión de las autorizaciones.**

1. Baimenak kasu hauetan deuseztatu

1. Las autorizaciones podrán

ahal izango dira, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe:
a) Zigorrak jartzen direnean.
b) Terrazak okupatutako lekua libre geratzea eskatzen duten interes publikoko gertaerak suertatzen direnean. Horrelakotzat jotzen dira desfileak, azokak, ikuskizunak, kirol ekitaldiak, manifestazioak eta lehentasuna duten antzeko ekitaldiak, obrak egitea, baimendutako aldamioak jartzea, eta larrialdiko egoerak.

suspenderse sin derecho a indemnización alguna:
a) Por la imposición de sanciones.
b) Cuando circunstancias de interés público lo requieran por la celebración de cabalgatas, ferias, mercados, espectáculos, acontecimientos deportivos, manifestaciones, eventos similares de interés preferente, realización de obras, colocación de andamios autorizados, y situaciones de emergencia, que requieran que quede libre el espacio ocupado por la terraza.

2. Baimena indarrean egongo da berriro, hura deuseztatzeko egoerak desagertzen direnean, administrazio ebazpena eman beharrik gabe.

2. La autorización recobrará su eficacia en cuanto desaparezcan las circunstancias que la justificaron, sin necesidad de resolución administrativa.

3. Deuseztatzea bide publikoan eginiko obren eraginez gertatzen denean, ebazpen bat emango da tasak proportzioan itzultzeko eskubidearen inguruan.

3. En el caso de suspensión por obras en la vía pública, se dictará resolución sobre el derecho a la devolución proporcional de las tasas.

4. Terraza atxikita dagoen ostalaritza establezimenduaren baimena amaitu edo deuseztatzen bada edo, edozer dela eta, establezimendua ixten bada, terrazaren baimena amaitu edo deuseztatu egingo da.

4. La extinción o suspensión de la autorización del establecimiento hostelero del que sea aneja la terraza, o su cierre por cualquier causa, determinarán la automática extinción o suspensión de la autorización de la terraza.

5. Hasitako zigor espedienteak baimena ez berritzea proposatzen badu eta eteteko zigorra ezartzen badu, baimenak ez dira esan gabe luzatuko.

5. Quedarán exceptuadas de renovación tácita las autorizaciones en las que se proponga su no renovación en el expediente sancionador incoado y se sancione con la suspensión.

**24. artikulua. Baimenak eskualdatzea.**

**Artículo 24. Transmisión de las autorizaciones.**

1. Baimenak eskualda daitezke, indarraldia amaitzeko geratzen den epean.

1. Las autorizaciones son transmisibles por el plazo de duración que reste desde que se otorgaron.

2. Ostalaritza establezimenduaren titulartasuna eskualdatzen bada eta Udalari jakinarazten bazaio, automatikoki ulertuko da terrazaren baimena ere eskualdatu dela.

2. Si se transmite la titularidad de la autorización del establecimiento hostelero, y se comunica al Ayuntamiento, de forma automática se entenderá también transmitida la autorización de la ocupación.

3. Ostalaritza establezimenduko

3. Si no se comunica esa modificación en

jardueraren titulartasunean aldaketa horren berri eman ezean, biak geratuko dira baimenaren titularrari eratorritako erantzukizunen menpe.

la titularidad de la actividad del establecimiento hostelero o comercial, quedarán ambos sujetos a las responsabilidades que se deriven para la persona titular de la autorización.

**25. artikulua. Okupatu daitekeen azalera mugatzea**

**Artículo 25.- Delimitación de la superficie susceptible de ocupación**

Lizentzia lortu ondoren eta lizentziaren titularra tokian bertan dela, baimendutako okupazio-azaleraren mugak argi eta zehatz adieraziko dizkio Udalak.

Obtenida la licencia, el Ayuntamiento, con presencia del titular de la licencia, procederá a señalar sobre el lugar, de forma clara y precisa, los límites de la superficie máxima de ocupación autorizada.

Mugaketa hori lurzoruan bertan egingo da Udal Zerbitzu Teknikoek definitzen duten sistema erabiliz eta bere baimenik gabe ezingo da, inolaz ere, mugaketa hori aldatu edo kendu.

Dicha delimitación se hará sobre el suelo mediante el sistema que definan los Servicios Técnicos Municipales, y bajo ningún concepto podrá ser alterada ni retirada sin su autorización.

**V. TITULUA EGINBEHARRAK**

**TÍTULO V. OBLIGACIONES**

**I. KAPITULUA. BAIMENEN TITULARRENAK**

**CAPÍTULO I. DE LAS PERSONAS TITULARES DE AUTORIZACIONES**

**26. artikulua. Jarduerari buruzko betebeharrak.**

**Artículo 26. Obligaciones relativas a la actividad.**

1. Baimendutako eremuan planoan adierazitako eta baimendutako elementuak eta
modulu mota eta kopurua jartzea.

1. Colocar en el espacio autorizado el número y el tipo de módulos y elementos que se autorizan e indican en el plano entregado.

2. Ostalaritza establezimenduak baimendutako edariak eta janariak zerbitzatzea, berariazko ebazpen batez bidez janariak manipulatzeko zerbitzua mugatzen denean izan ezik.

2. Servir las bebidas y alimentos para los que esté autorizado el establecimiento hostelero, salvo que en resolución expresa se restrinja el servicio de manipulación de alimentos.

3. Herritarren eta udal zerbitzuen eskura eta ikusteko moduan edukitzea baimena eta baimenari dagokion planoa.

3. Tener a la vista y a disposición de la ciudadanía y de los servicios municipales la autorización y el plano de la autorización.

4. Instalazioari jarritako ordutegia betetzea.

4. Cumplir el horario señalado a la instalación.

5. Terrazen altzariak kentzeko betebeharra betetzea, altzari horiek bide publikoan

5. Cumplir la obligación de retirar el mobiliario de las terrazas, excepto cuando

| | |
|---|---|
| biltzeko baimena ematen denean izan ezik. Emateko epea amaitzean, itxiturak kentzeko betebeharra betetzea. | se autorice una ubicación para apilar en la vía pública ese mobiliario. Cumplir la obligación de retirar los recintos al finalizar el plazo de su otorgamiento. |
| 6. Okupatutako eremua, altzariak eta jarritako egitura egoera egokian edukitzea garbitasunari, higieneari eta mantentzeari dagokienez, erratza pasatuta eta garbiketak eginda. | 6. Mantener el espacio ocupado, el mobiliario y la estructura instalada, en las debidas condiciones de limpieza, higiene, y mantenimiento, efectuando barridos y limpiezas. |
| 7. Baimendutako ordutegia amaitzean, pertsonek instalazioa hustu dezaten arduratzea. | 7. Responsabilizarse de que las personas desalojen la instalación al finalizar el horario autorizado. |
| 8. Instalatzeko eta eraberritzeko obrarik ez egitea, udal baimenik izan gabe. | 8. No realizar obras de instalación y de reforma sin autorización municipal. |
| 9. Lokalen titularrek terraza ixten den ordutik aurrera bezeroek lokaletik kanpo edariak ateratzea eragotziko dute. | 9. Los titulares de los locales impedirán a partir de la hora de cierre de terraza que los clientes saquen las consumiciones fuera del local. |
| 10. Jardueraren baja, eskualdatzea edo etetea jakinaraztea, 7 eguneko epean. | 10. Informar dentro del plazo de 7 días de la baja, transmisión, o cese de la actividad. |
| 11. Instalazio bakoitzean beharrezkoak diren lur azpiko hartuneen altzariei buruzko udal baldintzak betetzea, eta errespetatzea udal zerbitzuek tapakiak, erregistroak eta ur-hartuneak erabiltzeko eta manipulatzeko egin beharreko lanak. | 11. Cumplir las condiciones municipales sobre las dotaciones de acometidas subterráneas precisas en cada instalación, y respetar el uso y manipulación de las tapas, registros, hidrantes, por los servicios municipales. |
| 12. Udalari baimena ematea instalazioaren zaintza eta mantentze egoera azter dezan eta okupazioaren baldintzak betetzeko egin beharreko konponketak edo bestelako ekintzak adieraz ditzan. | 12. Permitir que el Ayuntamiento inspeccione el estado de conservación y mantenimiento de la instalación y señale las reparaciones u otras acciones que deban realizarse para el cumplimiento de los términos de la ocupación. |
| 13. Instalazioak berak edo jarduerak baimendutako eremuan egindako kalte guztien erantzukizunak bere gain hartzea, eta horiek konpontzea bere kontura, udal teknikarien zaintzapean. | 13. Responsabilizarse de todos los desperfectos ocasionados en el espacio autorizado por la instalación, o durante el desarrollo de la actividad, debiendo repararlo adecuadamente a su costa, bajo la supervisión del personal técnico municipal. |
| 14. Jardueraren arriskuak estaltzeko erantzukizun zibileko asegurua sinatuta edukitzea eta Udalak eskatuz gero egiaztatzea. | 14. Tener suscrito y acreditar a requerimiento municipal estar en posesión del seguro de responsabilidad civil por los riesgos de la actividad. |

15. Interes publikoa dela eta, eskatzen den unean nork bere terrazaren egitura desmuntatzea, hilabete baino gutxiagoko epean. Egoera horrek hilabeteko epea gainditzen badu, Udalak behar besteko denboraz etengo du baimena.

15. Desmantelar por causa de interés público, en el momento en el que se le requiera la estructura de la terraza, y a su cargo por un plazo no superior a un mes. Si esa situación supera el período de un mes, el Ayuntamiento suspenderá por el tiempo necesario la autorización.

16. Interes publikoagatik baimenaren ezeztatzea edozein unetan onartzea, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izan gabe, egoera hauetan: gerora onartutako baldintza orokorrekin bateraezina izatea, jabego eta erabilera publikoko ondarean kalteak egitea, interes publikoko jarduerak eragoztea edo erabilera orokorrari kalte egitea.

16. Aceptar la revocación de la autorización en cualquier momento por interés público, sin generar derecho a indemnización, cuando resulten incompatibles con las condiciones generales aprobadas con posterioridad, produzcan daños en el bien de dominio y uso público, impidan su utilización para actividades de mayor interés público o menoscaben el uso general.

17. Eskubidea amaitzen den egunetik hamabost eguneko epean, okupatutako eremuaren titularraren esku eta libre uztea, eta, hondatuta egonez gero, kaltetutako urbanizazioa konpontzea.

17. Abandonar dentro del plazo de quince días desde la extinción de su derecho y dejar libre y a disposición de la persona titular del terreno ocupado, reponiendo en caso de deterioro la urbanización afectada.

18. Emandako eskubidea amaitzean, instalazioak kentzea edo eraistea.

18. Retirar o demoler las instalaciones existentes cuando se extinga el derecho otorgado.

**27. artikulua. Betebehar ekonomikoak.**

**Artículo 27. Obligaciones económicas.**

1. Terrazak jartzeagatik eta beste eremu batean elementu horietako batzuk biltzeko baimena edukitzeagatik, jabego eta erabilera publikoko ondarearen erabilera bereziari dagozkion tasak ordaintzea

1. Abonar las tasas por el aprovechamiento especial del bien de dominio y uso público con la instalación de terrazas, y con la autorización para apilar en otro espacio aparte de esos elementos.

2. Hartutako betebeharren eraginez sortutako gastuak ordaintzea, eta Udalari eta hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea.

2. Abonar los gastos que se generen por las obligaciones asumidas, e indemnizar los daños y perjuicios ocasionados al Ayuntamiento y a terceros.

3. Udalari sortutako gastuak borondatezko epean ordaindu ezean, premiamendu bidez eskatuko da falta den kopurua.

3. Si los gastos generados al no se pagan en plazo voluntario, se exigirá el exceso por la vía de apremio.

4. Udal langileek, baimenik ez duen edo Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez duen okupaziorik hautemanez

4. Cuando el personal municipal detecte la existencia de ocupaciones sin autorización o incumpliendo lo dispuesto



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

gero, zigorrak jartzeko aukera alde batera utzita, jabego eta erabilera publikoko ondarearen erabilerari dagozkion tasak ordaintzeko eskatuko dute.

en esta Ordenanza, con independencia de la imposición de sanciones, se exigirá el pago de las tasas correspondientes a la utilización real del bien de dominio y uso público.

**II. KAPITULUA. – UDALARENAK**

**CAPÍTULO II. DEL AYUNTAMIENTO**

**28. artikulua. Baimenen titularrekiko betebeharrak.**

**Artículo 28. Obligaciones con las personas titulares de autorizaciones.**

1. Baimenaren titularraren esku jarriko dira okupatu beharreko eremuak, emateko jakinarazpena egin ondoren.

2. Espedientean entzunaldi izapidea ematea, eta eskatzaile bakoitzari hartutako erabakiak jakinaraztea.

3. Bide publikoaren okupazioa uzteari dagokion zenbateko proportzionala ordaintzea, baimena aurretik amaitzen bada.

4. Ikuskapena egitea eta egiaztatzea instalazioa bat datorrela aurkeztutako proiektu eta dokumentazioarekin eta emateko baldintzekin.

5. Ikuskapen Plana egitea, eta haren aurreikuspenak betetzea, ordutegia betetzeari, baimendutako azalerari eta onartutako maila akustikoari dagokienez.

6. Denboraldi bakoitzean, egiaztatzea terrazetan baimendutako mahaiak, aulkiak eta gainerako moduluak kendu direla, guztia lokalaren barruan bildu dela, eskubidea amaitzean instalazioak kendu direla espazioa hutsik utzita, eta okupatutako eremuaren urbanizazioa egoera onean geratu dela.

7. Mantentze Plan bat egitea eta martxan jartzea.

1. Poner a disposición de la persona titular de la autorización, los terrenos a ocupar, después de la notificación de su otorgamiento.

2. Conceder el trámite de audiencia en los expedientes y notificar a cada solicitante las resoluciones adoptadas.

3. Reintegrar el importe proporcional al cese en la ocupación de la vía pública ante la extinción anticipada de la autorización.

4. Efectuar la inspección y comprobar la conformidad de la instalación con la documentación y el proyecto presentados y las condiciones de su otorgamiento.

5. Elaborar el Plan de Inspección y cumplir sus previsiones en la comprobación del cumplimiento del horario, la superficie autorizada, y del nivel acústico permitido.

6. Comprobar la retirada de las mesas y sillas y demás módulos autorizados de las terrazas en cada período, y su almacenaje en el interior del local, el desmontaje de las instalaciones al finalizar su derecho para dejar totalmente vacío el espacio, y el estado de la urbanización del terreno ocupado.

7. Elaborar el Plan de Mantenimiento y su puesta en marcha.

**29. artikulua. Herritarrekiko betebeharrak.**

**Artículo 29. Obligaciones con la ciudadanía.**

1. Udalak, baimenak ematean, oinezkoen

1. El Ayuntamiento al otorgar las

joan-etorrirako erabilera komun orokorraren lehentasun irizpidea errespetatuko du, jabego eta erabilera publikoko eremuetan.

2. Udalak eskatuko du baimenek kutsadura akustikoaren arloko ingurumen babeserako xedapenak betetzeko eta errespetatzeko.

**VI. TITULUA. MANTENTZE PLANA**

**30. artikulua. Instalazioen Mantentze eta Berritze Plana.**

1. Egitura duten terrazen Mantentze eta Berritze Plana egingo da, baimenen indarraldiaren laugarren urtearen hasieran martxan jartzeko.

2. Mantentze Planean, udal teknikariek udalerrian jarritako terrazetara egin beharreko bisiten erregimena ezarriko da, altzariaren, instalazioen eta jabego eta erabilera publikoko ondarearen egoera egiaztatzeko eta baimenen urteko berritzea izapidetzean baldintzak mantendu edo jarri behar diren zehazteko.

3. Bisita horien ondoren, teknikariek baimendutako okupazio guztien egoerari buruzko txosten bat egingo dute.

4. Baimenen titularrei beren instalazioei buruzko txostenaren ondorioak jakinaraziko zaizkie.

5. Baimenen titularrek eta terrazen instalazioaren eraginpeko pertsonek edo saltokiek planaren gaineko iradokizunak egin ahal izango dituzte.

**VII. TITULUA. ZIGOR ERREGIMENA**

**31. artikulua. Ikuskaritza.**

1. Ordenantza hau betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizuna Udaltzaingoari eta udal lurren erabilerari lotutako ondarea kudeatzeko ardura

autorizaciones respetará el criterio de la preferencia del uso común general para el tránsito peatonal, en los espacios de dominio y de uso público.

2. El Ayuntamiento exigirá que las autorizaciones, respeten y cumplan las disposiciones de protección ambiental en materia de contaminación acústica.

**TÍTULO VI. PLAN DE MANTENIMIENTO**

**Artículo 30. Plan de Mantenimiento y Renovación de las instalaciones.**

1. Se elaborará el Plan de Mantenimiento y Renovación de las terrazas con, para su puesta en marcha al inicio del cuarto año de vigencia de las autorizaciones.

2. El Plan de Mantenimiento establecerá el régimen de visitas a efectuar por el personal técnico municipal a esas terrazas del término municipal, a fin de verificar el estado del mobiliario, de las instalaciones, y del bien de dominio y uso público, y las condiciones a mantener o implantar en la tramitación de la renovación anual de autorizaciones.

3. De las visitas realizadas, el personal técnico redactará un informe sobre el estado de todas las ocupaciones autorizadas.

4. Se notificará a las personas titulares de las autorizaciones, las conclusiones del informe respecto de su instalación.

5. Las personas titulares de las autorizaciones y las personas o comercios afectados por la instalación de terrazas, podrán presentar sugerencias al Plan.

**TÍTULO VII. REGIMEN SANCIONADOR**

**Artículo 31. Inspección.**

1. La vigilancia y el control del cumplimiento de esta Ordenanza corresponde a la Guardia Municipal y al Servicio Municipal que tenga atribuido la



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

duen Udal Zerbitzuari dagokie.

gestión patrimonial del uso de los terrenos municipales.

2. Udaltzaingoak, eta edozein pertsonak, Prozedura Administratibo Orokorreko 39/2015 Legeko 66. artikuluaren xedapenak eta egiaztapena egiteko datuak jasotzen dituen salaketa idatzi baten bidez, salatu ahal izango dituzte Udalaren aurrean Ordenantzaren edo baimenaren baldintzen urraketak.

2. La Guardia Municipal, y cualquier persona física, jurídica y cualquier entidad, mediante un escrito de denuncia con los datos necesarios para su comprobación y los extremos del art. 66 de la Ley 39/2015, de procedimiento administrativo común, podrá denunciar ante el Ayuntamiento las infracciones a la Ordenanza o al condicionado de la autorización.

3. Partikularrek jarritako salaketek, egiaztatu ondoren, kautelazko neurriak ezartzea eta zigor espediente bat hastea ekar dezakete.

3. Las denuncias formuladas por personas particulares, una vez comprobadas, podrán dar lugar a la adopción de medidas cautelares y a la incoación de un expediente sancionador.

**32. artikulua. Kautelazko neurriak.**

**Artículo 32. Medidas cautelares.**

1. Kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, Ordenantza honetan arautütako xedapenak eta baimenen titularren betebeharrak ez betetzeagatik.

1. Se podrán adoptar medidas cautelares por los incumplimientos de las disposiciones reguladas en esta Ordenanza y de las obligaciones asumidas por las personas titulares de autorizaciones.

2. Honako kautelazko neurri hauek jar daitezke: Terrazetako aulkiak eta mahaiak kentzea, bide publikoan jarritako elementuak zigilatzea, eta baimena aldi baterako etetea, zigor espedientea hasiko den ala ez erabaki arte.

2. Las medidas cautelares que se pueden adoptar, son la retirada de las mesas y sillas de las terrazas, el precinto de los elementos instalados en la vía pública, y la suspensión temporal de la autorización hasta que se decida si se inicia el expediente sancionador.

3. Baimena amaitu dela edo arau-hauste larri edo oso larri bat egin dela egiaztatuz gero, zigor prozeduraren izapidea hastearekin batera, Udaltzaingoari ebazpen baten bidez agindu ahal izango zaio terrazako mahaiak eta aulkiak kentzeko edo instalazioak zigilatzeko, bertan jarritako mahaiak eta aulkiak kenduta.

3. Extinguida una autorización, o ante la constatación de la comisión de cualquier infracción grave o muy grave y con el inicio de la tramitación de un procedimiento sancionador, se podrá dictar una resolución ordenando a la Guardia Municipal que retire las mesas y sillas de la terraza, o que precinte las instalaciones, y retire las mesas y sillas en él instaladas.

4. Kautelazko neurria duen ebazpena Udaltzaingoari jakinaraziko zaio, bete dezan, interesduna entzuteko hiru eguneko epea igaro ondoren alegazioak egiten ez badira edo egindako alegazioak onartzen ez badira.

4. La resolución con la medida cautelar, se comunicará a la Guardia Municipal para su ejecución, si una vez transcurrido el plazo de tres días de audiencia a la persona interesada, se desestiman las alegaciones o no se formulan.

5. Instalazioaren titularrak ordainduko ditu hartutako kautelazko neurriek, legezkotasuna berrezartzeak eta sortutako kalte-galerek eragindako gastuak.

5. Los gastos derivados de las medidas cautelares adoptadas, de la restitución de la legalidad, y del importe de los daños y perjuicios causados, serán a cuenta de la persona titular de la instalación.

**33. artikulua. Arau-hausteak.**

**Artículo 33. Infracciones.**

1. Arau-hausteak baimena emateko udal ebazpenaren baldintzen edo, oro har, Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako ekintzak edo ez-egiteak dira.

1. Son infracciones, las acciones u omisiones que contravienen el condicionado de la resolución municipal de otorgamiento de la autorización, o que contravienen lo dispuesto con carácter general en esta Ordenanza.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2. Las infracciones se clasifican en leves, graves, muy graves.

3. Honako hauek izango dira **arau-hauste arinak:**

3. Se considera infracciones leves:

a) Irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, ordubetera arte.

a) Incumplir el horario señalado de inicio o fin, hasta en una hora.

b) Eremu handiagoa okupatzea, planoan baimendutakoak baino modulu gehiago jartzearen ondorioz.

b) Ocupar más espacio al colocar más módulos de los autorizados en el plano entregado.

c) Moduluak planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.

c) Ubicar los módulos fuera de la ubicación autorizada en el plano entregado.

d) Moduluak planoan baimendutako kokalekutik kanpo biltzea.

d) Apilar módulos fuera de la ubicación autorizada en el plano entregado.

e) Baimena eta baimenaren planoa ikusteko moduan ez edukitzea.

e) No tener a la vista la autorización y el plano de la autorización.

f) Terrazako altzariak adierazitako espaziotik kanpo biltzea.

f) Almacenar fuera del espacio señalado el mobiliario de la terraza.

g) Egunero modu egokian okupazio esparrua ez garbitzea.

g) No limpiar diaria y adecuadamente la zona de la ocupación.

h) Larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren Ordenantzaren beste ez-betetze guztiak, instalatu beharreko elementuen baldintza orokorrei, espezifikoei eta ezaugarriei dagokienez, asmo txarrik gabe edo ez-betetzea errepikatu gabe.

h) Cualquier otro incumplimiento de la Ordenanza no tipificado como grave o muy grave, sobre las condiciones generales, las específicas y las características de los elementos a instalar, siempre que no exista intencionalidad o reiteración en su incumplimiento.

| | |
|---|---|
| 4. Honako hauek izango dira **arau-hauste larriak:** | 4. Se considera infracciones graves: |
| a) Terrazan baimenik gabeko elementuak jartzea. | a) Instalar en la terraza elementos no autorizados. |
| b) Baimendutakoak baino modulu gehiago jartzean behar baino eremu handiagoa okupatzea eta horren ondorioz arazoak sortzea, udal zerbitzuen segurtasun eta irisgarritasunerako. | b) Ocupar más espacio al colocar más módulos de los autorizados que supongan problemas de accesibilidad o de seguridad a los servicios municipales. |
| c) Irekitzeko eta ixteko ordutegia ez betetzea, ordubete edo gehiago luzatuta. | c) Incumplir el horario señalado de inicio o de fin, en una hora o más. |
| d) Ordutegitik kanpo bezeroei terraza erabiltzen uztea eta hura ez erabiltzeko beharrezkoak diren bitartekoak ez jartzea. | d) Permitir o no poner los medios suficientes para impedir a los clientes el uso de la terraza contraviniendo el horario. |
| e) Baimendutako proiektua aldatuko duten obrak egitea baimenik gabe. | e) Ejecutar obras sin autorización que representen una alteración del proyecto autorizado. |
| f) Konpontzeko, egokitzeko edo jartzeko obrak ez hastea finkatutako epean. | f) No iniciar en el plazo fijado las obras de reparación, de adecuación, o de instalación. |
| g) Hiru arau-hauste arin egitea urtebetean. | g) Cometer tres infracciones leves en un año. |
| 5. Honako hauek izango dira **arau-hauste oso larriak:** | 5. Se consideran infracciones muy graves: |
| a) Terraza jartzea, baimena eskatu eta eskuratu gabe. | a) Instalar la terraza sin solicitar u obtener la autorización. |
| b) Terraza edo itxitura erabiltzea baimenik gabeko jarduera bat egiteko. | b) Utilizar la terraza o el recinto para realizar una actividad no autorizada. |
| c) Berariaz debekatutako moduluak jartzea. | c) Instalar módulos expresamente prohibidos. |
| d) Hiri altzariak, eserlekuak, paperontziak, farolak kentzea edo mugitzea, udal baimenik izan gabe. | d) Retirar o desplazar el mobiliario urbano, bancos, papeleras, farolas sin autorización municipal. |
| e) Ez betetzea baimena ez edukitzeagatik instalazioa kentzeko agindua edo finkatutako baldintzekin bat ez datozen elementuak kentzeko agindua. | e) Incumplir la orden de retirar la instalación por no tener autorización, o de retirar los elementos que no se ajusten al condicionado fijado. |
| f) Jabego eta erabilera publikoko | f) Las acciones u omisiones que produzcan |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

ondarean edo aldameneko ondareetan kalte konponezinak egiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.

daños irreparables en el bien de dominio y uso público o bienes colindantes.

g) Trafikoa, urbanizazioa, interes orokorra edo udal interesa direla eta, terraza desmuntatzeko eta kentzeko agindua eta epea ez betetzea.

g) Incumplir la orden y el plazo de desmantelar y retirar la terraza, por razones de tráfico, de urbanización, de interés general, de interés municipal.

h) Emandako eskubidea amaitzean, terraza edo itxitura desegiteko eta kentzeko, eta okupatutako eremua hutsik uzteko agindua eta epea ez betetzea.

h) Incumplir la orden y el plazo de desmantelar y retirar la terraza, y de dejar vacío el espacio ocupado, al extinguirse el derecho otorgado.

i) Eskatutako epean ez ordaintzea okupazio tasak.

i) No abonar en el plazo exigido cualquiera de las tasas de ocupación.

j) Baimena ostalaritza establezimendutik bereiz errentan ematea, lagatzea edo eskualdatzea.

j) Arrendar, ceder o traspasar la autorización de forma independiente al establecimiento de hostelería.

k) Hiru arau-hauste larri egitea, urtebetean.

k) Cometer tres infracciones graves en un año.

6. Ordenantza honetan arautuako arau-hauste oso larriak hiru urtera geratuko dira baliorik gabe, larriak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

6. Las infracciones reguladas en esta ordenanza prescribirán a los tres años las calificadas de muy graves, a los dos años las calificadas de graves, y a los seis meses las calificadas de leves.

**34. artikulua. Zigor prozedura.**

**Artículo 34. Procedimiento sancionador**.

1. Zigor espedienteak Udaltzaingoaren aktak ikusirik hasiko dira, administrazioak bere kabuz edo partikularren salaketagatik eginak, eta tasaren ez ordaintzearen udal txostenarekin batera.

1. Los expedientes sancionadores, se iniciarán ante las actas de la Guardia Municipal, levantadas de oficio o por denuncia de los particulares, y con el informe municipal del impago de la tasa.

2. Udaltzaingoaren aktak eta ez ordaintzeen txostenak aztertuko dira arau-hausteen kalifikazioa eta, hala badagokio, zehapen-espedienteak hasteko proposamena egiteko.

2. Las actas de la Guardia Municipal y los informes de los impagos se analizarán para la calificación de las infracciones y en su caso la propuesta de iniciar expedientes sancionadores.

3. Zigor espedientea gertakarien zerrendarekin hasiko da, baita arau-haustearen kalifikazioarekin eta dagokion zigor proposamenarekin ere, kontuan hartuz hura mailakatzeko dauden irizpideak.

3. El expediente sancionador se iniciará con la relación de los hechos, la calificación de la infracción, y la propuesta de sanción que corresponda teniendo en consideración los criterios para su graduación.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

4. Ebazpen proposamena arau-haustearen kalifikazioarekin eta zigorren ezarpenarekin emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie, hamabost eguneko entzunaldi izapidean alegazioak egin eta egoki irizten dituzten dokumentuak aurkez ditzaten.

4. La propuesta de resolución se dictará con la calificación de la infracción y la imposición de sanciones, que se notificará a los las personas interesadas, para que en el trámite de audiencia de quince días, formulen alegaciones y presenten los documentos que estimen conveniente.

5. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, alegazioei emandako erantzunarekin eta zigorren ezarpenarekin, eta berraztertze errekurtsoa jartzea eskainiko zaie. Ebazpena irmo bihurtzen denean bide administratiboan, zigor ebazpena betearaztekoa izango da.

5. La resolución con la contestación de las alegaciones y la imposición de sanciones, se notificará a los las personas interesadas, ofreciendo el recurso de reposición. Cuando la resolución adquiera firmeza en vía administrativa, la resolución sancionadora será ejecutiva.

6. Instalazioa kenaraztea edo instalazioen zigilatzea ematen den kasuetan, zigorraren zergatia eta iraupena jasotzen dituen dokumentua jarri beharko da establezimenduan, bertaratutakoek ikusteko moduan.

6. En los casos en los que se conceda la retirada de la instalación o el precinto de las instalaciones, deberá exponerse en el establecimiento un documento municipal en el que se recoja la causa y duración de la sanción, a la vista de los asistentes.

**35. artikulua. Mailaketa irizpideak.**

**Artículo 35. Criterios de graduación.**

Zigorren zenbatekoa ezartzeko, baimenak deuseztatzeko, baliogabetzeko eta iraungitzeko honako hauek hartuko dira kontuan: nahita egin ote diren, arau-hausteak zenbat denboraz iraun duen, unean unekoa den, noizean behingoa edo errepikatu egin ote den, ez betetzea gertatu zenean zegoen edukiera, egun berezietan gertatu ote zen, tokiko festetan adibidez, eta eragindako kalteen ezaugarriak.

Las sanciones económicas, la suspensión, la revocación, y la extinción de las autorizaciones, se graduarán atendiendo a la existencia de intencionalidad, al período de tiempo en el que se mantiene la infracción, si es puntual, esporádica o si su reiteración es persistente, al aforo existente en el momento del incumplimiento, a su realización en fechas especiales de fiestas locales, y a la naturaleza de los perjuicios causados.

**36. artikulua. Zigorrak.**

**Artículo 36. Sanciones.**

1. Zigorrak izan litezke ohartarazpen hutsa, diruzko zigor bat, baimena deuseztatzea eta baliogabetzea, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, eta baimena iraungitzea eta instalazioa kenaraztea.

1. Las sanciones podrán ser, un mero apercibimiento, una sanción pecuniaria, la suspensión y la revocación de la autorización junto con la retirada de la instalación o el precinto de las instalaciones, la extinción de la autorización con la retirada de la instalación.

2. Sailkatutako arau-hausteak honela zigortuko dira:
a) Arau-hauste arin bakoitzagatik, ohartarazpen hutsa edo 50 eta 200 € bitarteko isuna.

2. Las infracciones tipificadas se sancionarán:
a) Por cada infracción leve, con un mero apercibimiento o una multa de 50 a 200 €.
b) Por cada infracción grave, con la

b) Arau-hauste larri bakoitzagatik, baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 600 € bitarteko isuna.

suspensión y revocación de la autorización junto con la retirada de la instalación o el precinto de las instalaciones, por un periodo de hasta un mes, y en su caso, una multa de 201 € a 600 €.

c) Arau-hauste oso larri bakoitzeko, instalazioa kentzearekin edo instalazioak zigilatzearekin batera, hiru hilabete arte, edo epe mugagabean, baimena iraungitzen bada, eta, hala badagokio, 600 €-tik 1.500 €-ra bitarteko isuna.

c) Por cada infracción muy grave con la suspensión y revocación de la autorización junto con la retirada de la instalación, o el precinto de las instalaciones, por un periodo hasta de tres meses, o de forma indefinida extinguiendo la autorización, y en su caso, una multa de 600 € a 1.500 €.

3. Zigortutako arau-hausteak behin eta berriz egiteak isunaren mailaketa hau ekarriko du, eta, gainera, baimena deuseztatzea erabakiko da, eta bide publikotik instalazioa kenaraztea, edo instalazioa zigilatzea, honako aldi hauengatik:

3. La reincidencia en la comisión de infracciones sancionadas, conllevará la siguiente graduación de la multa, y además se decretará la suspensión de la autorización junto con la retirada de la instalación de la vía pública, o el precinto de la instalación, por los siguientes periodos:

a) Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago egiten badira, bigarrena 200 euroan mailakatuko da. Hurrengoa, ordea, larritzat joko da eta baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 600 € bitarteko isuna.

a) Si se incurre en dos o más de dos infracciones leves en un año, la segunda se graduará en 200 €, y la siguiente al considerarse infracción grave, se sancionará con la suspensión y revocación de la autorización junto con la retirada de la instalación o el precinto de las instalaciones, por un periodo de hasta un mes, y en su caso, una multa de 201 € a 600€.

b) Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago egiten badira, bigarrena 600 euroan mailakatuko da. Hurrengoa oso larritzat joko da eta baimena deuseztatzea eta indargabetzea erabakiko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioak zigilatzearekin batera, hiru hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta, eta egoki denean, 601 € eta 1.500 € bitarteko isuna.

b) Si se incurre en dos o más de dos infracciones graves en un año, la segunda se graduará en 600 €, y la siguiente al considerarse infracción muy grave se decretará la suspensión y revocación de la autorización junto con la retirada de la instalación, o el precinto de las instalaciones, por un periodo de hasta de tres meses, o de forma indefinida extinguiendo la autorización, y en su caso, una multa de 601 € a 1.500 €.

c) Urtean bi arau-hauste oso larri edo gehiago egiten badira, bigarrena eta hurrengo isunak 1.500 euroan mailakatuko dira, eta baimena deuseztatzea erabakiko da, eta berehalakoan

c) Si se incurre en dos o más de dos infracciones muy graves en un año, la segunda y siguientes multas se graduarán en 1.500€, y se decretará la suspensión de la autorización junto con la inmediata

instalazioa kenaraztea, edo instalazioak berehalakoan zigilatzea, bost hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta.

4. Ordenantza honetan arautuutako zigorrei dagokienez, oso hutsegite larriengatik ezarritakoak hiru urtera baliogabetuko dira, hutsegite larriengatik bi urtera, eta hutsegite arinengatik sei hilabetera, zigorra ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

**VIII. TITULUA BAIMENAK IRAUNGITZEA**

**37. artikulua. Baimenak iraungitzea.**

Baimenak indargabetuko dira honako arrazoiak direla eta:

1. Titularraren heriotza edo ezgaitasuna, eta haren nortasun juridikoa iraungitzea.

2. Titularrak uko egitea.
3. Eskualdatze kasuetan baimenik ez egotea.
4. Jardueran edo establezimenduaren baimenean baja eman delako.
5. Indarraldiaren mugaeguna betetzea.
6. Udalak baliogabetzea, kalte-ordainik izateko eskubiderik gabe:
a) Interes publikoa tartean denean, ondoren onartutako baldintzekin bateraezinak direnean, kalteak eragiten dituztenean okupatutako eremuan, interes publiko handiagoa duten jardueretarako erabilera eragozten dutenean eta balioztatzeko irizpide berriak hartzen direnean.

b) Tasa ez ordaintzea baimenak ezarritako borondatezko epean, edo isuna, baimenaren baldintzak, ordenantza edo aplikagarria den gainerako araudia ez betetzeagatik.

7. Udalak deuseztatzen dituenean oker emanak izan direlako, eragin dituzten kalte-galerak ordaindu ondoren, egindako exekuzio proiektuaren

retirada de la instalación, o el inmediato precinto de las instalaciones, por un periodo hasta de cinco meses, o de forma indefinida extinguiendo la autorización.

4. Las sanciones reguladas en esta ordenanza, prescribirán las impuestas por faltas muy graves a los tres años, las impuestas por faltas graves a los dos años, y las impuestas por faltas leves a los seis meses, contados desde el día siguiente al de la firmeza de laresolución por la que se impone la sanción.

**TÍTULO VIII. EXTINCIÓN DE LAS AUTORIZACIONES**

**Artículo 37. Extinción de las autorizaciones.**

Las autorizaciones se extinguirán por las siguientes causas:

1. Muerte o incapacidad de la persona titular, y por extinción de su personalidad jurídica.
2. Renuncia de la persona titular.
3. Falta de autorización en los supuestos de transmisión.
4. Darse de baja en la actividad o en la autorización del establecimiento.
5. Vencimiento del plazo de vigencia.
6. Revocación por el Ayuntamiento sin derecho a indemnización:
a) Por motivos de interés público cuando, resulten incompatibles con condiciones aprobadas con posterioridad, produzcan daños en el espacio ocupado, impidan su utilización para actividades de mayor interés público, se adopten nuevos criterios de apreciación.

b) Por la falta de pago de la tasa en el plazo en voluntaria fijado en la autorización, y como sanción por incumplimiento de las condiciones de la autorización, de la Ordenanza, o demás normativa de aplicación.
7. Anulación por el Ayuntamiento cuando resultasen otorgadas erróneamente, con el resarcimiento de los daños y perjuicios que se causen, calculados sobre el

zenbatekoaren eta haren amortizazioaren gain kalkulatuak, ustiatzeko gelditzen den okupazio denbora ikusirik, eta jabetza eta erabilera publikoko ondasuna jatorrizko egoerara itzuli ondoren.

importe del proyecto de ejecución ejecutado, y su amortización ante el tiempo de ocupación que reste por aprovechar, y con la restitución del bien de dominio y uso público a su estado primitivo.

8. Adostasunez.

8. Mutuo acuerdo.

9. Baimena eman eta ondoren, titularrak kontratatzeko debekuren bat baldin badu.

9. Cuando con posterioridad al otorgamiento de la autorización, la persona titular incurra en alguna de las prohibiciones de contratación.

**38. artikulua. Instalazioak desmuntatzea.**

**Artículo 38. Desmontaje de las instalaciones.**

1. Jabetza eta erabilera publikoko gune baten okupazioa baimenik gabeko instalazio batekin, baimenik gabeko elementuekin, baimendutako elementu baino gehiagorekin edo behin betiko eten edo indargabetu den baimen batekin egin dela egiaztatu ondoren, eta zigor espedientearen tramiteak hasteko eragozpen izan gabe, establezimenduaren arduradunari aginduko zaio berehalakoan desmunta eta ken dezala instalazioa edo baimendu gabeko elementuak, eta ohartaraziko zaio epea agortu ondoren haren konturako betearazte subsidiarioari ekingo zaiola.
Betearaztearen kostua likidatu egingo da okupazio tasarekin eta dagokion arau-hauste larri edo oso larriaren zenbatekoarekin. Kendu diren elementuak udal eremuren batean utzi behar badira, kostuaren zenbatekoa finkatuko da eremua husten den arte.

1. Constatada la ocupación de un espacio de dominio y uso público con una instalación no autorizada, con elementos no autorizados, en mayor número de los autorizados, o con una instalación cuya autorización ha sido suspendida definitivamente o revocada, y sin perjuicio de iniciar los trámites del expediente sancionador, se ordenará a la persona responsable del establecimiento, que de forma inmediata desmonte y retire la instalación o los elementos no autorizados, con la advertencia de que transcurrido el plazo se procederá a su ejecución subsidiaria a su cargo.
El coste de la ejecución se liquidará con la tasa por la ocupación y el importe de la sanción grave o muy grave que corresponda. Si los elementos retirados tienen que depositarse en un espacio municipal, se fijará el importe de su coste hasta que se desalojen.

2. Indarraldia amaitu zaion instalazio batekin jabetza eta erabilera publikoko eremu baten okupazioa egin dela egiaztatu ondoren, establezimenduaren arduradunari aginduko zaio terraza desmuntatu eta kentzeko.

2. Constatada la ocupación de un espacio de dominio y uso público con una instalación cuya vigencia ha transcurrido, se ordenará a la persona responsable del establecimiento, que desmonte y retire la terraza.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

*Lehenengoa.* Ordenantza hau indarrean sartzen denean izapidetze bidean dauden baimenek xedapen hauetara egokitu beharko dute, tramitazioari eta dokumentazioari dagokienez.

*Primera.* Las autorizaciones solicitadas que estuvieran en tramitación a la entrada en vigor de esta Ordenanza, deberán ajustarse en su tramitación y documentación a estas disposiciones.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

*Bigarrena*. Terraza eta mahai-tokien inguruan emanda dauden baimenak ordenantza honetan arautzen diren baldintza teknikoetara eta publizitate baldintzetara pixkanaka egokitzeko epea 2023ko ekainaren 1ean amaituko da.

*Segunda*. A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas y veladores a las condiciones técnicas y de publicidad establecidas en la presente ordenanza finalizará el 1 de junio de 2023.

**AZKEN XEDAPENAK**

Ordenantza honetako xedapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean, eta Zumaiako udalerrian aplikatuko dira.

**DISPOSICIONES FINALES**

Las disposiciones de la presente Ordenanza entrarán en vigor y serán de aplicación en el municipio de Zumaia, el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Gaia azaldu eta gero bozka ematen da.

**Aldeko botoak: 14 boto (8 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

**LEHENA.-** JABARI PUBLIKOETAN ETA PRIBATUETAN, ERABILERA PUBLIKOA DUTEN KASUETAN LURZORUAREN OKUPAZIOA OSTALARITZARAKO ETA MERKATARITZARAKO ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI hasierako onarpena ematea.

**BIGARRENA.-:** Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Hurrengo puntua pasako gea:



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 3.- PARTAIDETZA, GAZTERIA, BERDINTASUNA.-

## 3.1.- IRIZPENAK.-

### 3.1.1.- IV. BERDINTASUNERAKO PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

**ZUMAIAKO IV. BERDINTASUN PLANA ONARTZEKO IRIZPENA (2023-2026)**

**AURREKARIAK**

**1.-** Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.3. artikuluan adierazten den bezala, Zumaiako Udalak indarrean dagoen III. Berdintasun Plana ebaluatu eta IV. Plana prestatu egin du, 2023ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko.
Planaren indarraldia: **2023-2026.**

**2-** Xehetasun guztien berri 2022ko Berdintasun batzordeetan eman da.

**3. EMAKUNDEK, Emakumearen Euskal Erakundeak,** aldeko txostena eman dio Udalari IV. Berdintasun Plana Udalbatzara eraman dezan eta bertan onartu dadin.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2022ko abenduaren 15eko Berdintasun, Gazteria, Parte-Hartze eta Aniztasun Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

**Alde:**
**Kontra:**

**Aldeko/kontrako** irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako , Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki

**DICTAMEN PARA LA APROBACION DEL IV. PLAN DE IGUALDAD DE ZUMAIA (2023-2026)**

**ANTECEDENTES**

**1.-** Según establece el artículo 15.3. de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y hombres, el ayuntamiento de Zumaia ha evaluado el III. Plan de Igualdad y ha preparado el IV. Plan de Igualdad, para que entre en vigor el 1 de enero de 2023.
Vigencia del Plan: **2023-2026**.

**2.-** Se han comunicado todos los detalles en las Comisiones de igualdad del 2022.

**3.- EMAKUNDE, el Instituto Vasco de la Mujer,** ha dado el visto bueno al Ayuntamiento para que lleve el IV. Plan de Igualdad al pleno y se apruebe.

**DICTAMEN**

En consecuencia la Comisión de Igualdad, Juventud, Participación y Diversidad con fecha 15 de diciembre de 2022, tras la siguiente votación:

**A favor:**
**En contra:**

Acuerda **ESTIMAR o DESESTIMAR** el presente dictamen de conformidad con el artículo 135.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan arautukoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko da:

adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

1.- **2023-2026 urteetarako**, Zumaiako Udaleko IV. Berdintasun Planari behin behineko onarpena ematea.

1.- Aprobar inicialmente el IV. Plan de Igualdad **para los años 2023-2026.**

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.

2.- Someter a información Pública el expediente, por plazo de 30 días hábiles, contados a partir del día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias. En caso de que durante el referido plazo no se presenten reclamaciones o sugerencias se entenderá conforme al artículo 49 de la Ley 7/1985 definitivamente aprobado el acuerdo.

Batzordeburua

Berdintasun, Gazteria, Parte-hartze eta Aniztasun zinegotzia: Maider Alberdi



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Zumaiako Udala

2022IAKU0012-P22/00007

# ZUMAIAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

2022ko azaroa

elhuyar ezagutuz aldatzea — EMAKUNDE EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE INSTITUTO VASCO DE LA MUJER — Zumaiako Udala — ZUMAIA BIZITZEKO DA



| Dokumentu kod./Cod. Documento | 2022IAKU0012-P22/00007 |
|---|---|
| Dokumentu Egiaztatzailea<br>Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADMV7L.S1CC |

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# AURKIBIDEA

1. SARRERA .......... 2

2. HITZAURREA .......... 3

3. ARAUDI MARKOA .......... 4

4. METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA .......... 6

5. EBALUAZIO ETA DIAGNOSTIKOTIK ONDORIOZTATUTAKO ERRONKAK .......... 10

6. PRINTZIPIO-GIDARIAK .......... 11

7. PLANA GARATU AHAL IZATEKO EZINBESTEKO BERMEAK .......... 13

8. PLANAREN INDARRALDIA .......... 15

9. ESKU-HARTZE ARDATZAK .......... 16

9.1. Gobernu ona .......... 16

9.2. Emakumeen ahalduntzea .......... 17

9.3. Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea .......... 18

9.4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak .......... 19

10. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK .......... 20

11. EKINTZA-PLANA .......... 23

12. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA .......... 53

12.1. Garapen eta kudeaketarako egiturak .......... 53

12.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak .......... 57

12.3. Planaren ebaluazio-sistema .......... 58

13. PLANAREN KOMUNIKAZIOA .......... 65

## 1. SARRERA

Dokumentu hau Elhuyarrek osatu du, Zumaiako Udalaren eskariz eta Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Zumaiak ibilbide luzea du emakume eta gizonen berdintasunerako gaiak Udalean lantzen. 2011ean izan zuen bere lehen berdintasunerako plangintza, eta egun, IV. Plana jarriko du abian. Zumaiako Udalak azken urteetan egindako lanari jarraipena eman eta salto kualitatibo bat eman nahi du, hurrengo urteetarako estrategia eta bide-orria ezarriz.

Aurkibidean argi ikus daitekeen bezala, IV. Planak ekintza konkretuak zehazteaz gain, lanerako marko oso bati egiten dio erreferentzia, prozesu osoan zehar parte hartu dutenek adostasunez landutakoa.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 2. HITZAURREA

Zumaiako Udalak badaramatza urte batzuk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen. Horren ondorio dira diseinatu eta garatu dituen berdintasunerako hiru planak. Egungo testuinguru politikoak, (Berdintasun lege-proiektu berria) zein sozialak, (feminismoaren bultzada) berdintasun politiketan aurrerapausoak emateko bidea irekitzen dute. Hori dela eta, Zumaiako Udalak aurreko hiru berdintasunerako planei esker irekitako bidean urrats sendoak ematen jarraitzeko borondatea du.

IV. Planaren diseinurako prozesua ikaspen prozesu bat izan da bertan parte hartu dugun guztiontzat. Eskertu nahi diegu prozesuan modu batean edo bestean parte hartu duten udal-langile zein herritarrei eskainitako denbora eta egindako ekarpenak.

IV. Plana elkarlanaren emaitza ere bada, puntu honetan azpimarratzekoa da Berdintasun Foroan orain arte egondako emakume aktiboek prozesuan zehar izan duten dedikazioa eta egin dituzten ekarpenak.

Azken urteetan feminismoak, ez bakarrik Zumaian, baina gure herrian ere lortu duen bultzada mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek urteetan gure udalerrian egindako lanari esker izan da, hein handi batean. Horrez gain, historikoki Zumaian emakume asko egon dira berdintasunaren gaia oso presente izan dutenak euren bizitzetan eta gaia lehen lerrora ekartzen lagundu dutenak. Ondare hori balioan jarri nahi dugu, izan ere, IV. Planaren garapenerako akuilu izango da.

Bestetik, IV. Plan honek ez luke alde batera utzi behar pandemiak eragindako krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioaren ondorioz mundu osoan bizi izan dugun salbuespenezko unea. Izan ere, errealitate horrek areagotu egin ditu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, eta handitu egiten ditu arrakala guztiak.

Eraldaketaren bidea egiten hasiak gauden arren, asko dira oraindik, gaur gaurkoz, gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria, sexuaren araberako diskriminazioa, generoaren baitako aukera- eta tratu-desberdintasuna, indarkeria, eta jazarpena agerian uzten duten errealitateak. Hori dela eta, premiazkoa da esku-hartze sendoak egitea, Zumaiako berezitasunetara egokituta eta helburu zehatzak eta ondo definituak dituena, gure udalerriko emakumeek bizi dituzten diskriminazioak gainditzeko bidean.

Zumaiako Berdintasunerako IV. Plana orain arte egindako lana oinarri hartuta, berdintasun-politikak sustatzen jarraitzeko tresna izateko anbizioarekin diseinatu dugu eta bide horretan lagungarria izango delakoan gaude.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 3. ARAUDI MARKOA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAE-ko 4/2005 Legeak** hasierako adierazpenean jasotzen duen moduan, Emakumearen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: “printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”.

Beste alde batetik, **1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna** indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluarekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

**Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan**, berriz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea** onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartzeari bultza egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako **berdintasuna sustatzeko zazpi plan onetsi ditu**. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarrizko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Zehazki, Emakundek 2018ko ekainean onetsitako **EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Planean**, XI. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko sei planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespenak irekitzen duen markoan.

**EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** bere egin du berdintasunerako gobernantzaren ildotik lan egin beharra, berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte, eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. VII. Planean, mainstreaming-a eta gobernantza oinarrian daude. Baina, horretaz aparte, beste hiru ardatz ere bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak:



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Apustua, une honetan, zera da, **berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea**, eta hori da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren **otsailaren 18ko 4/2005 Legea**ren xedea. Lege horrek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoa -egiturazkoa eta unibertsala- gizartetik desagerraraz dadin. 4/2005 Legea aitzindaria izan zen; izan ere, lege berean berdintasunerako eta indarkeriaren aurkako politiken garapena jasotzen zuen.

2022ko martxoaren 3an onartu zen **Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 euskal legearen bigarren testu moldaketa**. Orain, 4/2005 Legeak, emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarako legeak ekarpen berriak jasotzen ditu (hemendik aurrera, 4/2005 EGBL). Moldaketa berriak Euskadiko marko arautzailea Europako Kontseiluko **"Emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren aurkako Istanbulgo Hitzarmenera"** egokitzea zuen helburu nagusietako bat. Horrek ekarri du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren markoa berritzea, zerbitzuetan zehaztasunak ezartzea eta zerbitzuen hartzaileetan emakumeez gain, haien menpeko senideak sartzea, batez ere adin txikikoak.

Hala ere, 4/2005 EGBLk, oraindik, bere 7.artikuluan ezartzen ditu **tokiko administrazio publikoen zereginak berdintasun politikei dagokionez**. Irungo udalak zeregin horiek garatu beharko ditu bere V. Berdintasunerako Planaren bidez.

Horrez gain, lege horretako 15. artikuluaren 2. puntuan ezartzen **da Tokiko administrazioek Berdintasunerako Planak edo programak izateko betebeharra dutela**.

Norabide horretan, Zumaiako Udalak III. Plana diseinatu zuen 2020ean eta ordutik hona garatzeko lanetan aritu da. Orain, Planaren ebaluazioaren bidez, non eta nola eragin den ezagutu nahi izan du Udalak eta, horrekin batera, zeintzuk diren kontuan hartu beharreko elementu-giltzarriak, berdintasun-ikuspegitik egungo errealitatearen irakurketa egiteko garaian, datozen urteetako Berdintasunerako IV. Plana diseinatu ahal izateko.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# 4. METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

## Oinarri metodologikoak

Zumaiako prozesua metodologikoki diseinatzeko **IAP** (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen dugun **metodologiaren oinarriak hartu ditugu kontuan**. Xedea talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea da.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei gizarte-sareak berreraikitzeko aukera ematen die, alegia, hausnarketaren bidez **gizarte-sare horiek eraldatzeko aukera**. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika berezien erabilera.

Jarraian, Zumaiako Berdintasun Sailak eta Elhuyarrek prozesu hau garatzeko kontuan hartu dituzten oinarriak edo printzipioak jasotzen dira:

- **Parte-hartzea**: Genero-gaien inguruan hausnarketa egin eta eztabaidatzea izan da prozesu honen xedea, emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak eraikuntza kolektiboaren bidez definitzea. Horrela, bidean parte-hartzaileek prozesua bere egitea izan da asmoa.
- **Malgutasuna**: prozesuak iraun duen bitartean parte-hartzaileek beharrezko jo dituzten aldaketak/moldaketak proposatzeko aukera izan dute.
- **Komunikazioa**: komunikazioa beharrezkoa da herritarrei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidatzeko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab. Horregatik, prozesuaren hasieratik garrantzia handia eman diogu gai honi eta Udaleko komunikazio arduradunarekin eskuz esku lanean jardun dugu.
- **Aniztasuna**: garrantzitsua da, berdintasun-gaiak jorratzen ditugunean, era guztietako herritarrak erakarri eta inplikatzeko moduko prozesua diseinatzea, eta, beraz, aniztasuna kontuan hartzeko ahalegina egin dugu.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna**: egitasmoak genero-ikuspegia bermatu du ezinbestean, bai prozesu-ikuspegitik eta baita emaitzaren ikuspegitik ere. Horrek esan nahi du, emakumezkoen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak, irtenbideak... modu espezifikoan aintzat hartu direla. Horretarako hainbat alderdi zaindu ditugu: parte hartzeko tokiak eta ordutegiak, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatuko dituzten laneko dinamikak martxan jartzea, etab.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## Prozesuaren urratsak

Zumaiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plan diseinatzeko prozesua 2022ko otsailean abiatu genuen. Jarraian, hilabete hauetan ikuspegi metodologiko batetik prozesuaren urratsak jasota daude:

### 0. Aurre-lanak:

- **Talde Eragilea** eratu dugu, prozesuari etengabeko segimendua egiteko. Honako hauek osatzen dugu Talde eragilea: berdintasun teknikariak, berdintasun zinegotziak eta Elhuyarreko teknikariak. Teknikariaren esku geratu dira komunikazio arduradunarekin hartu-emana, komunikazioari lotutako alderdiak lantzeko.
- **Lanerako prozesua egokitu** dugu. Talde Eragileko lehenengo bilerak proposamenean definitutako prozesua egoerara eta udalaren beharretara egokitzeko balio izan zigun. Kronograma egokitu genuen.
- **Dokumentazioa aztertu** dugu. Berdintasunaren eremuan egin den lana aztertzeko informazio esanguratsua eman diezaguketen dokumentuak identifikatu eta aztertu ditugu: memoriak, protokoloak, etab.
- **Ordezkari politikoei** prozesua aurkeztu diegu. Aurkezpen hau berdintasun zinegotziaren eta teknikariaren esku geratu zen, saioaren helburua prozesuaren berri eman eta ekarpenak jasotzea izan zen.

### 1. Ebaluazioa eta egungo erronka nagusiak identifikatzeko fasea:

Martxoa eta uztaila bitartean garatu dugu. Fase honen helburu nagusia III. Planaren garapena ebaluatzeko ahalik eta informazio gehien eta ahalik eta iturri ezberdin gehienetatik biltzea izan da.

- **Berdintasun teknikariarekin elkarrizketa sakona** egin dugu. Zumaiako Berdintasunerako III. Planean zehaztutako helburu eta neurrien betetze-maila aztertzeko, zer egin den, zer ez eta zergatik. Era berean, Plana garatzeko indargune nagusiak eta zailtasun nagusiak identifikatu ditugu; eta, genero-mainstreamingaren estrategia inplementatzeko eta berdintasunerako politikak sustatzeko erronkak identifikatzeko saiakera egin dugu.
- **Udal-sailekin erronda** egin dugu. Sail ezberdinak taldekatuz teknikariekin talde-elkarrizketak egin ditugu Planaren garapenari buruz, beraien eguneroko lanari buruz eta genero-ikuspegia lanean txertatzeari buruz. Guztira 10 teknikarik hartu zuten parte (8 emakume eta 3 gizon).
- **Herritarrekin talde-elkarrizketak** ere egin ditugu, elkarrizketa hauen baitan kolektibo ezberdinetako emakumeengana gerturatzeaz gain, bestelako eragileetara gerturatu gara, berariaz beraiei dagozkien gaiak lantzeko eta euren ikuspuntua ezagutzeko. Zumaiako kasuan, zehazki, landa-eremuko emakumeak, emakume migratuak, emakume pentsionistak eta hezkidetza proiektuaren zuzendaria. Honela bada, guztira 4 elkarrizketa egin ditugu eta 15 emakumek hartu dute parte.
- Elkarrizketez gain, **herriko zenbait eragile eta norbanakorekin lan-saio irekia** egin dugu. Gaia zelan lantzen duten ezagutzeko eta egungo Zumaiako erronkak

identifikatzeko ariketa egiteko. Saio honetan 9 emakumek hartu dute parte. Bertan Mugimendu Feminista, emakume pentsionistak, emakume migratuak, landa eremuko emakumeak eta herritarrak egon ziren ordezkatuak.

- **Berdintasun Foroa, Emakumeon* Etxea eta Mugimendu Feministarekin kontraste saioa** egin genuen. Saio honetan lehenengo fasean jasotako informazioa partekatu eta hausnarketa kolektiboa sustatzea izan zen helburua. 5 emakumek hartu zuten parte.
- **Ordezkari politikoekin kontraste- eta gogoeta- saioa** egin genuen. Ordura arte jasotako informazioa partekatu eta haien esperientziak ezagutu genituen bertan; hausnarketa kolektiborako eta kontrasterako espazioa izan zen.

## 2. Berdintasunerako Plana diseinatzeko fasea:

Fase hau azaroan abiatu dugu. III. Planaren ebaluazio-fasea ixtearekin batera hasi zen.

- Talde eragileak hiru bilera egin ditu Planaren zirriborroaren gainean lan egiteko.
- Behin zirriborroa esku artean izanda, hiru kontraste-saio egin genituen udal-langile eta teknikari guztiekin batera bat, eta beste bat herri-eragile eta norbanakoekin.
- Azkenik, Ordezkari Politikoei aurkeztu diegu prozesua eta emaitza.
- Jarraian kontraste-saioetan parte hartu duten kideen parte-hartzaileen perfilak jasotzen ditugu:

  - Udal-teknikariekin saioa, irailaren 28an:
    - Turismo eta merkataritza teknikaria
    - Kontu hartzailea
    - Hirigintza teknikaria
    - Udaltzaingo burua
    - Euskara eta Hezkuntza teknikaria
    - Kultura eta jaien teknikaria
    - Gizarte Zerbitzuetako teknikaria
    - Kirol teknikaria
    - Berdintasun Teknikaria
  - Herri-eragileekin 1. saioa, urriaren 24ean:
    - Malen Etxea


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

    - Hitzez elkartea
    - Emakume pentsionistak
    - Mugimendu Feminista
    - Herritarrak
    - Berdintasun Zinegotzia
    - Berdintasun teknikaria
  - Herri-eragileekin 2. Saioa, azaroaren 14ean:
    - Malen Etxea
    - Hitzez elkartea
    - Emakume pentsionistak
    - Mugimendu Feminista
    - Herritarrak
    - Berdintasun Zinegotzia
    - Berdintasun teknikaria

### 3. Prozesua baloratu eta komunikatzeko fasea:

Berdintasun Foroa prozesuaren balorazioa egin dugu eta jaso ditugun ekarpen nagusien artean honakoak:

- *Ekarpenak egiteko aukera izan dutela modu askean.*
- *Asko ikasteko prozesu bat izan da.*
- *Ikuspuntu ezberdin asko biltzeko aukera eskaini duen prozesua.*
- *Aberasgarria izan da denon artean sortutako Plana egitea.*
- *Oso lan interesgarria izan da.*
- *Lan-taldea osatu dela lana burutzeko.*

Talde eragilean, berriz ere formatu txikian, bildu eta prozesuaren nondik norakoak baloratu ditugu. Horrez gain, azken hilabeteetan modu paraleloan landu duguna komunikazio-euskarrien zabalkundea nola egin ere adostu dugu.

- Hedabideetan prozesuaren nondik norakoak eskainiko dira.
- Udal-aldizkarian prozesuaren eta IV. Planaren berri emango da.
- Planaren berri emateko ekitaldia egingo da.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 5. EBALUAZIO ETA DIAGNOSTIKOTIK ONDORIOZTATUTAKO ERRONKAK

Zumaiako Berdintasunerako III. Planaren betetze-maila eta ebaluazioaren emaitza nagusiak kontuan izanda, Berdintasunerako IV. Planak, besteak beste, ondorengo erronkei egin beharko die aurre:

- Genero zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea, horretarako udal teknikariak trebatuz.
- Berdintasun Saila indartzeko aukerak aztertzea eta baliabideak jartzea.
- Emakumeon* Etxearen proiektua indartzea eta zabaltzea.
- Berdintasun foroaren inguruko gogoeta egitea.
- Emakume zaurgarrienen errealitateak ezagutu, beren egoera konkretuei erantzuteko beharrezko irtenbideak aztertu, baliabideak eskaini eta haien arteko sareak sustatzea; intersekzionalitatea kontuan izanda.
- Hezkidetzaren alorrean egiten den lana indartzea eta koordinatzea.
- Erantzunkidetasunean eta zaintzaren garrantzian sakontzea.
- Indarkeria matxistaren prebentzioan eta arretan sakontzea, erakundeen arteko koordinazioan lan eginez.
- Udalak berdintasunean egiten duen lana herritar orori irisgarri egiteko bidean lanean jarraitzea.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 6. PRINTZIPIO-GIDARIAK

Planaren garapenean zehar aintzat hartuko ditugun eta gure lanaren oinarri izango diren printzipioak dira jarraian jaso ditugunak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak berdintasunaren printzipioa eta euskal botere publikoen jarduna arautu behar duten printzipio orokorrak jasotzen ditu. Zumaiako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak horietako batzuetan sakontzea proposatzen du, proposatutako esku-hartzeak gidatzeko estrategikoak direlako, eta beste batzuk gehitzen ditu. Jarraian, Zumaiako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren printzipio gidariak deskribatzen dira, hurrengo urteetan egingo dugun lanean beti gogoan izan beharko ditugunak eta, beraz, zeharlerrotasunez lantzen joango garenak.




- **Paradigma feminista**: Feminismoak gidatzen du Berdintasunerako IV. Plana, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio anitzak barne. Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko-politiko honetan. Agenda feminista aintzat hartzean datza.
- **Aukera- berdintasuna**: Emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu beharko da. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta, bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan. Gobernantza-ereduak bermatu beharko lukeen printzipioa da.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

- **Intersekzionalitatea:** Desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoa beste diskriminazio faktoreekin (arraza, klase soziala, desgaitasun maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak) duen aldibereko erlazioa. Estrategia gisa ulertuta, diskriminazioaren oinarriak lotzen ditu diskriminazio horiek elikatzen dituen gizarte, ekonomia, politika eta lege-inguruarekin eta presio eta pribilegio bizipenak egituratzen dituenarekin.

- **Genero-ikuspegia**: Analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkarrean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonek eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.

- **Emakumeen ahalduntzea**: Planaren ardatzetako bat izateaz gain, agenda osoa gidatzen duen printzipioa ere bada, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua den heinean. Eta modu integralean hartu behar da aintzat, ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.

- **Desberdintasunak murriztea**: Printzipio hau aukera-berdintasunaren eskutik badoa ere, gizarteko esparru eta sektore guztietan generoagatik edo bestelako zapalkuntzengatik eratortzen diren desberdintasunak aintzat hartu eta horiek murrizteko politika aktiboak inplementatzea ekarriko du.

- **Giza garapen iraunkorra**. Agenda 2030: Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultza ditzan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu gizarte, ekonomia eta ingurumen politiketan.

- **Politika gardena** izatea eta herritarrei kontuak ematea, esku-hartze publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 7. PLANA GARATU AHAL IZATEKO EZINBESTEKO BERMEAK

Plana aurrera atera ahal izateko ezinbesteko gutxieneko batzuk egongo dira, Udalak bete beharko dituenak, Plana behar bezala garatzeko baldintzak bermatze aldera.

Hauek dira, Zumaiako Udalak Berdintasunerako IV. Plana behar bezala aurrera eraman ahal izateko ezinbestean bete beharko dituen bermeak. Berme hauen betetze-maila zenbait adierazleren bitartez neurtuko dugu Planak irauten duen epealdian, alegia, konpromiso neurgarriak izango dira eta hauen betetze-mailak zerikusi zuzena izango du Planaren arrakastarekin.

| BERMEAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **KONPROMISOA**<br>Berdintasun politikak aurrera eramateko **konpromiso politikoa**; berdintasunak Udalaren agenda-politikoan lekua izatea, alegia. Honekin batera etorriko litzateke zeharlerrotasun-estrategia garatzeko baldintzak bermatzea eta bitartekoak jartzea. | • Udalbatzan genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu izana: Bai/ez<br>• Onartutako konpromisoaren forma eta babesa: zer eratako konpromisoa hartu da (adierazpena...) eta zenbateko babesa izan duen (ahobatezkoa, aldeko/kontrako botoak)<br>• Estrategia garatzeko koordinazio-egiturak edo koordinatzeko bideak martxan jarri izana, horien izaera (zer eratako egiturak jarri diren martxan) eta partaideak (kopurua, sailak, pertsonak sexuaren arabera) |
| **BALIABIDEAK**<br>Beharrezko baliabideak jartzea berdintasun politikak aurrera eraman ahal izateko: aurrekontua, giza baliabideak eta baliabide teknikoak. | • Berdintasun politikak garatzeko urtekako aurrekontua kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den.<br>• Aurrekontua zer % igo den aurreko urtearekiko.<br>• Berdintasun politikak garatzeko baliatutako bitartekoak.<br>• Bitartekoen nolakotasuna: kontratazio berririk egin bada zein baldintzatan.<br>• Pertsonen kasuan lan-baldintzekiko asebetetze-maila. |
| **ERANTZUNKIDETASUNA**<br>Udalak eta hau osatzen duten sailek eta zerbitzuek erantzunkidetasuna izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzunkidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea dakar. | • Sailen arteko lankidetza/elkarlanaren bidez garatutako ekimen kopurua (urteka, inplikatutako sailak).<br>• Bi (edo hiru) urterik behin erantzukidetasun-maila neurtzeko inkesta.<br>• Inkestan jasotako emaitzen garapenaa litzateke adierazlea. |

| | |
|---|---|
| **PARTE-HARTZEA**<br>Herriko eragileen, eta bereziki emakumeen, parte-hartze soziopolitikoa berdintasun politiketan, eta haien ahotsa entzutea, politiketan eragiteko gaitasuna emanez. | • Abian jarritako partaidetza prozesu kopurua.<br>• Prozesuetan parte hartu duten emakume kopurua eta parte-hartzaile guztiekiko %. |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 8. PLANAREN INDARRALDIA

Planaren indarraldia 2023an hasi eta 2026ra artekoa izango da, alegia, 4 urtekoa.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 9. ESKU-HARTZE ARDATZAK

Zumaiako Berdintasunerako IV. Planak, Emakunderen VII. Planaren eskemari jarraiki, lau lan-ildo nagusi ditu.




### Gobernu ona

Zumaiako udaleko antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzen jarraitzea du helburu ardatz honek, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin konpromisoa indartuz eta berdintasuna gobernagarritasun printzipio dela berretsiz.

Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, esku-hartze publikoaren eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, horiei erantzun egokia emanez eta ezberdintasunak murrizteko urratsak eginez.

Berdintasunaren aldeko gobernantza garatzeak ardura partekatua inplikatzen du, hain zuzen ere, berdintasuna bultzatzea Berdintasun sailaren ardura ez ezik, inplikatutako eragile eta sail guztien ardura bilakatzea. Beti ere, Berdintasun Sailaren eskutik eta horretarako, baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoekin hornitzea bermatuz.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin. Horrez gain, genero-ikuspegia administrazioaren jardunean integratzeko, Europako Kontseiluak “Genero zeharkakotasuna. Kontzeptu nagusiak, metodologia eta erabilera egokien aurkezpena” txostena aurkeztu zuen Estrasburgon 1998an.

Horietan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako 4/2005 legeak neurri multzo bat arautzen du genero-ikuspegia euskal aginte eta herri-administrazioen jardunean integratzeko: plangintza egitea; estatistikak eta azterketak hobetzea; langileen gaikuntza; eta berdintasun-printzipioa administrazioaren araudian eta jardunean txertatzeko prozedura ezartzea.

Azken finean, Zumaiako Udalak gobernantzaren ardatzean berdintasunerako konpromiso politikoa eta teknikoa finkatu nahi du, genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, genero-ikuspegia botere publikoaren politika eta ekintza guztietan txertatzeko printzipioa gauzatu ahal izateko, politika horien diseinutik hasi eta ebaluaziora arte.

Gobernantza eredua egonkortzeko, sistematizazioa eta koordinaziorako eta elkarrekintzarako espazioak beharko dira. Esku-hartze integral horrek, Zumaiako Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

## Emakumeen ahalduntzea

Maila pertsonalean eta kolektiboan emakumeen autoestimua eta autonomia bultzatzea, maila sozial eta politikoetako erabaki-hartze eremutan aktiboki parte hartu dezaten.

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta beraien bizitzako subjektu aktibo bihurtuz.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman dira gure gizartean. Zumaiako Udalak aurrera eraman dituen hiru berdintasunerako planekin, lan-ildo honen oinarriak jarri dira. Gainera, salto kualitatibo nabarmena ekarri du Emakuneon* Etxearen proiektuak emakumeen ahalduntzearen erronkari erantzuteari dagokionez. Orain, emakumeen ahalduntzeari dagokionean, egindakoa egonkortu eta erronka berriei heltzeko doikuntzak egitea izango da erronka.

Zentzu honetan, IV. Planaren garapenean zehar egongo den erronka nagusia izango da Jabekuntza Eskolaren zein Emakumeon* Etxearen eskaintza eta irismena dibertsifikatzea, ahalik eta emakume gehienei iristeko helburuarekin, herriko emakumeen arteko sareak eta elkar ezagutza indartzearekin batera.

Intersekzionalitatea aintzat hartuz, Zumaiako herriaren aniztasuna aintzat hartuta lan egiten jarraitzea hurrengo urteetan ere, profil ezberdinetako emakumeengana iristea ahalbidetuz. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

Boteretzearekin lotuta, garrantzia izango du emakumeek beraien ahotsak eta beharrak entzun ahal izateko parte-hartzeko bide eta espazioak eraikitzea. Era berean, gizonen desboteretzea eta maskulinitate berrien lanketan bide berriak irekitzeko aukerak aztertzen hasteko aukerak ireki dira Zumaiako herrian, bada, errealitate horri erantzuten hasteko aukerak aztertuko dira Zumaiako Udalean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira. Emakumeen ahalduntzearekin lotuta, hauek dira dagozkionak:



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

*b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*
*c) Toki-eremuan programak egitea.*
*h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.*

Horrez gain, legeak jasotzen du, baita ere, emakumeen parte-hartze soziopolitikoa bultzatzeko eta areagotzeko betebeharra ere baduela administrazio publikoak, bere esku dauden eremu guztietan.

Esku-hartze ardatz hau, Agenda 2030, gizarte-eredu jasangarriagoa izateko helburu estrategikoekin lerrokatuko da, izan ere, emakumeen ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizartean egin behar den eraldaketa sozialerako.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman badira ere, egindakoa finkatu eta egonkortzeko erronka izango dugu datozen urteetan.

## Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

Gizarte-eredua aldatzeko urratsak ematen hastea, balio berdinzaleak herritarren artean zabalduz eta errotu daitezen sustatuz; beti ere udaletik eredu emanez.

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Sistema bidegabe eta desorekatu honi erantzungo dion eraldaketa, gizarte aurrerakoi eta jasangarriago baten aldeko apustua izan beharko litzateke.

Lan-merkatuan argi islatzen da sexuaren araberako egiturazko desberdinkeria, horrenbestez, kontuan hartu behar da enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina ebaluatzeko unean. Arreta berezia jarriz, enplegua bilatzeari eta ekintzailetzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak aztertzeari, emakume kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz. Alegia, emakumeen behar berehalakoei eta dituzten epe ertain/luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko.

Horrez gain, zaintzaren garrantzian eta honen eskubide kolektiboan oinarritutako gizarte-antolaketa bultzatzea ere oinarrizkoa izango da. Izan ere, sexuaren araberako lan-bereizketaren ondorioz zaintza-lanak emakumeen gain geratzen dira sistematikoki, modu prekario eta aitortu gabean, gainera, eta horrek inpaktu handia du beren bizitzetako gainontzeko alderdietan ere. Honela bada, ezinbestekoa izango da gizarte bezala zaintzarekiko erantzunkidetasuna lantzea.

Zumaiako Udalak zaintza eta bizitza jasangarriak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatu nahi ditu, eta aldaketa horietan agente aktiboa izan nahi du. Helburu horrekin hausnarketa sustatuko du zaintza-eredua birpentsatzeko. Etxeetan, zein, etxeetatik



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduerak sozialki eta ekonomikoki aitortzea lehen urratsa izango da.

Bestalde, pandemiaren eta honen ondorengo eszenatokian, harremanak eta parte-hartzeko eta lankidetzarako bideak ezarri beharko dira emakume talde eta talde feministekin, beti ere, ikuspegi intersekzionala aintzat harturik.

Zentzu honetan, herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzea izango da, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat eraikitzen jarraitzeko bidea.

Modu zuzenenean eragiten digun legeari erreparatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira.

> *f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*
> *i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*
> *j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.*

Horrez gain, legearen xedeetako bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna legeetatik haratago errealitatera ekartzea da. Hori horrela, gizarte eraldaketa ezinbesteko urratsa izango da berdintasuna egikaritzerako orduan.

## Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larrienetako bat da. Emakumeen aurkako indarkeria, nagusitasun patriarkaleko botere-harreman desberdin eta hierarkikoen adierazpen bat da. Indarkeria matxista, mota guztietan (fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa edo zibernetikoa), oztopo bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Zentzu horretan, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko orain arteko esku-hartzeak finkatu eta sistematizatzeko bidean jarraituko du Zumaiako Udalak.
Istanbulgo Hitzarmenak ezartzen duen bezala: sexu-indarkeria, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, derrigorrezko ezkontzak eta bortxazko beste praktika batzuk edo askatasuna bidegabe kentzea, baita emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duten edo lesionatzen ahal duten beste indarkeria-mota batzuk ere, erreferentziako araudian aurreikusi bezala hartuko dira aintzat.

Zumaiako Udalaren lehentasuna izango da batetik, prebentziorako politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea, hala nola, erreparazioa eta oneratzea bermatzea, beti ere, emakumeak subjektu aktibo gisa kokatuz.

Zumaian arreta integrala bermatzeko, bide eman beharko zaie praktika eraldatzaile eta komunitarioak diseinatzeari eta ezartzeari.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 10. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK

Zumaiako Berdintasunerako IV. Planak 4 ardatz eta 11 helburu estrategiko barnebiltzen ditu. Hurrengo taulan Planaren ardatzak eta hauetako bakoitzarekin lotuta zehaztutako helburu estrategikoak eta operatiboak azaltzen dira, ikuspegi orokor bat izateko.

| GO. GOBERNU ONA | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** |
| **GO.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA** | GO1.1. Genero zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa esplizituki hartzea eta jakitera ematea.<br>GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoen esku jartzea<br>GO.1.3. Udalaren berdintasun-politikak eta sail bakoitzak berdintasunaren alde egiten den lana udaleko langile guztiengana iristea<br>GO.1.4. Berdintasun Foroa eta Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea indartzea<br>GO.1.5. Herritarrei begirako komunikazioa lantzea, egiten den lanak ikusgarritasuna izan dezan. |
| **GO.2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA** | GO.2.1. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egitea, ebaluazioa eta koordinazioa bermatzea<br>GO.2.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlaneko guneekin hartu-emana sustatzea |
| **GO.3. UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA** | GO.3.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.<br>GO.3.2. Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea. |
| **GO.4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU** | GO4.1. Udalak laneko kultura berdizaleago batean bidean urratsak ematea<br>GO.4.2. Udaleko inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexu/generoaren aldagaia txertatzea, alegia, datuak sexu/generoaren arabera bereizita jasotzea eta genero-ikuspegitik aztertzea.<br>GO.4.3. Udal- komunikazioan berdintasuna txertatzea.<br>GO.4.4. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jarduereetan.<br>GO.4.5. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.<br>GO.4.6.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak) |

| | |
|---|---|
| | GO.4.7. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. |

| EA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** |
| **EA.1. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA** | EA1.1. Emakumeon* Etxea indartzea, dibertsifikatzea, ikuspegi intersekzionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea.<br>EA1.2. Jabekuntza Eskola dibertsifikatzea, ikuspegi intersekzionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea |
| **EA.2.EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA HANDITZEA** | EA.2.1. Herriko emakumeen arteko sareak sortu daitezen eta herrian parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea.<br>EA.2.2.Udal politika publikoetan emakumeek eragiteko bideetan sakontzea. |

| EGE. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** |
| **EGE1. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTAREN BIDEAN URRATSAK EMATEA** | EGAE.1.1. Zaintza-beharren eta zaintza-baliabideen inguruko azterketa egitea eta zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea<br>EGAE.1.2. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa justuagoak sustatzea, gizonak zuzenean interpelatuz<br>EGAE.1.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea<br>EGAE.1.4. Zaintzaile ez profesionalen bizi-baldintzak hobetzeko programak garatzea<br>EGAE.1.5. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea<br>EGAE.1.6. Udalak bere eskumenekoak diren zerbitzuen kontratazioan lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. |
| **EGAE2. BERDINTASUNA, GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BALIOA INDARTZEA** | EGAE 2.1. Berdintasuna balio sozial gisa aitortzea, eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren beharraz sentsibilizatzea.<br>EGAE 2.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen bizi baldintzak hobetzea<br>EGAE 2.3. Herriko hezkuntza-eragileekin batera hezkidetzan sakontzea.<br>EGAE 2.4.Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| **EGAE3. UDAL BALIABIDE ETA ZERBITZUAK GARATU ETA EGOKITZEA** | EGAE 3.1.Gizarte Zerbitzuen egitura eta balioetan kultura berdinzalea sustatzea. |

| **IM. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK** | |
|---|---|
| **HELBURU ESTRATEGIKOAK** | **HELBURU OPERATIBOAK** |
| **IM1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA** | IM 1.1. Indarkeria matxistaren prebentziorako bitartekoak eta kanpainak bideratzea.<br>IM 1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea<br>IM 1.3. Haur eta gazteen artean indarkeria matxistaren inguruko kontzientziazioa sustatzea<br>IM 1.4. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea |
| **IM2.INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA INTEGRALA BERMATZEA** | IM 2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa…) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegi batetik<br>IM 2.2. Ahalduntze prozesu kolektiboak bideratzea<br>IM 2.3. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea<br>IM 2.4. Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 11. EKINTZA-PLANA

Jarraian, Zumaiako Berdintasunerako IV. Plana garatzeko proposatutako neurriak jaso ditugu, bai eta zer urtetan burutzea aurreikusten ditugun, arduradunak nortzuk izango diren eta neurrien jarraipena egiteko adierazleak ere definitu ditugu.

Helburuak lortzeko proposatutako neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate; hau da, neurri batzuek urtez urtekako garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik. Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira.

Ekintza-plana Exceleko tresna batean jaso dugu, lanerako tresna erabilgarria izan dadin eta ez zerbait estankoa. Modu honetara, urtez urteko segimendua egitea erraztuko digu tresnak, baita urteko kudeaketa-plana modu sinple batean eskuratzea ere.

## GOBERNU ONA

### GO1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA

| HELBURU OPERATIBOAK | EKINTZAK | KRONOGRAMA 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | ARDURADUNA (K) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO1.1. Genero zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa esplizituki hartzea eta jakitera ematea. | GO 1.1.1 Berdintasunerako udal-ordenantza lantzeko aukera aztertzea eta, hala erabakiz gero, lantzea eta Udalbatzan onartzea. | | x | | x | Berdintasun teknikaria<br>Idazkaritza |
| GO1.2. Beharrezko baliabideak berdintasun politika publikoen esku jartzea | GO 1.2.1. Berdintasun Sailaren funtzionamendu egokirako dauden beharrak aztertzea, eta horiei aurre egiteko baliabideak (pertsonalak, ekonomikoak…) ezartzea. | x | | | | Ordezkari politikoak<br>Pertsonal saila |
| | GO 1.2.2. Emakumeon* Etxearek proiektua indartu eta bere garapen egokirako beharrezkoak diren baliabideak ezartzea. | x | x | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |
| GO.1.3. Udalaren berdintasun-politikak eta sail bakoitzak berdintasunaren alde egiten den lana udaleko langile guztiengana iristea | GO 3.1.1. Urtero Planaren betetze-mailaren eta aurreikusitako ekintzen berri eman langile guztiei sailetako bileretan. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.1.4. Berdintasun Foroa eta Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea indartzea | GO 1.4.1. Berdintasun Foroaren eta Emakumeon* Etxearen Talde Eragilearen funtzioak definitzeko eta bi egiturak era egonkor eta iraunkor batean mantentzeko beharrezko neurriak hartu. | x | x | | | Berdintasun teknikaria<br>Berdintasun Foroa<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun zinegotzia |
| GO.1.5. Herritarrei begirako komunikazioa lantzea, egiten den lanak ikusgarritasuna izan dezan. | GO 1.5.1. Planaren berri emateko komunikazio bide ezberdinak aztertu, profil anitzetako herritarrak kontuan hartuz, eta zabalkundea egitea. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Komunikazio arduraduna<br>Sailen arteko koordinazio gunea |

| GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| GO2.1. Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egitea, ebaluazioa eta koordinazioa bermatzea | GO 2.1.1. Sailen arteko antolaketa bileretan Planaren jarraipen eta garapena egin eta berdintasun-politikek beren tokia dutela bermatu. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| | GO 2.1.2. Urtero Berdintasunerako Planari lotutako kudeaketa-plana prestatu eta sail bakoitzarekin landu bera inplikatzen duten ekintzak saileko kudeaketa-planean txertatu ditzaten. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sail bakoitzeko arduraduna |
| | GO 2.1.3. Urteroko kudeaketa-planei eta Planaren betetze-mailari etengabeko segimendua egin, beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak aplikatuz. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| | GO 2.1.4. Urte amaieran Planaren garapenaren inguruko memoria bat egin, urte osoan egindako lana jasotzen duena. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GO 2.1.5. Sailetako arduradun bakoitzak urtero bere arloko lankideei Berdintasunerako Planaren markoan aurrera eraman beharreko ekintzen berri ematea, berdintasun politiken zeharlerroko izaera azpimarratuz, guztiek Berdintasunerako Planaren berri izan dezaten. | x | x | x | x | Sailetako arduradunak |
| | GO 2.1.6. Urtero Berdintasun Planari lotutako aurrekontua modu xehetuan aurkeztu. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Kontu-hartzailea<br>Ordezkari politikoak |
| | GO 2.1.7. Mahai Politikoarekin gutxienez legegintzaldi hasieran bilera bat egitea, Planaren baitan egitea aurreikusten diren lanketak aurkezteko eta egindako lanaren berri emateko. | x | x | x | x | Ordezkari politikoak<br>Berdintasun teknikaria |
| GO2.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlaneko guneekin hartu-emana sustatzea | GO 2.2.1.Udalaz gaindiko koordinazio-guneetan nahiz ekimenetan (Beldur Barik, Hezkidetza Foroa, genero-mainstreaminerako lantaldea, Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea…) parte hartzen jarraitzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikasten jarraitzeko. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria |

## GO3. UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

<table>
<tr><th rowspan="2">HELBURU OPERATIBOAK</th><th rowspan="2">EKINTZAK</th><th colspan="4">KRONOGRAMA</th><th rowspan="2">ARDURADUNA (K)</th></tr>
<tr><th>2023</th><th>2024</th><th>2025</th><th>2026</th></tr>
<tr><td rowspan="3">GO3.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.</td><td>GO 3.1.1. Udal-sail bakoitzeko teknikari eta langileek berdintasunarekin lotuta egun dituzten trebakuntza-behar espezifikoak identifikatzea, eta emaitzak kontuan hartuta, sail bakoitzaren behar espezifikoetara egokitutako eskaintza egitea.</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>Berdintasun teknikaria<br>Pertsonal saila<br>Sailen arteko koordinazio gunea</td></tr>
<tr><td>GO 3.1.2. Landuko diren gaien araberako trebakuntza zehatzagoak: berdintasuneko klausulak (eta klausula sozialak), Genero Eraginaren araberako Aurretiazko Ebaluazioa, genero-ikuspegidun aurrekontuak... sail guztientzako.</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>Berdintasun teknikaria<br>Pertsonal saila<br>Sailen arteko koordinazio gunea</td></tr>
<tr><td>GO 3.1.3. Udalaz gaindiko erakundeetatik eskaintzen den formazioaren gaineko hedapen periodikoa (orokorra eta pertsonalizatua)</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>x</td><td>Berdintasun teknikaria<br>Pertsonal saila</td></tr>
</table>



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO3.2. Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea. | GO 3.2.1. Ordezkari politikoak berdintasun-gaietan trebatzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea agintaldi bakoitzean. | x | | | | Berdintasun teknikaria |
| | GO 3.2.2. Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko. | x | | | | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |

| GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| GO4.1. Udalak laneko kultura berdizaleago batean bidean urratsak ematea | GO 4.1.1. Erakundearen kulturaren inguruko genero-azterketa egitea Udalean, besteak beste, Udaleko langileen arteko harremanak genero-ikuspegitik aztertzeko eta emaitzak aintzat hartuta, hobekuntza-neurriak martxan jartzeko. | x | | x | | Berdintasun teknikaria<br>Pertsonal saila<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| | GO 4.1.2. Udal-kontratazioetan, segregazio | | x | x | x | Berdintasun teknikaria |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | horizontala ematen den lanbideetan ordezkaritza orekatzeko ekimenak garatzea. | | | | | Pertsonal saila<br>Ordezkari politikoak |
| GO.4.2. Udaleko inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexu/generoaren aldagaia txertatzea, alegia, datuak sexu/generoaren arabera bereizita jasotzea eta genero-ikuspegitik aztertzea. | GO 4.2.1. Datu-bilketak sexu/generoaren arabera egin ahal izateko sistemak egokitu: datu-bilketak egiteko sistemetan sexu/genero-aldagaia jasota ez dutenak identifikatu; sexu/genero-aldagaia txertatzeko teknikoki dauden aukerak/oztopoak aztertu, eta nola bideratuko den erabaki sailekin elkarlanean. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea<br>Administrariak<br>Informatikaria |
| | GO 4.2.2. Biltzen diren datuak progresiboki genero-ikuspegitik aztertzea. Gradualki dokumentu edota inprimaki zehatz batzuetan adierazleak identifikatzea, egokitzea eta horien eboluzioaren azterketa egitea. | x | x | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |
| GO.4.3. Udal- komunikazioan berdintasuna txertatzea. | GO 4.3.1.. Udal- komunikazio berdinzalerako eta integratzailerako irizpideak landu, adostu eta aplikatu. jarraipen eta ebaluazioa eginez. | | | x | x | Komunikazio arduraduna<br>Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GO 4.3.2. Landutako irizpideen berri eman udaleko sail eta langile guztiek irizpide bateratuak erabili ditzaten. | x | x | x | x | Berdintasun teknikaria |
| GO.4.4. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jardueretan. | GO 4.4.1. Sailekin elkarlanean identifikatu datozen urteetarako aurreikusi dituzten egitasmo estrategikoak eta genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsuak direnak identifikatu prozesua elkarlanean egiteko. | x | x | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea |
| | GO 4.4.2. Sektoreka egiten diren diagnostikoetan emakumeen eta gizonen egoerak eta baldintzak aztertu ahal izateko adierazle zehatzak ezartzea. | | x | x | | Berdintasun teknikaria |
| | GO 4.4.3. Sail bakoitzean egitasmoen ebaluaziorako adierazle zehatzak definitzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta. | | | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |
| | GO 4.4.4. Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea: Sariketa eta hautaketa-epaimahaietan, ekimenen dinamizazioan, aurkezpenetan, ekitaldi publikoetan, taularatzeetan, kale ekintzetan... | x | x | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.4.5. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea. | GO 4.5.1. Klasula sozialak oro har, eta zehazki berdintasun klausula-tipoak non txertatzen diren aztertea eta hutsunea dagoenetan hauek aplikatzeko aukerak aztertzea eta klasula-tipoak zehaztea. | | x | x | | Berdintasun teknikaria<br>Idazkaritza |
| | GO 4.5.2. Klasula sozialak oro har, eta zehazki berdintasun-klausulak txertatzeko prozedura eta klausula-motak udal-langile guztien artean zabaldu eta lantzea. | | | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Idazkaritza |
| | GO 4.5.3. Klasula sozialak oro har, eta zehazki berdintasun-klausulen jarraipena egitea. | | | x | x | Berdintasun teknikaria |
| GO.4.6.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak) | GO 4.6.1. Udaleko ordenantza/araudi eta administrazio-ekintzetan egiten diren Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak identifikatu, ordenatu eta jarraipena egitea. | | x | x | x | Idazkaritza |
| | GO 4.6.2. Egitasmo pilotuetatik ikasitakoa kontuan hartuta, GEAEak egiteko prozedura landu eta dagokion lekuetan onartu (behebehar gisa ezarri Udalean) | | | x | x | Idazkaritza |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Berdintasun teknikaria |
| | GO 4.6.3. GEAEak modu sistematikoan eta orokorrean egiten hasi. | | | x | x | Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO.4.7. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. | GO 4.7.1. Udaleko sail zehatz baten aurrekontua aztertu eta genero-ikuspegia nola txertatuko den adostu. | | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea<br>Kontu-hartzailea |
| | GO 4.7.2. Aukeraturiko sailaren udal-aurekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko adostutako bidea aplikatu eta ebaluatu, beharrezkoa balitz neurri zuzentzaileak aplikatuz. | | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea<br>Kontu-hartzailea |

| EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **EA1. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA** | | | |
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | **ARDURADUNA (K)** |

| | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA1.1. Emakumeon* Etxea indartzea, dibertsifikatzea, ikuspegi intersekzionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea. | EA 1.1.1. Emakumeon* Etxearen Talde Eragilean parte-hartzen duten emakumeen profila aztertu eta, intersekzionalitatea aintzat hartuta, emakume kolektibo ezberdinetara espazioa zabaldu. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| | EA 1.1.2. Eskaintzen diren zerbitzuetan erabiltzaileen datu bilketa, jarraipena eta ebaluazioa egin. | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| EA1.2. Jabekuntza Eskola dibertsifikatzea, ikuspegi intersekzionala aintzat hartuta, eta honen irismena handitzea | EA 1.2.1. Jabekuntza Eskolako eskaintzaren aniztasuna sustatu, eduki zein ordutegi edota iraupen aldetik. | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu: talde egonkorrak sortu, berariazko zapalkuntzak lantzeko saioak antolatu, gizartekintzarekin elkarlanean profil hauetako emakumeak* ikastaroetara gerturatu daitezen sustatu... | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.3. Neska* eta emakume* nerabe eta gazteak ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu | | | x | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EA 1.2.4. Landa eremuko emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu | X | x | | | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.5. Tramite eta kudeaketa digitalak errazteko ahalduntze digitalerako ekimenak sustatzea, arrakala digitalari aurre egiteko. | X | x | | | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.6. Parte hartzen duten emakumeen* profilen segimendua egin eta bilakaerarik ematen den aztertu; hala ez balitz neurri zuzentzaileak proposatu. | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.7. Urtero, Jabekuntza Eskolan parte hartzen duten emakumeekin* balorazio-saio bat egin, ikasturtearen balorazioa egin eta hurrengo ikasturterako proposamenak jasotzeko; bide batez, beraien arteko sareak sortzeko baliatuz. | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.8. Jabekuntza Eskolaren komunikazioa berariaz landu, gaur egun iristen ez den foroetara iritsi dadin: jada existitzen diren komunikazio bideak baliatu, berariazko komunikazio-bideak sortu, zabalkunderako | X | x | x | x | Komunikazio arduraduna<br><br>Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | aliantzak bilatu… | | | | | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| | EA 1.2.9. Beste Jabekuntza Eskolen berri izateko saio edota jardunaldiak antolatu: aukera ezberdinak ezagutu, horietan parte hartzen duten emakumeak* ezagutu, saretzeko aukerak, balorazio fitxen bidez beste herrietako praktika desberdinak gurera ekarri... | | x | | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria<br><br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| | EA 1.2.10. Gizonen des-boteretzea eta maskulinitate eredu anitzen lanketa egiteko ekimenak antolatu. | | x | | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br><br>Berdintasun teknikaria |

| EA2.EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA HANDITZEA | | | |
|---|---|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | **ARDURADUNA (K)** |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA.2.1. Herriko emakumeen arteko sareak sortu daitezen eta herrian parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea | EA 2.1.1. Berdintasun Foroa bateraberpiztu eta indartzeko berariazko lanketa egin, funtzioak berdefinitu, herriko emakume eta eragile feministekin batera: aukera ezberdinak aztertu eta beharrezko prozesu edo ekintzak martxan jarri | x | X | | | Berdintasun Foroa |
| | EA 2.1.2. Emakumeo* Etxea erabiltzeko aukerak herriko emakume elkarte ezberdinei zabaldu. | x | X | x | x | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br><br>Berdintasun teknikaria |
| EA.2.2.Udal politika publikoetan emakumeek eragiteko bideetan sakontzea | EA 2.2.1. Herriko eragile eta elkarteetan antolaturik dauden pertsonen datuak jaso, sexuaren arabera bereizita, eta behar izan ezkero emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurriak hartu. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br><br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| | EA 2.2.2. Udaleko Foro ezberdinetan parte-hartzen duten pertsonen datuak jaso, sexuaren arabera bereizita, eta Batzordeetan parte-hartzea handitzeko kanpaina martxan jartzea. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br><br>Sailen arteko koordinazio gunea |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **EGE1. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTAREN BIDEAN URRATSAK EMATEA** | | | | | | |
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| EGAE.1.1. Zaintza-beharren eta zaintza-baliabideen inguruko azterketa egitea eta zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea | EGAE 1.1.1. Zaintza beharren eta zaintza-baliabideen inguruan Malen etxea, Mugimendu Feminista eta Emakumeon* Etxeak elkarlanean egindako udalerri mailako azterketa haintzat hartuta beharrezko neurriak adostu eta ezarri. | x | X | | | Berdintasun Foroa |
| | EGAE 1.2.1. Gizarte Zerbitzuetatik adineko emakumeek bizi duten errealitatearen inguruan egingo den diagnostikoaren prozesuan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko Berdintasun Foroaren partaidetza bermatzea, prozesuaren hasieratik bukaerara. | x | X | | | Berdintasun Foroa |
| | EGAE 1.1.3. Egindako azterketen ondorioetatik abiatuta, zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko formula berritzaile eta eraldatzaileak pentsatzea. | | | x | x | Berdintasun Foroa |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGAE 1.1.4. Zehaztutako egitasmo berritzaileak garatu, jarraipena eman eta ebaluatu. | | | x | x | Berdintasun Foroa |
| EGAE.1.2. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa justuagoak sustatzea, gizonak zuzenean interpelatuz | EGAE 1.2.1. Zumaiako emakumeen eta gizonen denboraren erabileraren inguruko azterketa egin, eta ondorioak gizarteratu. | | X | | | Berdintasun teknikaria<br>Berdintasun Foroa |
| | EGAE 1.2.2. Zaintzaren azterketan oinarrituta, gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu. | | X | | | Berdintasun teknikaria<br>Berdintasun Foroa |
| EGAE.1.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea | EGAE 1.3.1. Diagnostikoan oinarrituta, zuzenean edo zeharka zaintza lanetan eragina duten zerbitzuen eta laguntzen gaineko moldaketak egin, herriko zaintza beharretara egokitu daitezen. | | | x | x | Berdintasun Foroa |
| | EGAE 1.3.2. Azterketen emaitzak kontuan hartuta, ekimen berritzaileak pentsatu eta garatu, zaintza beharrei eremu publiko eta komunitariotik erantzuteko, genero-rolak irauliz. | | | x | x | Berdintasun Foroa |
| EGAE.1.4. Zaintzaile ez profesionalen bizi-baldintzak hobetzeko programak garatzea | EGAE 1.4.1. Zainketarako eta autozainketarako espazioak sustatzea, familiako zaintzaileentzat eta zaintzaile informalentzako atseden programak erabiltzera, laguntza psikologikoa, prestakuntza eta elkarrekiko laguntza, etab. | | | | | Berdintasun Foroa<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGAE 1.4.2. Erantzunkidetasunaren eta feminismotik egiten diren hausnarketen inguruko edukiak indartzea Eguneko Zentroetako eta Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen familiei zuzendutako jarduеretan, zaintza-lanen banaketa ekitatiboagoa sustatzeko. | | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |
| EGAE.1.5. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea | EGAE 1.5.1. Etxeko lanak eta zainketak balioan jarri eta aitortzeko udal kanpainak sustatzea, lanbidearteko gutxieneko soldata ezin dela izan Zumaiako zainketen balioa aintzat hartuz eta arreta berezia jarriz emakume migratzaileen egoerari. | | X | x | | Berdintasun Foroa |
| | EGAE 1.5.2. Udaletik zaintzaile profesionalen lan eskubideak bermatuko dituen gizarte ekimeneko egitasmoak sustatzea, bideratzea eta laguntzea. | | | x | x | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 1.5.3. Zaintza-lanak profesionalizatzeko prestakuntza ikastaroak, Lanbide Heziketako zentroetan eskaintzeko Udalak bitartekaritza egiten jarraitzea, eta lortu ezean eskariari erantzuteko moduko alternatibak eskaintzea. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 1.5.4. Mankomunitateko Zaintza Mahaian parte-hartu, Berdintasun Foroarekin elkarlana sustatuz. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGAE. 1.5.5. Zaintzetako ziurtagiri profesionaletarako prestakuntza ikastaroak antolatu, mankomunitatearekin eta ondoko udalekin koordinatuak. | | X | | x | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 1.5.6. Interna figura errotik kentzeko sentsibilizazio-kanpainak eta -ekintzak garatzea, hausnarketa feminista sustatuz zaintzaileen elkarteetatik eta mugimendu feministatik. | | X | x | | Berdintasun Foroa |
| EGAE.1.6. Udalak bere eskumenekoak diren zerbitzuen kontratazioan lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. | EGAE 1.6.1. Etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurriak ezartzea. | x | X | | | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |

| EGAE2. BERDINTASUNA, GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BALIOA INDARTZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| EGAE 2.1. Berdintasuna balio sozial gisa aitortzea, eta herritarrak nahiz herriko eragileak berdintasunaren | EGAE 2.1.1. Data esanguratsuen bueltan (martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28, azaroak 25…) eta urte osoan zehar berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa lantzeko ekimenak antolatu. | x | X | x | x | Berdintasun Foroa |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| beharraz sentsibilizatzea. | EGAE 2.1.2. Herriko gizonezkoekin lanketa espezifikoak egin, feminismoaren eta bestelako maskulinitate-ereduak eraikitzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. | x | X | x | x | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| | EGAE 2.1.3. Herriko elkarteetako ordezkariak (kultur elkarteak, kirol-elkarte eta -klubak, eskola-kiroleko begirale eta entrenatzaileak…) berdintasunean formatzeko trebakuntza espezifikoak antolatu. | | X | x | | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 2.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen bizi baldintzak hobetzea | EGAE 2.2.1. Landa eremuan bizi diren emakumeen datuen jasoketa eta azterketa egin. | x | X | | | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 2.2.2. Landa eremuan emakumeen egiten duten lana ikusgarri egin eta aitortzea; emakumeen esperientzia eta jakintzak jasoaz, bizipen pertsonaletatik lanketa egitea. | | | x | x | Berdintasun Foroa |
| | EGAE 2.2.3. Landa eremuaren biziraupena bermatzeko eta generazio berriak lehen sektorean lan egitera bultzatzeko beharrezko neurriak sustatu. | x | X | x | x | Mankomunitateko Ekonomia Garapena<br>Berdintasun Foroa |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGAE 2.2.4. Emakume migratuak Zumaian integratzeko eta euste-sareak eraikitzeko aukerak aztertu eta estrategia ezberdinak martxan jarri, besteak beste, harrera-etxea, aisialdirako gunea, familiaren laguntza | | X | x | | Berdintasun teknikaria<br>Malen Etxea |
| | EGAE 2.2.5. Zumaiako kulturaniztasuna balioan jarri eta elkarbizitza sustatzeko esperientzia eta neurriak martxan jarri. | | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Malen Etxea |
| EGAE 2.3. Herriko hezkuntza-eragileekin batera hezkidetzan sakontzea. | EGAE 2.3.1. Ikastetxeetako hezkidetza-programak indartzeko aukera aztertu eta, posible bada, aurreikusitako baliabideak areagotu (ordu-kopurua, Lanbide Heziketan ere lantzea…). | x | X | | | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.2. Ikastetxeetarako unitate didaktiko bat sortu eta banatu, berdintasun, kulturartekotasun eta intersekzionalitatearen balioak landu eta Zumaiako emakume erreferenteak landuz. | | X | x | | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.3. Hezkidetza-programek hezkuntza-komunitateko eragileengan duten inpaktua aztertu, eta balizko hobekuntza-neurriak martxan jarri. | | | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGAE 2.3.4. Hezkuntza-komunitatea (familia, irakasleak, gazteak, langileak…) hezkidetza, berdintasun, kulturartekotasun eta intersekzionalitatearen agente aktibo bilakatzeko baldintzak sortu, sentsibilizazio eta ekimen ezberdinak bultzatuz. | | X | x | | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.5. Hezkuntza formalean zein informalean lanean ari diren eragileen (Eihera, DAITEKE, Gatetxola, Aholkusex)... koordinaziorako egiturak sortzeko aukerak aztertu eta herri mailan egiten den lanketa bateratu. | x | X | | | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.6. Eskualdeko Hezkidetza Mahaian parte-hartzen jarraitu, eta Zumaiako Hezkuntza Mahaia sortzeko baldintzak aztertu. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.7. Bereziki gazteei eragiten dieten gai jakinen inguruko ekimenak antolatu (sare sozialen erabilera, gorrotozko diskurtsoak…) eta, beharrezkoa ikusten bada, lanketa espezifikoak egin neska eta mutilekin (genero-rol eta -estereotipoak, autodefentsa feminista…). | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.8. Gazteentzako sexu-aholkularitza zerbitzuaren eskaintza egonkortu eta indartu. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Hezkuntza saila |
| | EGAE 2.3.9. Hezkuntza ez formalean lanean diharduten hezitzaileen trebakuntza, beren beharretara egokituta, urtero eskaini. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Hezkuntza saila |
| EGAE 2.4.Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea | EGAE 2.4.1. Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen (migratzaileak, aniztasun funtzionala dutenak, alargunak…) bizi-baldintzen inguruko azterketa egitea, eta euren egoera ekonomikoa hobetzera bideratutako neurriak hartzea. | | | x | x | Berdintasun zinegotzia<br>Berdintasun Foroa |
| | EGAE 2.4.2. Mankomunitatearekin batera, Zumaian lan-eskaintza aukerak aztertu eta sustatzea, ordezkaritza txikia duten edo zabaltzen ari diren sektoreetan emakumeen jarduera-tasa handitzeko. | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 2.4.3. Emakumeen jarduera ekintzaileen mapaketa egitea eta tokiko ekitaldietan, azoketan eta abarretan emakumeen ikusgarritasuna sustatzea. | | | x | x | Berdintasun teknikaria |

| EGAE3. UDAL BALIABIDE ETA ZERBITZUAK GARATU ETA EGOKITZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURU OPERATIBOAK | EKINTZAK | KRONOGRAMA | | | | ARDURADUNA (K) |
| | | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EGAE 3.1.Gizarte Zerbitzuen egitura eta balioetan kultura berdinzalea sustatzea. | EGAE 3.1.1. Gizarte Zerbitzuetako langileei, ikuspegi intersekzional batetik, berdintasunean trebakuntza eskaini | x | | x | | Berdintasun teknikaria |
| | EGAE 3.1.2. Gizarte Zerbitzuen, osasun zentroa, Malen Etxearen eta herriko beste hainbat eragileren arteko koordinazio egiturak sortu eta sistematizatu | x | X | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Malen Etxea<br>Osasun zentroa<br>Gizarte Zerbitzuak |

| INDARKERIA MATXISTA GABEKO BIZITZAK | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **IM1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA** | | | | | | |
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| IM 1.1. Indarkeria matxistaren prebentziorako bitartekoak eta kanpainak bideratzea. | IM 1.1.1. Indarkeria matxistaren detekzioan sakontzeko sentsibilizazio programak garatu | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Gazteria saila |
| | IM 1.1.2. Jaietan eman daitezkeen eraso sexisten prebentzioa, mugimendu feministarekin, tabernekin eta jai batzordeekin elkarlanean | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Berdintasun Foroa<br>Tabernak |
| | IM 1.1.3. Beharrezkoak diren bitartekoak sortu eta hedatu | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |
| IM 1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea | IM 1.2.1. Zumaiako herritarrei, oro har, bideratutako informazio-kanpainak abian jartzea, horretarako beste herri batzuetako ereduak baliatuz. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria |
| | IM 1.2.2. Atzerriko eta adineko emakumeengana eta oro har, iristeko zailtasunak ditugun emakume kolektiboengana hurbiltzeko mekanismoak martxan jarri | X | x | x | x | Berdintasun Foroa |
| | IM 1.2.3. Hizkuntzaren kudeaketan lanketa berezia egin emakume kolektibo jakinekin lanketa eta ekimenak bideratzerako orduan | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Euskara teknikaria |
| IM 1.3. Haur eta gazteen artean indarkeria | IM 1.3.1. Eskoletan aurrera eramaten diren prebentzio programen inguruan hausnarketa egin, hezkuntza- | X | x | | | Berdintasun teknikaria |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| matxistaren inguruko kontzientziazioa sustatzea | komunitate osoa (ikasle, irakasle eta familiak) aintzat hartuta, eta hurrengo urteetarako estrategia markatu eskolekin batera lanketa modu integralean egiteko: lanketen hartzaileak definitu, landu beharreko gai gakoak... | | | | | Hezkuntza saila<br>Hezkuntza-komunitatea |
| | IM 1.3.2. Gazte programetatik indarkeria matxistaren prebentzioa lantzen jarraitzea, data puntualen testuinguruan zein egunerokoan modu jarraituan eta zeharka. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gazteria saila |
| | IM 1.3.3. Gazteentzako aisialdiarekin lotutako ekimenak antolatu, berariaz indarkeria matxistaren prebentzioa eta nesken ahalduntzea lantzen dutenak. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gazteria saila |
| IM 1.4. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa erakustea | IM 1.4.1. Azaroaren 25a eta maiatzaren 17a bezalako datetan sentsibilizazio kanpainak antolatzea ekimen ezberdinen bidez herritarren sentsibilizazioa areagotzeko mugimendu feministarekin elkarlanean. | X | x | x | x | Berdintasun Foroa |
| | IM 1.4.2. Bizitza bizigarrien alde egiteko ekimenak sortu Berdintasun Foroa eta mugimendu feministarekin batera, horretarako egin aldarrikatzaileak baliatuz (Martxoak 8, azaroak 25, maiatzak 17, ekainak 28…) | X | x | x | x | Berdintasun Foroa |

| IM2.INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA INTEGRALA BERMATZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELBURU OPERATIBOAK** | **EKINTZAK** | **KRONOGRAMA** | | | | **ARDURADUNA (K)** |
| | | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | |
| IM 2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa…) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegi batetik | IM 2.1.1. Artatze-prozesuan esku-hartzen duten langile guztiei formakuntza eskaini indarkeria matxista kasuen aurrean artapen egokia egin dezaten, bai eta haur eta gazteekin lan egiten dutenei ere. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Protokoloaren eragileak<br>Gazteria saila<br>Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Gizarte Zerbitzuak |
| | IM 2.1.2. Herriak edota eskualdeak eskaintzen eta bideratzen dituen zerbitzuei izaera integrala eskaintzeko gogoeta sustatzea | | x | x | x | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |
| | IM 2.1.3. Indarkeria jasan duten emakumeek eskura dituzten baliabideen asebetetzea neurtu | | x | x | x | Berdintasun teknikaria |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | (juridikoak, ekonomikoak, osasun-arlokoak), eta beharrezkoa balitz hauek osatzeko bitartekoak ezarri. | | | | | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Gizarte Zerbitzuak |
| | IM 2.1.4. Erreparazio sozial-publikorako ekimenak diseinatzea eta garatzea, emakumeekin elkarlanean. | X | x | x | x | Berdintasun Foroa<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| IM 2.2. Ahalduntze prozesu kolektiboak bideratzea | IM 2.2.1. Emakumeek lideratutako oneratzera bideratutako espazio kolektiboa sortu Jabekuntza Eskolaren bitartez. | X | x | x | x | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| IM 2.3. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea | IM 2.3.1. Instituzioen arteko koordinaziorako Protokoloaren ebaluazioa sistematizatu | X | x | x | x | Gizarte Zerbitzuak<br>Osasun etxea<br>Berdintasun teknikaria |
| | IM 2.3.2. Jarraipen mahaiko eragileen arteko | X | x | x | x | Gizarte Zerbitzuak |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | koordinazio-mekanismoak sistematizatu | | | | | Osasun zentroa<br>Berdintasun teknikaria |
| | IM 2.3.3. Jarraipen mahaian, emakumeen informazioa biltzeko erabiltzen den datu basea osatzen eta aberastea. | | x | x | x | Gizarte Zerbitzuak<br>Osasun zentroa<br>Berdintasun teknikaria |
| IM 2.4. Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea | IM 2.4.1. Protokoloak herriko eragile anitzekin lantzea, mugimendu feminista barne. Herri mailako sare sendo bat sortzeko helburuarekin. | X | x | | | Berdintasun Foroa<br>Herriko eragileak<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| | IM 2.4.2. Erantzun instituzional bateraturako protokoloaren jarraipena egitea. | X | x | x | x | Berdintasun teknikaria |
| | IM 2.4.3. Jai batzordearekin batera jaietako protokoloa kontrastatu, adostu eta martxan jartzeko lanketa egiten jarraitzea, udaleko sail | | x | x | | Sailen arteko koordinazio gunea |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ezberdinen inplikazioarekin. | | | | | Jai Batzordea |
| | IM 2.4.4. Udalak jaien testuinguruan beste zerbitzu batzuk martxan jarri behar dituen aztertu, udaleko sail ezberdinen eta jai batzordearen inplikazioarekin: jaietako babes eta informazio puntua, larrialdi telefonoa… Mugimendu feministarekin elkarlanean. | X | x | | | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Jai Batzordea |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 12. PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

Jarraian Planaren garapena ahalbidetuko duen kudeaketa-sistemaren alderdi ezberdinak deskribatuko ditugu:

### Garapen eta kudeaketarako egiturak

Zumaiako Berdintasunerako VI. Planaren garapen egokia bermatzeko, beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko ditu Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrei jarraituz*: "Euskal herri-aginteek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen".*

Gainera, Zumaiako Berdintasunerako IV. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute Berdintasunerako Plana: bai neurrien kudeaketa ekonomikoetan eta gauzapenean islatu den konpromiso formal gisa, baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso gisa ere. Konpromiso horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan... parte-hartzeko prozesuan izango du isla.

Zeharkakotasuna eta arlo guztien inplikazioa ezinbestekoak izango dira Plana aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, Berdintasun teknikariaren lana eta inplikazioa ez ezik, beste alorretako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu eta lana modu transbertsalean egitea askoz eraginkorragoa izango da benetako inpaktua lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Lau dira garapenerako proposatzen ditugun **egitura nagusiak**:

1. **Herritarren partaidetza, etorkinak, berdintasuna eta gaztedia Saila**
2. **Mahai teknikoa**
3. **Berdintasun Foroa**
4. **Emakumeon* Etxea**

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

Planaren garapenaren ardura nagusia **Berdintasun teknikariak** izango du. Hau izango da planaren sustapenerako arduraduna eta jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutzearen ardura izango duena, nahiz eta beste sailek ere parte hartu, eta abar.

Aipatu behar da, Berdintasun teknikariak 150 ordu baino gehiagoko formakuntza duela eta Emakume eta Gizonen Berdintasunareko gaineko Masterra (EHU) egina duela.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Berdintasun teknikariaren lanpostua plantila organikoan eta lan zerrendaren barruan dago, lanaldi osoa du, baina %50ean, Berdintasun politikak garatzeko.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 1. HERRITARREN PARTAIDETZA, ETORKINAK, BERDINTASUNA ETA GAZTERIA SAILA

Berdintasunerako IV. Planaren sustapen, garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

### Parte-hartzaileak

- Berdintasunerako arduradun politikoa.
- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikatutako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.

### Funtzionamendua

- Gune hau etengabeko koordinazioan egongo da eta behar beste bilera egingo ditu.

**Sailen arteko lana eta zeharlerroko estrategia bermatzeko ardura** izan duen gune nagusia. Jada beste funtzio batzuk betetzen dituen gunea da, aspaldidanik indarrean dagoena Zumaiako Udalean. Estrategia eraginkor gisa erabaki dugu egitura berri bat sortu beharrean asterokotasunez funtzionatzen duen Mahai teknikoa izango dela Planaren zeharlerrotasuna bermatzeko jarraipen eta koordinaziorako egitura. Bertan sail guztien lanaren inguruko jarraipena egiten da, berdintasuna barne. Orain arte Planaren garapena egitura honetatik bideratu da eta oso balorazio ona egin dugu, bada, egitura honen funtzioetan jarraian zehazten ditugun egitekoak txertatu dira:

## 2. Mahai teknikoa

Berdintasunerako IV. Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

### Parte-hartzaileak

- Udal-sailetako arduradunak.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udalean genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Sailetako langileei genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten laguntza eskaintzea, izan ditzaketen zalantzei edo kezkei erantzuna emanez.
- Berdintasunerako Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena egitea; egindako jarduerei, erabilitako bitartekoei eta baliabideen jarraipenari buruzkoa, Berdintasunerako IV. Planean aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko.
- Ekintza puntual batzuk koordinatzea, beharrezkoa den kasuetan.

### Funtzionamendua

- Astero biltzen da gune hau, hala ere, beharrezkoa izango balitz berariazko bilerak egingo ditu Berdintasunerako Planaren segimendua egiteko.
- Horrez gain, ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta bilera horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira beharrezkoa balitz.

Udaleko teknikari guztiek foro honetan parte hartzen ez dutela jakinik eta zeharlerroko estrategia garatu eta Plana benetan udal-jardueran integratzeko beraien parte hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoak direla jakinik, IV. Planaren garapen urteetan zehar **arlo-buru bakoitzak urtero bere arloko lankideei Berdintasunerako Planaren markoan aurrera eraman beharreko ekintzen berri eman eta gaia lantzeko konpromisoa** hartuko dute; modu honetara Plana udalaren jardunean ondo integratu ahal izateko.

## 3. Berdintasun Foroa
Herriko eragile feminista eta emakume elkarteen parte-hartzerako markoa

### Parte-hartzaileak

Hauek izan daitezke Berdintasunerako Zumaiako Foroaren eskubide osoko kide: Kontseiluan parte hartzen duen edozein pertsona, elkarte, erakunde edo fundazio, beti ere, berdintasuna bultzatzeko ekintzen garapena bilatzen badute, emakumeen eskubideen defentsa eta ikuspuntutik begiratuta.

- Mugimendu Feminista



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

- Malen Etxea
- Landa eremuko emakumeak
- Emakumeon* Etxearen koordinatzailea
- Herritarrak
- Berdintasunaren arduradun politikoa
- Berdintasun teknikaria

## Funtzioak

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Udaleko politikak gidatu eta aholkulari-lanak egin.
- Aukera berdintasunerako udal jarduera-planak bultzatzea eta berauen jarraipena egitea. Halaber, Udaleko berdintasun planaren printzipioak betetzen ote diren ikuskatzea.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko neurriak sustatzea eta formulak proposatzea programak, ekintzak eta eskaintza bereziak planteatzeko instantzia ezberdinetan, bereziki, udal mailan.
- Sentsibilizazio eta informazioa kanpainak egitea aukera berdintasuneko emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.
- Emakume guztiek udalaren gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.
- Emakumea sustatzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetza eta kooperazioa bultzatzea.
- Foroaren eskumenak aintzat harturik, agindu diezaiokeen bestelako funtzioren bat.

## Funtzionamendua

- Berdintasunerako Foroaren funtzioak honela beteko dira: txostenak, irizpenak, proposamenak eta eskariak eginez udaleko gobernu organoei.
- Foroaren maiztasuna urteroko erronka nagusien baitako beharren arabera izango da.

## Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Berdintasun Sailak urtero izango du aurrekontu propioa, eta aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, Zumaiako Udalak urtero kudeaketa plana aurrera eraman ahal izateko beste baliabide zuzenduko ditu Berdintasun



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Sailera, edota Planeko ekintzak garatzeaz arduratuko diren beste sailetara; izan ere, gainontzeko sailek ere Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

## Planaren ebaluazio-sistema

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Planaren **betetze-maila zein den** eta martxan jarritako **ekimenek zer inpaktu izan duten jakiteko**. Zentzu horretan, hiru ebaluazio-mota burutuko ditu Zumaiako Udalak: betetze-mailari dagokiona, emaitzei dagokiena eta inpaktuari dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo helburuak lortu ahal izango ditugu:

- Zumaiako Berdintasunerako IV. Plana aplikatzeak eman dituen emaitzak ezagutzea.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Berdintasun-politikak erraztu edo lagundu dituzten faktoreak identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko inpaktua edota eragina zein den ezagutzea.

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua**: Planak Udal barruan eta udalerrian izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.
- **Eraginkortasuna**: Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura**: Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea**: ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea**: Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

### 12.3.1.Inpaktu adierazleak

Berdintasun Plana izatea eta hau garatzea garrantzitsua da, baina betetze-maila bezain garrantzitsua (edo garrantzitsuagoa) da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen eragina neurtzea. Horretarako, aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.
Hona hemen inpaktu-adierazleen zerrenda. Hauei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak.

| HELBURU ESTRATEJIKOAK | INPAKTU-ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **GOBERNU ONA** | |
| **GO1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA** | Berdintasun politikak garatzeko Udalaren urtekako aurrekontu kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den |
| | Berdintasun sailaren funtzionamendua hobetzeko hartu diren neurri kopurua |
| | Berdintasun Foroa egonkortu da: Bai/Ez |
| **GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA** | Kudeaketa-planaren segimenduari ekarpena egin dioten sail-kopurua |
| | Sail bakoitzak era autonomoan Planari loturik garatu duen ekintza kopurua |
| | Berdintasun teknikariak udalaz gaindi parte hartzen duen foro-kopurua. |
| **GO3. UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA** | Udalean berdintasunaren alorrean egindako trebakuntza-kopurua. |
| | Udalean berdintasunaren alorrean trebakuntza jaso duten pertsona-kopurua, generoaren eta sailaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | Berdintasuneko trebakuntza jaso duten udal-ordezkari kopurua, generoaren arabera bereizita. |
| | Jarduera eremu zehatzetan eskaini den trebakuntza kopurua (zein jarduera eremuri eta zein trebakuntza mota eskaini den) eta parte-hartu duten pertsonen kopurua sexua eta sailaren arabera |
| **GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU** | Sexu/genero-aldagaia txertatu den datu-bilketak egiteko sistemetan kopurua |
| | Adierazle berriak sartu diren dokumentu edota inprimaki kopurua eta adierazlearen deskribapena |
| | Genero-ikuspegia txertatzeko identifikatutako proiektu kopurua eta saila |

| | |
|---|---|
| | Adostu diren berdintasun-klausula kopurua eta hauek aplikatu diren kontratu, diru-laguntza edota plegu kopurua eta sail-mota |
| | Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa bermatzeko irizpideak zabaldu dira: Bai/Ez |
| | Kontratuetan berdintasun-klausulak aplikatzeko irizpideak aplikatu dituzten sail-kopurua. |
| | Hasieratik genero-ikuspegia txertatu duten egitasmo-kopurua eta lanketa hau egin duten sail-kopurua. |
| | Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioa egiteko prozesura adostu da: Bai/Ez eta aplikatu den prozesu kopurua |
| | Genero-ikuspegiz landu diren aurrekontu kopurua eta mota |
| | Parte-hartze prozesuetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren arabera bereizita. |
| **EMAKUMEEN AHALDUNTZEA** | |
| **EA1. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA ETA SOZIOPOLITIKOA** | Jabekuntza Eskolan parte hartzen duten emakume*-kopurua, profilaren arabera. |
| | Jabekuntza Eskolaren balorazio-saioan parte hartu duten emakume*-kopurua, profilaren arabera, eta egiten duten balorazioa. |
| | Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko hartu diren berariazko neurri kopurua |
| | Jabekuntza Eskolako ikastaroei esker sortu diren talde egonkor kopurua. |
| **EA2.EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA HANDITZEA** | Berdintasun Foroak egindako bilera kopurua eta parte-hartu duten emakume kopurua eta ezaugarriak |
| | Udaleko Foro ezberdinetan parte-hartzen duten pertsona kopurua sexu/genero arabera |
| | Emakumeon* Etxearen Talde Eragileak egindako bilera kopurua, parte-hartu duten emakume kopurua eta ezaugarriak |
| **EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA** | |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| **EGE1. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTAREN BIDEAN URRATSAK EMATEA** | Gizarte Zerbitzuetatik adineko emakumeen errealitateak ezagutzeko egin den diagnostikoaren harira elkarlanean egin diren bilera kopurua |
| | Zaintza behar ezberdinei aurre egiteko hartu diren neurri kopurua eta ezaugarriak |
| | Espazio publikoak inklusiboagoak izan daitezen egindako lanketa eta esku-hartze kopurua. |
| | Mankomunitate mailako Zaintza Mahaiarekin izandako bilera kopurua |
| | Zaintzetako ziurtagiri profesionaletarako prestakuntza ikastaroan parte-hartutako pertsona kopurua sexuaren arabera bereizita |
| | Etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurri kopurua |
| **EGAE2. BERDINTASUNA, GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BALIOA INDARTZEA** | Herriko elkarteetako ordezkariak berdintasunean formatzeko antolatu diren trebakuntza kopuruak eta parte-hartzeileen datuak sexuaren arabera bereizita |
| | Landa-eremuan lan egiten duten emakumeen esperientziak ikusgarri egin eta balioan jartzeko egin diren ekintza kopurua eta parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita |
| | Zumaian emakume migratuen euste-sareak josteko egindako ekimen kopurua eta parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita |
| | Hezkuntza formalean zein informalean lanean ari diren eragileen koordinaziorako egiturak sortu dira: Bai/Ez; sortu ezkero, egindako bilera kopurua eta parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita |
| | Hezkuntza ez formalean lanean ari den hezitzailei eskainitako trebakuntza kopurua eta parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita |
| **EGAE3. UDAL BALIABIDE ETA ZERBITZUAK GARATU ETA EGOKITZEA** | Gizarte Zerbitzuetako langileei eskainitako trebakuntza kopurua eta parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita. |
| | Gizarte Zerbitzuen, osasun etxeen, Malen Etxearen eta herriko beste hainbat eragileren arteko koordinazio egitura sortu eta sistematizatu da: Bai/Ez |

## INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

| | |
|---|---|
| **IM1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA** | Atzerriko eta adineko emakumeengana hurbiltzeko martxan jarri diren mekanismo kopurua |
| | Eskoletako prebentzio programen inguruko hausnarnetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoa eta eragilearen arabera bereizita. |
| | Gazteentzat indarkeria matxistaren prebentziorako eta nesken ahalduntzerako antolatutako ekintzetan parte hartu duten gazte-kopurua, generoaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| **IM2.INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA INTEGRALA BERMATZEA** | Erakunde arteko koordinazio mahaiak egin dituen bilera-kopurua eta hauetan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta eragilearen arabera. |
| | Indarkeria matxistarekin lotuta berdintasun arloa, udaltzaingoa eta gizarte zerbitzuen arteko koordinaziorako egindako bilera-kopurua. |
| | Jai batzordearekin protokoloa lantzeko bileretan parte hartu duten pertsona-kopurua, generoaren eta eragilearen arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeentzako* antolatutako talde-jarduera kopurua, jardueretara gonbidatutako emakume*-kopurua eta horietan parte hartu duten emakume*-kopurua. |

### 12.3.2.Urteko kudeaketa planak

Zumaiako Berdintasunerako IV. Plana garatzeko urteko kudeaketa-planak prestatuko ditu Udalak urtero, Planaren garapena errazte aldera.

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat prestatuko da, aintzat hartu beharreko helburu eta neurri konkretuak zehaztu ahal izateko. Programazio horiek Berdintasun Sailak landuko ditu, eta eragindako gainerako udal-sailekin kontrastatu eta landuko ditu. Planean ekintza bakoitza zer urtetan burutu behar den zehaztuta dago; hala ere, urtekako planek jarraipena erraztuko dute eta momentuko beharretara egokitzea ahalbidetu. Kudeaketa plan hau, gainera, sail bakoitzera egokituko da. Hau da, Exceleko tresnak aukera ematen du ekintza bakoitzaren arduraduna nor den edo nortzuk diren filtratzeko eta, beraz, sail bakoitzari berari urte horretan dagozkion ekintzak bakarrik emateko.

- Urte bakoitzaren hasieran, Herritarren partaidetza, etorkinak, berdintasuna eta gaztedia Sailak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion memoria idatziko du; horretarako, udal-sailek emandako informazioa erabiliko du.

- Urtez urteko memoria-txostenak Planaren jarraipenerako guneetan aurkeztuko dira.

### 12.3.3.Planaren segimendua

Zumaiako Berdintasunerako IV. Planari segimendua egin ahal izateko, Elhuyarrek Excel tresna bat sortu du, Berdintasun teknikariari segimendu hau era erraz batean egitea ahalbidetzeko.

Excel dokumentua hiru orrialde edo ataletan banatuta dago: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Plana bera osotasunean eta inpaktu-adierazleei dagokiena.

Lehenengo atalak Planaren argazki orokorra zein den ikusten lagunduko digu, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolakoa den ikusten.




Bigarren atalean Planaren zehaztasunak ikusi ahal izango ditugu. Ekintza guztiak zehaztasunez, bakoitza zein urtetan garatu behar den, arduraduna zein den eta abar. Gainera, atal honek ekintzen betetze-mailaren segimendua egin eta urtez urte zer egin den eta zer ez



jasotzeko aukera ere ematen du. Honela, urtez urte ekintzen betetze-maila zein den eta honen inguruko oharrak jasotzen joango gara, segimendu estua egitea ahalbidetuz.

**Inpaktu adierazleen segimendua** hirugarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburuekin lotzen diren inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu (aurrez aurkeztutakoak), egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.



| HELBURU-ESTRATEGIKOEN INPAKTU-ADIERAZLEEN TAULA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LAN-ILDOAK | HELBURU ESTRATEJIKOAK | INPAKTU-ADIERAZLEAK | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 |
| GOBERNU ONA | GO1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA | Berdintasun politikak garatzeko Udalaren urtekako aurrekontu kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den | | | | |
| | | Berdintasun sailaren funtzionamendua hobetzeko hartu diren neurri kopurua | | | | |
| | | Berdintasun Foroa egonkortu da: Bai/Ez | | | | |
| | GO2. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOORDINAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA | Kudeaketa-planaren segimenduari ekarpena egin dioten sail-kopurua | | | | |
| | | Sail bakoitzak era autonomoan Planari loturik garatu duen ekintza kopurua | | | | |
| | | Berdintasun teknikariak udalaz gaindi parte hartzen duen foro-kopurua. | | | | |
| | GO3. UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA | Udalean berdintasunaren alorrean egindako trebakuntza-kopurua. | | | | |
| | | Udalean berdintasunaren alorrean trebakuntza jaso duten pertsona-kopurua, generoaren eta sailaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. | | | | |
| | | Berdintasuneko trebakuntza jaso duten udal-ordezkari kopurua, generoaren arabera bereizita. | | | | |
| | | Jarduera eremu zehatzetan eskaini den trebakuntza kopurua (zein jarduera eremuri eta zein trebakuntza mota eskaini den) eta parte-hartu duten pertsonen kopurua sexua eta sailaren arabera | | | | |
| | GO4. UDAL-POLITIKETAN ETA LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU | Sexu/genero-aldagaia txertatu den datu-bilketak egiteko sistemetan kopurua | | | | |
| | | Adierazle berriak sartu diren dokumentu edota inprimaki kopurua eta adierazlearen deskribapena | | | | |
| | | Genero-ikuspegia txertatzeko identifikatutako proiektu kopurua eta saila | | | | |
| | | Adostu diren berdintasun-klausula kopurua eta hauek aplikatu diren kontratu, diru-laguntza edota plegu kopurua eta sail-mota | | | | |
| | | Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa bermatzeko irizpideak zabaldu dira: Bai/Ez | | | | |
| | | Kontratuetan berdintasun-klausulak aplikatzeko irizpideak aplikatu dituzten sail-kopurua. | | | | |
| | | Hasieratik genero-ikuspegia txertatu duten egitasmo-kopurua eta lanketa hau egin duten sail-kopurua. | | | | |

**Tresna elikatzeaz Berdintasun teknikaria arduratuko da nagusiki**; hala ere, aproposena litzateke arlo-buru bakoitzak dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea.

Informazio hau guztia, aurrez aipatutako memoria-txostenak elikatzeko baliatu daiteke.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 13. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei Udalaren asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko ere. Gainera, planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren analisia egiteko prozesuan zehar identifikatu den ahulguneetako bat da hain justu komunikazioa, herritarrei ez baitzaie iristen Udaletik egiten den lanaren berri.

Hori dela eta, hurrengo urteetan Berdintasunerako Planari lotutako komunikazioan sakontzea zein berdintasun politikei lotutako komunikazioa nola egin, oro har, lantzea da erronketako bat. Horretarako urtero, urte hasieran, kudeaketa-planean aurreikusitako ekintzak zeintzuk diren eta horiek aurrera eramateko dauden komunikazio une garrantzitsuak identifikatuko dira, eta baita hauek nola komunikatuko diren adostu ere.

Planaren garapenean 3 komunikazio-une garrantzitsu egongo dira:

### 1. Hasierako komunikazioa:

Behin Berdintasunerako IV. Plana onartuta, horren berri emango da bai Udal barruan baita herrian ere:

- Udal-langile guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten langileei:
  - Aurkezpen saioak egingo dira, udal-langileei zein Erakunde Autonomoetako langileei ere. Horrez gain, arlo-buruek gaia landuko dute urte hasieran kudeaketa-plana lantzean arlo bakoitzari dagozkion ekintzekin.
  - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- Ordezkari politiko guztiei:
  - Ordezkari politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- Herritarrei:
  - Hedabideen bidez prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Plana Udaleko webgunean txertatuko da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.
  - Prozesuan parte hartu duten pertsonei dokumentazioa emailez bidaliko diegu.
  - Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun Sailera jotzeko aukera izango du.

### 2. Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan

- Udal-mailan:
  - Udal-mailan dauden segimendurako egituren bidez emango zaie langileei Planaren garapenaren berri; horretarako aurrez aipatutako espazioak erabiliko dira.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

- Herri-mailan: Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - Udaleko webgunean Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - Herriko emakume eta eragileekin sortutako foro ezberdinetan (hala nola, Jabetze Eskolako erabiltzaileekin egingo diren urteroko balorazioetan) Planaren berri emango da eta ahal den heinean honen segimendua egiteko espazioak ahalbidetu, herritarrek interesa balute behintzat.

### 3. Planaren amaierako komunikazioa

Berdintasunerako IV. Plana osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Udal barruan zein herri-mailan. Hau zehazki nola egingo den Planaren indarraldia amaitzean erabakiko da, momentu horretan abiatutako prozesuaren arabera eta horrekin modu koherentean.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## Eranskina: 2023ko kudeaketa plana

Jarraian, Planaren diseinua aintzat hartuta, 2023an garatzeko ekintzak jaso ditugu:

| EKINTZAK | ARDURADUNA(K) |
|---|---|
| GO 1.2.1. Berdintasun Sailaren funtzionamendu egokirako dauden beharrak aztertzea, eta horiei aurre egiteko baliabideak (pertsonalak, ekonomikoak…) ezartzea. | Ordezkari politikoak<br>Pertsonal saila |
| GO 1.2.2. Emakumeon* Etxearek proiektua indartu eta bere garapen egokirako beharrezkoak diren baliabideak ezartzea. | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |
| GO 3.1.1. Urtero Planaren betetze-mailaren eta aurreikusitako ekintzen berri eman langile guztiei sailetako bileretan. | Berdintasun teknikaria |
| GO 1.4.1. Berdintasun Foroaren eta Emakumeon* Etxearen Talde Eragilearen funtzioak definitzeko eta bi egiturak era egonkor eta iraunkor batean mantentzeko beharrezko neurriak hartu. | Berdintasun teknikaria<br>Berdintasun Foroa<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun zinegotzia |
| GO 1.5.1. Planaren berri emateko komunikazio bide ezberdinak aztertu, profil anitzetako herritarrak kontuan hartuz, eta zabalkundea egitea. | Berdintasun teknikaria<br>Komunikazio arduraduna<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 2.1.1. Sailen arteko antolaketa bileretan Planaren jarraipen eta garapena egin eta berdintasun-politikek beren tokia dutela bermatu. | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 2.1.2. Urtero Berdintasunerako Planari lotutako kudeaketa-plana prestatu eta sail bakoitzarekin landu bera inplikatzen duten ekintzak saileko kudeaketa-planean txertatu ditzaten. | Berdintasun teknikaria<br>Sail bakoitzeko arduraduna |
| GO 2.1.3. Urteroko kudeaketa-planei eta Planaren betetze-mailari etengabeko segimendua egin, beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak aplikatuz. | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 2.1.4. Urte amaieran Planaren garapenaren inguruko memoria bat egin, urte osoan egindako lana jasotzen duena. | Berdintasun teknikaria |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| GO 2.1.5. Sailetako arduradun bakoitzak urtero bere arloko lankideei Berdintasunerako Planaren markoan aurrera eraman beharreko ekintzen berri ematea, berdintasun politiken zeharlerroko izaera azpimarratuz, guztiek Berdintasunerako Planaren berri izan dezaten. | Sailetako arduradunak |
| GO 2.1.6. Urtero Berdintasun Planari lotutako aurrekontua modu xehetuan aurkeztu. | Berdintasun teknikaria |
| | Kontu-hartzailea |
| | Ordezkari politikoak |
| GO 2.1.7. Mahai Politikoarekin gutxienez legegintzaldi hasieran bilera bat egitea, Planaren baitan egitea aurreikusten diren lanketak aurkezteko eta egindako lanaren berri emateko. | Ordezkari politikoak |
| | Berdintasun teknikaria |
| GO 2.2.1.Udalaz gaindiko koordinazio-guneetan nahiz ekimenetan (Beldur Barik, Hezkidetza Foroa, genero-mainstreaminerako lantaldea, Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea…) parte hartzen jarraitzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikasten jarraitzeko. | Berdintasun teknikaria |
| GO 3.1.1. Udal-sail bakoitzeko teknikari eta langileek berdintasunarekin lotuta egun dituzten trebakuntza-behar espezifikoak identifikatzea, eta emaitzak kontuan hartuta, sail bakoitzaren behar espezifikoetara egokitutako eskaintza egitea. | Berdintasun teknikaria |
| | Pertsonal saila |
| | Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 3.1.2. Landuko diren gaien araberako trebakuntza zehatzagoak: berdintasuneko klausulak (eta klausula sozialak), Genero Eraginaren araberako Aurretiazko Ebaluazioa, genero-ikuspegidun aurrekontuak... sail guztientzako. | Berdintasun teknikaria |
| | Pertsonal saila |
| | Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 3.1.3. Udalaz gaindiko erakundeetatik eskaintzen den formazioaren gaineko hedapen periodikoa (orokorra eta pertsonalizatua) | Berdintasun teknikaria |
| | Pertsonal saila |
| GO 3.2.1. Ordezkari politikoak berdintasun-gaietan trebatzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea agintaldi bakoitzean. | Berdintasun teknikaria |
| GO 3.2.2. Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko. | Sailen arteko koordinazio gunea |
| | Berdintasun teknikaria |
| GO 4.1.1. Erakundearen kulturaren inguruko genero-azterketa egitea Udalean, besteak beste, Udaleko langileen arteko harremanak genero-ikuspegitik aztertzeko eta emaitzak aintzat hartuta, hobekuntza-neurriak martxan jartzeko. | Berdintasun teknikaria |
| | Pertsonal saila |
| | Sailen arteko koordinazio gunea |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| GO 4.2.1. Datu-bilketak sexu/generoaren arabera egin ahal izateko sistemak egokitu: datu-bilketak egiteko sistemetan sexu/genero-aldagaia jasota ez dutenak identifikatu; sexu/genero-aldagaia txertatzeko teknikoki dauden aukerak/oztopoak aztertu, eta nola bideratuko den erabaki sailekin elkarlanean. | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea<br>Administrariak<br>Informatikaria |
| GO 4.2.2. Biltzen diren datuak progresiboki genero-ikuspegitik aztertzea. Gradualki dokumentu edota inprimaki zehatz batzuetan adierazleak identifikatzea, egokitzea eta horien eboluzioaren azterketa egitea. | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Berdintasun teknikaria |
| GO 4.3.2. Landutako irizpideen berri eman udaleko sail eta langile guztiek irizpide bateratuak erabili ditzaten. | Berdintasun teknikaria |
| GO 4.4.1. Sailekin elkarlanean identifikatu datozen urteetarako aurreikusi dituzten egitasmo estrategikoak eta genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsuak direnak identifikatu prozesua elkarlanean egiteko. | Sailen arteko koordinazio gunea |
| GO 4.4.4. Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea: Sariketa eta hautaketa-epaimahaietan, ekimenen dinamizazioan, aurkezpenetan, ekitaldi publikoetan, taularatzeetan, kale ekintzetan... | Sailen arteko koordinazio gunea |
| EA 1.1.1. Emakumeon* Etxearen Talde Eragilean parte-hartzen duten emakumeen profila aztertu eta, intersekzionalitatea aintzat hartuta, emakume kolektibo ezberdinetara espazioa zabaldu. | Berdintasun teknikaria<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| EA 1.1.2. Eskaintzen diren zerbitzuetan erabiltzaileen datu bilketa, jarraipena eta ebaluazioa egin. | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| EA 1.2.1. Jabekuntza Eskolako eskaintzaren aniztasuna sustatu, eduki zein ordutegi edota iraupen aldetik. | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikar |
| EA 1.2.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu: talde egonkorrak sortu, berariazko zapalkuntzak lantzeko saioak antolatu, gizartekintzarekin elkarlanean profil hauetako emakumeak* ikastaroetara gerturatu daitezen sustatu... | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.1.1. Emakumeon* Etxearen Talde Eragilean parte-hartzen duten emakumeen profila aztertu eta, intersekzionalitatea aintzat hartuta, emakume kolektibo ezberdinetara espazioa zabaldu. | Berdintasun teknikaria<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| EA 1.1.2. Eskaintzen diren zerbitzuetan erabiltzaileen datu bilketa, jarraipena eta ebaluazioa egin. | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| EA 1.2.1. Jabekuntza Eskolako eskaintzaren aniztasuna sustatu, eduki zein ordutegi edota iraupen aldetik. | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikar |
| EA 1.2.2. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu: talde egonkorrak sortu, berariazko zapalkuntzak lantzeko saioak antolatu, gizartekintzarekin elkarlanean profil hauetako emakumeak* ikastaroetara gerturatu daitezen sustatu... | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.2.4. Landa eremuko emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko neurriak hartu | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.2.5. Tramite eta kudeaketa digitalak errazteko ahalduntze digitalerako ekimenak sustatzea, arrakala digitalari aurre egiteko. | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.2.6. Parte hartzen duten emakumeen* profilen segimendua egin eta bilakaerarik ematen den aztertu; hala ez balitz neurri zuzentzaileak proposatu. | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.2.7. Urtero, Jabekuntza Eskolan parte hartzen duten emakumeekin* balorazio-saio bat egin, ikasturtearen balorazioa egin eta hurrengo ikasturterako proposamenak jasotzeko; bide batez, beraien arteko sareak sortzeko baliatuz. | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 1.2.8. Jabekuntza Eskolaren komunikazioa berariaz landu, gaur egun iristen ez den foroetara iritsi dadin: jada existitzen diren komunikazio bideak baliatu, berariazko komunikazio-bideak sortu, zabalkunderako aliantzak bilatu… | Komunikazio arduraduna<br>Berdintasun teknikaria<br><br>Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| EA 2.1.1. Berdintasun Foroa bateraberpiztu eta indartzeko berariazko lanketa egin, funtzioak berdefinitu, herriko emakume eta eragile feministekin batera: aukera ezberdinak aztertu eta beharrezko prozesu edo ekintzak martxan jarri | Berdintasun Foroa |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| EA 2.1.2. Emakumeo* Etxea erabiltzeko aukerak herriko emakume elkarte ezberdinei zabaldu. | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| EA 2.2.1. Herriko eragile eta elkarteetan antolaturik dauden pertsonen datuak jaso, sexuaren arabera bereizita, eta behar izan ezkero emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurriak hartu. | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| EA 2.2.2. Udaleko Foro ezberdinetan parte-hartzen duten pertsonen datuak jaso, sexuaren arabera bereizita, eta Batzordeetan parte-hartzea handitzeko kanpaina martxan jartzea. | Berdintasun teknikaria<br>Sailen arteko koordinazio gunea |
| EGAE 1.1.1. Zaintza beharren eta zaintza-baliabideen inguruan Malen etxea, Mugimendu Feminista eta Emakumeon* Etxeak elkarlanean egindako udalerri mailako azterketa haintzat hartuta beharrezko neurriak adostu eta ezarri. | Berdintasun Foroa |
| EGAE 1.2.1. Gizarte Zerbitzuetatik adineko emakumeek bizi duten errealitatearen inguruan egingo den diagnostikoaren prozesuan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko Berdintasun Foroaren partaidetza bermatzea, prozesuaren hasieratik bukaerara. | Berdintasun Foroa |
| EGAE 1.5.3. Zaintza-lanak profesionalizatzeko prestakuntza ikastaroak, Lanbide Heziketako zentroetan eskaintzeko Udalak bitartekaritza egiten jarraitzea, eta lortu ezean eskariari erantzuteko moduko alternatibak eskaintzea. | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 1.5.4. Mankomunitateko Zaintza Mahaian parte-hartu, Berdintasun Foroarekin elkarlana sustatuz. | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 1.6.1. Etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurriak ezartzea. | Berdintasun teknikaria<br>Gizarte Zerbitzuak |
| EGAE 2.1.1. Data esanguratsuen bueltan (martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28, azaroak 25…) eta urte osoan zehar berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa lantzeko ekimenak antolatu. | Berdintasun Foroa |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| EGAE 2.1.2. Herriko gizonezkoekin lanketa espezifikoak egin, feminismoaren eta bestelako maskulinitate-ereduak eraikitzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. | Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| EGAE 2.2.1. Landa eremuan bizi diren emakumeen datuen jasoketa eta azterketa egin. | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 2.2.3. Landa eremuaren biziraupena bermatzeko eta generazio berriak lehen sektorean lan egitera bultzatzeko beharrezko neurriak sustatu. | Mankomunitateko Ekonomia Garapena |
| | Berdintasun Foroa |
| EGAE 2.3.1. Ikastetxeetako hezkidetza-programak indartzeko aukera aztertu eta, posible bada, aurreikusitako baliabideak areagotu (ordu-kopurua, Lanbide Heziketan ere lantzea…). | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |
| EGAE 2.3.5. Hezkuntza formalean zein informalean lanean ari diren eragileen (Eihera, DAITEKE, Gatetxola, Aholkusex)... koordinaziorako egiturak sortzeko aukerak aztertu eta herri mailan egiten den lanketa bateratu. | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |
| EGAE 2.3.6. Eskualdeko Hezkidetza Mahaian parte-hartzen jarraitu, eta Zumaiako Hezkuntza Mahaia sortzeko baldintzak aztertu. | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |
| EGAE 2.3.7. Bereziki gazteei eragiten dieten gai jakinen inguruko ekimenak antolatu (sare sozialen erabilera, gorrotozko diskurtsoak…) eta, beharrezkoa ikusten bada, lanketa espezifikoak egin neska eta mutilekin (genero-rol eta -estereotipoak, autodefentsa feminista…). | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |
| EGAE 2.3.8. Gazteentzako sexu-aholkularitza zerbitzuaren eskaintza egonkortu eta indartu. | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |
| EGAE 2.3.9. Hezkuntza ez formalean lanean diharduten hezitzaileen trebakuntza, beren beharretara egokituta, urtero eskaini. | Berdintasun teknikaria |
| | Hezkuntza saila |

| | |
|---|---|
| EGAE 2.4.2. Mankomunitatearekin batera, Zumaian lan-eskaintza aukerak aztertu eta sustatzea, ordezkaritza txikia duten edo zabaltzen ari diren sektoreetan emakumeen jarduera-tasa handitzeko. | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 3.1.1. Gizarte Zerbitzuetako langileei, ikuspegi intersekzional batetik, berdintasunean trebakuntza eskaini | Berdintasun teknikaria |
| EGAE 3.1.2. Gizarte Zerbitzuen, osasun zentroen, Malen Etxearen eta herriko beste hainbat eragileren arteko koordinazio egiturak sortu eta sistematizatu | Malen Etxea |
| | Osasun zentroa |
| | Gizarte Zerbitzuak |
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.1.1. Indarkeria matxistaren detekzioan sakontzeko sentsibilizazio programak garatu | Gizarte Zerbitzuak |
| | Gazteria saila |
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.1.2. Jaietan eman daitezkeen eraso sexisten prebentzioa, mugimendu feministarekin, tabernekin eta jai batzordeekin elkarlanean | Berdintasun Foroa |
| | Tabernak |
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.1.3. Beharrezkoak diren bitartekoak sortu eta hedatu | Gizarte Zerbitzuak |
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.2.1. Zumaiako herritarrei, oro har, bideratutako informazio-kanpainak abian jartzea, horretarako beste herri batzuetako ereduak baliatuz. | Berdintasun Foroa |
| IM 1.2.2. Atzerriko eta adineko emakumeengana eta oro har, iristeko zailtasunak ditugun emakume kolektiboengana hurbiltzeko mekanismoak martxan jarri | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.2.3. Hizkuntzaren kudeaketan lanketa berezia egin emakume kolektibo jakinekin lanketa eta ekimenak bideratzerako orduan | Euskara teknikaria |
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.3.1. Eskoletan aurrera eramaten diren prebentzio programen inguruan hausnarketa egin, hezkuntza-komunitate osoa (ikasle, irakasle eta familiak) aintzat | Protokoloaren eragileak |
| | Hezkuntza-komunitatea |

| | |
|---|---|
| hartuta, eta hurrengo urteetarako estrategia markatu eskolekin batera lanketa modu integralean egiteko: lanketen hartzaileak definitu, landu beharreko gai gakoak... | Berdintasun teknikaria |
| IM 1.3.2. Gazte programetatik indarkeria matxistaren prebentzioa lantzen jarraitzea, data puntualen testuinguruan zein egunerokoan modu jarraituan eta zeharka. | Gazteria saila<br>Berdintasun teknikaria |
| IM 1.3.3. Gazteentzako aisialdiarekin lotutako ekimenak antolatu, berariaz indarkeria matxistaren prebentzioa eta nesken ahalduntzea lantzen dutenak. | Gazteria saila<br>Berdintasun Foroa |
| IM 1.4.1. Azaroaren 25a eta maiatzaren 17a bezalako datetan sentsibilizazio kanpainak antolatzea ekimen ezberdinen bidez herritarren sentsibilizazioa areagotzeko mugimendu feministarekin elkarlanean. | Berdintasun Foroa |
| IM 1.4.2. Bizitza bizigarrien alde egiteko ekimenak sortu Berdintasun Foroa eta mugimendu feministarekin batera, horretarako egin aldarrikatzaileak baliatuz (Martxoak 8, azaroak 25, maiatzak 17, ekainak 28…) | Berdintasun teknikaria |
| IM 2.1.1. Artatze-prozesuan esku-hartzen duten langile guztiei formakuntza eskaini indarkeria matxista kasuen aurrean artapen egokia egin dezaten, bai eta haur eta gazteekin lan egiten dutenei ere. | Hezkuntza saila<br>Gazteria saila<br>Emakumeon* Etxearen koordinatzailea<br>Gizarte Zerbitzuak |
| IM 2.1.4. Erreparazio sozial-publikorako ekimenak diseinatzea eta garatzea, emakumeekin elkarlanean. | Berdintasun Foroa<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea<br>Berdintasun teknikaria |
| IM 2.2.1. Emakumeek lideratutako oneratzera bideratutako espazio kolektiboa sortu Jabekuntza Eskolaren bitartez. | Emakumeon* Etxearen koordinatzailea |
| IM 2.3.1. Instituzioen arteko koordinaziorako Protokoloaren ebaluazioa sistematizatu | Gizarte Zerbitzuak<br>Osasun zentroa<br>Berdintasun teknikaria |
| IM 2.3.2. Jarraipen mahaiko eragileen arteko koordinazio-mekanismoak sistematizatu | Gizarte Zerbitzuak<br>Osasun etxea |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | |
|---|---|
| | Berdintasun teknikaria |
| IM 2.4.1. Protokoloak herriko eragile anitzekin lantzea, mugimendu feminista barne. Herri mailako sare sendo bat sortzeko helburuarekin. | Berdintasun Foroa<br>Herriko eragileak<br>Emakumeon* Etxearen Talde Eragilea |
| IM 2.4.2. Erantzun instituzional bateraturako protokoloaren jarraipena egitea. | Berdintasun teknikaria |
| IM 2.4.4. Udalak jaien testuinguruan beste zerbitzu batzuk martxan jarri behar dituen aztertu, udaleko sail ezberdinen eta jai batzordearen inplikazioarekin: jaietako babes eta informazio puntua, larrialdi telefonoa… Mugimendu feministarekin elkarlanean. | Sailen arteko koordinazio gunea<br>Jai Batzordea |

Gaia azaldu ondoren bozka ematen da.

**Aldeko botoak: 14 boto (8 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

1.- **2023-2026 urteetarako**, Zumaiako Udaleko IV. Berdintasun Planari behin behineko onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 3.1.2.- LGTBI+ PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

**ZUMAIAKO I. LGTBI+ PLANA ONARTZEKO IRIZPENA (2023-2026)**

**AURREKARIAK**

**1.-** LGTBI+ Plana osatu da aniztasunaren ikuspegia gizarteratzeko eta pertsona horien beharrei erantzuteko.
Planak 2023-2026 aldirako ekintza-markoa jasotzen du, eta zehazten du zein diren ezarritako helburuak, ekintza publikoaren arlo ezberdinetan hartu beharreko neurriak, aurreikusitako ebaluazio ekintzak, eta erantzukizuna nori dagokion.

2023ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko prestatu da.

Planaren indarraldia: **2023-2026.**

**2.-** Planaren xedea hiru helburu nagusitan banatuta dago:
• Zumaiako ekintza instituzionalean modu sistematikoan eta orokorrean txertatzea LGTBI+ pertsonen premiei eman beharreko arreta eta sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia.
• Administrazioan lan egiten duten profesionalak prestatzea. Prestakuntza horrek ahalbidetuko du ekintza instituzionala egitea eta halako gaiei ematen zaien erantzuna egokia izatea.

• Gizartearen eraldaketa sustatzea sentsibilizazioaren bidez eta berdintasunean, errespetuan eta sexu eta genero aniztasunaren eta aniztasun afektiboaren onarpenean oinarrituta, eta LGTBI+ pertsonen parte-hartzea behar bezala antolatuta.

**3.-** Xehetasun guztien berri 2022ko Berdintasun batzordeetan eman da.

***DICTAMEN PARA LA APROBACION DEL I. PLAN LGTBI+ DE ZUMAIA (2023-2026)***

***ANTECEDENTES***

**1.-** Se ha elaborado el Plan LGTBI+ para socializar la perspectiva de la diversidad y dar respuesta a las necesidades de estas personas.
El Plan recoge el marco de actuación para el periodo 2023-2026 y especifica los objetivos establecidos, las medidas a adoptar en los diferentes ámbitos de la acción pública, las acciones de evaluación previstas y la responsabilidad que le corresponde.

Se ha preparado para su entrada en vigor el 1 de enero de 2023.

*Vigencia del Plan:* ***2023-2026.***

**2.-** *El objetivo del Plan se divide en tres objetivos principales:*
*• Integrar de forma sistemática y global en la acción institucional de Zumaia la atención a las necesidades de las personas LGTBI+ y la perspectiva de diversidad sexual y de género.*
*• Formar a profesionales que trabajan en la Administración. Esta formación permitirá realizar una acción institucional y una respuesta adecuada a este tipo de cuestiones.*

*• Promover la transformación social a través de la sensibilización y desde la igualdad, el respeto y el reconocimiento de la diversidad sexual y de género y la diversidad afectiva, organizando adecuadamente la participación de las personas LGTBI+.*

**3.-** Se han comunicado todos los detalles en las Comisiones de igualdad del 2022.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2022ko abenduaren 15eko Berdintasun, Gazteria, Parte-Hartze eta Aniztasun Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

**Alde:**
**Kontra:**

**Aldeko/kontrako** irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako , Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan arautuakoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko da.

1.- **2023-2026 urteetarako**, Zumaiako Udaleko I. LGTBI+ Planari behin behineko onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.

**DICTAMEN**

En consecuencia la Comisión de Igualdad, Juventud, Participación y Diversidad con fecha 15 de diciembre de 2022, tras la siguiente votación:

**A favor:**
**En contra:**

*Acuerda **ESTIMAR o DESESTIMAR** el presente dictamen de conformidad con el artículo 135.3 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:*

*1.- Aprobar inicialmente el I. Plan LGTBI+ **para los años 2023-2026.***

*2.- Someter a información Pública el expediente, por plazo de 30 días hábiles, contados a partir del día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias. En caso de que durante el referido plazo no se presenten reclamaciones o sugerencias se entenderá conforme al artículo 49 de la Ley 7/1985 definitivamente aprobado el acuerdo.*

Batzordeburua

Berdintasun, Gazteria, Parte-hartze eta Aniztasun zinegotzia: Maider Alberdi

| | |
|---|---|
| **Dokumentu kod.** | 2022IAKU0012-P22/00005 |
| **CUDO kodea** | **000.0081.AAAADN7D.4.LYKd** |
| **Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos** | **https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADN7D4.LYKd** |

# ZUMAIAKO LGTBI+ PERTSONEN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRI ETA POLITIKAK

ZUMAIA 2022

| Dokumentu kod. | 2022IAKU0012-P22/00005 |
|---|---|
| CUDO kodea | 000.0081.AAAADN7D.4.LYKd |
| Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADN7D4.LYKd |

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# 0. AURKIBIDEA

1. Sarrera, 3

2. Proiektuaren helburuak, 4

3. Metodologia, 5

3.1. Landa-lanaren taula, 6

4. Identifikatutako beharrak eta erronkak, 8

5. Neurriak, 12

5.1. Zumaiako LGTIB+ ekintza plana 2022-2025, 13

5.2. Neurrien ebaluaketa kualitatiboa, 18

6. Zumaiako IV. Berdintasun planarekin uztargarriak diren naurriak, 18

7. Ondorio nagusiak, 21

## 1. SARRERA

Azken urteetan, LGTBI+ kolektiboaren aldarrikapenak kalean ikusten ditugun arren, i ezjakintasun handia dago oraindik, eta LGTBI+ pertsonen bizitza publiko eta politikoa ezkutuan egon da orain artean, eta ez da haien ahotsa kontuan hartu. Hutsune horri tiraka hasi ginen lanean 2020. urtean Zumaian, eta egindako ekimenek eragina izan zuten arren, norabide falta bat somatzen genuen, bide-horri bat, tresna zehatz bat, egiten ari ginen proposamen guztiak marko baten baitan kokatu zituen formula, alegia. Horrenbestez, aldaketa kualitatibo bat egiteko unea izan da ikasturte hau.

LGTBI+ gaiarekiko predisposizio handia dagoen arren, instituzio gehienetan, ez soilik Zumaian, zaila izaten zaie arduradun politikoei neurri eta politika zehatzak diseinatzea. Hau gertatzen da, gure ustez, bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, gai berria delako eta, horregatik, ezjakintasun handia dago; eta, bestetik, LGTBI+ pertsonen bizitza publiko eta politikoa ezkutuan egon delako, eta, beraz, haien ahotsa ez da inoiz kontuan hartu izan.

Hau honela, 2021eko urrian Zumaiako LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetu ahal izateko neurri eta politika konkretuen diseinu-prozesua abiatu genuen.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## 2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Ondorengo hauek izan dira prozesuaren hasieran markatutako helburuak:

⇒ Zumaiako LGTBI+ pertsona eta kolektiboen bizi baldintzak hobetuko dituen ekintzak diseinatzea.

⇒ Herrian LGTBI+ kolektibo eta errealitateen inguruko sentsibilizazio etaeraldaketa lanketa bat egitea.

⇒ Berdintasun politiketan, LGTBI+ gaiak modu transbertsalean txertatuakizatea.

⇒ Herriko LGTBI+ mugimenduei ahotsa, baliabideak eta interlokuzioa eman eta bermatzea.

⇒ Udalarentzat egingarriak diren neurriak eskuragarri izan eta abian jarridaitezkeen neurriak proposatu eta gauzatzeko materiala sortzea.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# 3. METODOLOGIA

Lau fase ezberdinetan banatu dezakegu prozesua: 1) Parte hartu duten eragile zein norbanakoen informazioa jaso eta horiekin harremana egitea; 2) Aukeratutako norbanako eta kolektiboekin elkarrizketak; 3) Udaletxearen parte diren eta interesgarriak egiten zitzaizkigun hainbat sailetako teknikariekin elkarrizketak; eta 4) Informazioa jaso, antolatu, sistematizatu eta neurri egingarri bilakatzea.

Elkarrizketei dagokienean, aurretik aipatu dugun moduan, bi fase nagusi bereizi ditugu. Lehen fasean, herri mailako eragile, norbanako eta kolektiboei egin diegu elkarrizketa, LGTBI+ kolektiboarekin harreman zuzena izan edo ez. Kasu batzuetan, LGTBI+ pertsonak izan dira, baina, beste batzuetan, LGTBI+ pertsonen bizi baldintzetan eragina izan zezaketen agenteak izan dira, jai batzordea edota mugimendu feminista, esaterako.

Elkarrizketen lehen fase burutu ondoren, bigarren multzoarekin hasi ginen, eta instituziora begira jarri ginen, udaletxeko sail ezberdinetako teknikariekin bildu, dituzten konpetentziak aztertu, eta, horietatik abiatuta, aldaketa eta proposamen berriak irudikatzen hasteko.

Bi fase hauen artean garrantzitsuak egin zitzaizkigun bi espazio deitu genituen. Alde batetik, udaletxean ordezkaritza duten alderdietako ordezkari politikoak, eta berdintasun foroa, bestetik. Ezinbestekotzat jo dugu ordezkari politikoak prozesuan inplikatzea, ez soilik haien iritziak jasotzeko, baizik eta modu sinbolikoan bada ere, gaiarekiko ardura hartu dezaten eta interpelatuak sentitzeko. Horretarako, lan-saio parte-hartzaile bat antolatu genuen haien ekarpenak jaso ahal izateko. Berdintasun foroa ere beharrezko gune moduan identifikatu genuen hasieratik, Eiheratik LGTBI+ neurriak ezinbestean ikuspegi feminista txertatua dutelarik irudikatzen ditugulako, eta oso garrantzitsua zen guretzat bertako ikuspegia jasotzea. Gainera, leku batzuetan gatazka ideologiko batzuk suertatzen ari dira LGTBI+ neurriak berdintasun planaren barnean txertatzearekin, eta

azken hau ere haiekin aztertu nahi genuen, bertan zeuden posizioak ulertu eta kokatzeko. Dena den, aipaturiko korapilo hau ez dago presente Zumaiako mugimendu feministaren barnean, eta, beraz, aukerak zabaltzen zaizkigula azpimarragarria iruditzen zaigu.

### 3.1 LANDA-LANAREN TAULA

Aurreko puntuan aipatu moduan, herri mugimenduko, eragile, norbanako eta udaletxeko sail ezberdinei egin diegu elkarrizketa. Hasieran aurreikusiak genituen elkarrizketa batzuk ezin izan ditugu burutu ez dutelako eginiko proposamena erantzun. Hala ere, bideak aurrera egin ahala, aurreikusia ez genuen beste eragile batzuekin biltzeko aukera izan dugu. Ondorengo hau da eginiko landa-lanaren taula.

| DATA | ZER | NOREKIN |
|---|---|---|
| 2021/11/04 | Elkarrizketa | Emakume zis lesbiana. 20-25 urte. eNor-eko kidea |
| 2021/11/04 | Elkarrizketa | Emakume zis bisexuala. 30-35 urte. Mugimendu Feministako kidea |
| 2021/11/26 | Elkarrizketa | Zis emakumea. 35-40 urte - Emakumeon Etxeko dinamizatzailea |
| 2021/11/26 | Elkarrizketa | Zis gizona. 30-35 urte. Jai batzordeko kidea |
| 2022/01/25 | Bilera | Berdintasun saila |
| 2022/02/10 | Elkarrizketa | Trans emakumea. 40-45 urte. |
| 2022/02/10 | Elkarrizketa | Emakume zis lesbiana. 60-65 urte. Mugimendu feministako kidea |
| 2022/02/15 | Proiektuaren aurkezpena eta ekarpenak jasotzeko saioa | Udaleko alderdi politikoak |
| 2022/02/21 | Proiektuaren aurkezpena eta ekarpenak jasotzeko saioa | Berdintasun Kontseilua |

| | | |
|---|---|---|
| 2022/04/06 | Elkarrizketa | Hirigintza saila |
| 2022/04/06 | Elkarrizketa | Euskara eta hezkuntza saila |
| 2022/04/06 | Elkarrizketa | Gizarte zerbitzuen saila |
| 2022/04/06 | Elkarrizketa | Kirol saila |
| 2022/04/06 | Elkarrizketa | Kultura saila |
| 2022/04/13 | Elkarrizketa | Udaltzaingoa |
| 2022/04/13 | Elkarrizketa | Turismo saila |
| 2022/04/13 | Elkarrizketa | Idazkaritza saila |
| 2022/05/10 | Elkarrizketa | Emakume zis lesbiana. 30-35 urte. 6 urte Zumaiatik kanpo bizitzen |
| 2022/05/10 | Elkarrizketa | Emakume zis lesbiana. 30-35 urte. 8 urte Zumaiatik kanpo bizitzen |
| 2022/06/07 | Bilera | Berdintasun saila |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# 4. IDENTIFIKATUTAKO BEHARRAK ETA ERRONKAK

Ekintza plana diseinatzeko orduan, hau da, proposamen eta politika zehatzak lantzeko, ezinbestekoa da aldez aurretik herrian zer behar dauden identifikatzea, erronkak eta helburuak zeintzuk izan daitezkeen hobeto irudikatzeko. Burutu dugun landa-lanaren bitartez hainbat elkarrizketa egin ditugu Zumaiako LGTBI+ eragile eta norbanakoekin, baita herriko beste kolektibo feminista eta sozial batzuekin ere. Gainera, udaleko sailetako arduradun askorekin bildu gara, eta, horrela, ikuspuntu instituzionala eta barneko antolamenduaren aldeko iritziak ere jaso ditugu.

Datuak sistematizatu eta aztertu ondoren, hainbat elementu identifikatu ditugu LGTBI+ pertsonen bizitzak hobetzeko eta bizigarriago bihurtzeko. Elementu horiek ikus daitezke behar gisa, baina uste dugu helburu edo erronka bezala ere ulertu ditzakegula, premia bakoitza asetzeko erronkak markatzeko bide bat baita.

Hala, datuen analisitik ateratako behar guztiak multzokatu ditugu sei ataletan: 1) *Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua*; 2) *Eskuragarritasuna*; 3) *Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa*; 4) *Indarkeriarik gabeko bizitzak*; 5) *Akonpainamendua, zaintza eta babesa*; eta 6) *Zeharkakotasuna*.

Atal bakoitzeko azalpena eman baino lehen, garrantzitsua da aipatzea ez direla isolamenduan ulertu behar, baizik eta gurutzatzen dutela etengabe. Izan ere, neurriek edo proposamen politikoek, kasu gehienetan, behar bati baino gehiagori erantzuten diete. Adibidez, LGTBI+ pertsonen erasoen kontrako kanpaina bat abiatzerakoan, helburu nagusietako bat indarkeriarik gabeko bizitzara bideratuta dago, baina, aldi berean,

ikusgarritasuna azpimarratzen da, komunitateari aintzatespena eta zilegitasuna ematen zaizkio, eta LGTBI+ pertsonak babesteko modua ere bada.

Kontuan hartu behar da, erronka edo helburuak irudikatzerakoan, baliatuko dugun begiradak politizatu eta problematizatzera eramango gaituela, eta periferiatik egingo dela, normatik ateratzeko asmoz, LGTBI+ bizitzak eta errealitateak erdigunera trasladatzeko.

Gainera, ezin dugu ahaztu arauari eta periferiari buruz hitz egiten dugunean egitura-ikuspegitik egiten dugula. Sistemak praktika, identitate eta bizipen batzuk baztertzen ditu, eta besteei balioa ematen die. Plan honen asmoa da ikuspegi integrala izatea, alderdi sistemikoan arreta jarriko duena, tokiko berezitasun eta nolakotasunei kalterik egin gabe.




## Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Ikusgarritasuna eta errekonozimendua ezinbestekoak dira, identitatea eta subjektibotasuna eratzeko ez ezik, bere burua izendatzeko eta existitzeko gaitasuna izateko ere. Ikusgarritasunik gabe ez dago erreferenterik, eta LGTBI+ pertsonek beti izango dute eredutzat errealitate heterosexuala, menderatzeko eta baztertzeko sistema gisa bizitzako esparru guztietan inposatzen dena. Aitzitik, LGTBI+ pertsonen errealitateak ikusarazteak alternatibak ematen dizkio eredu heterosexual hegemonikoari, pertsona bakoitzak nahi duen moduan eta era askeagoetan bizitzeko eta bizitza esperimentatzeko.

Bestalde, funtsezkoa da LGTBI+ pertsonen bizitzak, borrokak eta bideak onartzea, bai Zumaiakoak, bai beste eremu batzuetakoak, prekarietate, jazarpen eta indarkeria egoeran egon arren, lurralde baten memoria historikoa lantzeko. Gainera, aitorpen publiko eta instituzionalak legitimitatea ematen die LGTBI+ mugimenduari zein borrokei, eta, beraz, historikoki gaitzetsi diren bizitzak eta esperientziak balioesten laguntzeaz gain, aurrekaria sortzen du beste eragile batzuek ildo horretan jarrai dezaten.

Horretarako, sentsibilizazio lana ezinbestekoa da, ikusgarritasuna areagotzeko eta errokonozimendu osoa lortzeko, eta horren bueltan hainbat ekintza diseinatu dira.

## Eskuragarritasuna

Zumaian, oro har, profesional eta gizarte-taldeak LGTBI+ pertsonen bizitza hobetzeko politikak ezartzen laguntzeko prest badaude ere, errealitatea da askotan ez dakitela nola, edo ez dituzte beharrezko nahikoa baliabide. Horretarako, hainbat zerbitzu, aholkularitza, material, edo profesional eta kolektiboen informazioa eskuragarri izatea beharrezkotzak jotzen dugu. Horrekin lortu nahi dena da jendearekin jarduerak edo zerbitzuak diseinatzen, kudeatzen edo garatzen diharduten profesionalek zerbitzu inklusiboagoak nola egin jakitea, lana erraztuz eta LGTBI+ errealitateak kontuan hartzen dituzten ekimenak abian jarriz.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

## Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa

Kide izatea eta komunitatea izatea ezinbestekoa da munduan eta bizi garen gizarte-panoraman gure lekua zehaztuko duten elkartasun- eta afektu-loturak eta

-sareak erraztuko dituzten bizi-baldintzak sortzeko. Horretarako, sozializazioaren bidez gizarte-espazioetarako sarbidea izatea, laguntza- eta kidetasun-taldeen bidez zaintza, kezka eta interes komunak garatu eta partekatzeko komunitate-foroetan eta foro politikoetan parte hartzeko aukera izatea, oinarrizko premiak dira herritartasuna lantzeko.

### Indarkeriarik gabeko bizitzak

Indarkeriarik gabeko bizitza izatea, norbanakoaren eta kolektiboaren nahia eta irrika izateaz gain, hori lortzea eta prebenitzea udal baten helburu nagusietako bat izan behar da. Indarkeria jasaten duten edo pairatu duten LGTBI+ pertsonak babestea eta erabat desagerrarazteko prebentzioan lan egitea da pertsona gisa bete beharreko oinarrizko premietako bat. Izan ere, segurtasuna eta osotasun fisiko, psikiko eta emozionala funtsezkoak dira bizitza libre eta osoa berdintasunean garatzeko.

LGTBI+ pertsonek indarkeria askori egin behar izan diote aurre haien bizitzan. Indarkeria horiek eraso fisikoekin dute zerikusia, baita beste eraso sotilago batzuekin ere, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak, haien genero-adierazpena, sexualitatea edo identitatea bizitzeko moduarengatik.

## Akonpainamendua, zaintza eta babesa

LGTBI+ pertsonek, bortxazko ikusezintasunaren arrazoi historikoengatik, ikusi dute bere bizitzako proiektuak garatzeko aukerak nuluak edo oso urriak zirela, eta, askotan, beren bizitzak mehatxatuta egon zitezkeen esparru baten barruan. Horregatik, LGTBI+ pertsonen prozesuak akonpainatu, zaindu eta babesteko sustatzen dituzten jarduerak bultzatu eta aintzatesteko esparru instituzional bat ezinbestekoa da, prozesu horiek garatzeko baldintza hobeak eskaini ahal izateko.


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Prozesu asko izan daitezke, baina uste dugu badaudela prozesu batzuk LGTBI+ pertsonen bizitzetan non erakundeek arreta eta zaintza berezia jarri behar duten. Adibidez, genero-trantsizioko prozesuez ari gara, edo zailtasun bereziak ekar ditzaketen bizi-uneez, hala nola zahartzaroa, gazteria edo indarkeria-egoerak.

### Zeharkakotasuna

Zeharkakotasuna da talde marjinatu bati laguntzeko diseinatutako politikek funtziona dezaten garrantzitsua den zerbait. Euskararekin edo berdintasunarekin bezala, erakundeek gai horiek zeharka sartu dituzte esaterako eskubideak handitzeko eta politikak gauzatzeko, uste dugu zeharkakotasuna funtsezkoa dela LGTBI+ politikek beren helburua lor ditzaten. Hau horrela, hainbat neurri zeharka txerta daitezke, eta ekintza planaren helburu nagusietako bat da hori gainera.

## 5. NEURRIAK

Identifikatutako beharrei erantzun desberdinak emateko, eta markatutako erronka eta helburuetarako beharrezko ibilbideak diseinatu eta konpontzeko, zortzi eremutan sailkatu ditugun neurri-multzoa proposatu da.

1. Protokoloak eta kanpainak
2. Espazio publikoa
3. Memoria
4. Saretze eta komunitatea
5. Kultura, kirola eta aisialdia
6. Hezkuntza- eta formakuntza-esparruak
7. Arreta eta zerbitzuak
8. Administrazioa eta barne maila


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

Multzo bakoitzan neurri ezberdinak proposatzen dira, bakoitzari dagokion denboralizazio proposamenarekin. Kontziente gara denak egitea oso zaila dela, baliabide faltagatik batez ere, eta lehenetsi behar diren arren, garrantzitsua egiten zaigu ateratako neurri guztiak sozializatu eta jasotzea, dagoen behar eta gogoari nahikoa dimentsioa emateko.

Aurretik agertzen den mapa kontzeptualean ikusi daitekeen moduan, neurri bakoitza ez da estankoa, eta behar ezberdinei erantzuten die, eta "x" baten bitartez markatu dugu. Ondorengo hauek dira, beraz, egindako ibilbideren ondorioz, Zumaia LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetu ahal izateko proposatzen diren neurriak.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# ZUMAIAKO LGTBI+ EKINTZA PLANA 2023-2026

## ARLOA _ **PROTOKOLOAK ETA KANPAINAK _ 1**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK | | | | | | EPEA | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | Motza: 2022-2023<br>Ertaina: 2024<br>Luzea: 2025tik aurrera | | |
| P.K.1.1. | Idarkeria LGTBIfobikoa lantzeko protokoloa sortu, instituzioa eta herri mugimenduaren arteko interlokuzioa eta elkarlana uztartuko dituena. | | | | X | X | | Motza | | -Protokoloa sortzea Bai/ez.<br>-LGTBI+ mugienduaren iritzia txeratzea bai/ez. |
| P.K.1.2. | Sentsibilizazio kanpaina indartsu bat egin, inpaktu komunikatibo handiarekin, kale presentzia bermatuz eta turismoari begirako irizpide komunikatiboa izango duena. | X | | | X | | X | Motza | | -Sortu diren euskatti kopurua.<br>-Euskarri horiek iritsi zaizkien herritarren kopurua<br>-Ikusgarritasuna bermatzeko erreminta estetikoen kopurua. |
| P.K.1.3. | LGTBI+ pertsonek jasandako hainbat indarkeria esperientziatatik abiatuz, sentsibilizaziorako kanpaina bat diseinatzea | X | | | X | X | | Motza | | |
| P.K.1.4. | LGTBI + zahartzaroa ikustera emateko kainpaina bat diseintau eta martxan jarri. Espazio publikoan ez ezik, jubilatuen elkarteetan edota pertsona helduen bestelako espazio naturaletan ere ezarri beharko da | X | | X | | X | | Ertaina | | - Pertsona helduek bizitza komunitarioa egiten duten espazioatan LGTBI+ ikusgarritasuna bermatzeko egin diren ekintza kopuruak. |

## ARLOA _ **ESPAZIO PUBLIKOA _ 2**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK | | | | | | EPEA | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | Motza: 2022-2023<br>Ertaina: 2024<br>Luzea: 2025tik aurrera | | |
| E.P.2.1. | Kale paiasain LGTBI+ presentzia bermatzea. | X | | | | | X | Ertaina | Espazio publikoaren iruditegi eta estetika erabakitzeko orduan, LGTBI+ ikuspututik kontuan hartzeko irizpideak sistematizatu. | -Ikusgarritasuna bermatzeko erreminta estetikoen kopurua. |
| E.P.2.2. | Herriko kale izendegian erreferentziazko LGTBI+ pertsonen izenak txertatu | X | | X | | | | Ertaina | Espazio publikoan ikusgarritasuna eta herri memoria lantzeko baliatu daiteke, ekimenari ospakizun eta aldarrikapen izaera emanez. | -Txertatu diren izan kopurua. |
| E.P.2.3. | Hirigintzat ikuspegitik, espazio publikoaren antolaketan kale eta espazioa seguruak sortzea. | X | | X | X | | X | Luzea | Hau berdintasun planaren bitartez bermatu eta uztartu daitekeela deritzogu. Bertan aurreikusten diren hirigintza irizpide feministen bitarez, neurri hau betetzea ekarriko lukeelako. | |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E.P.2.4. | Hondartzak duen pisu zigortzaile eta normatiboari aurre egiteko bitartekoak martxan jartzea | X | | | X | | | Motza | Megafoniatik espazio askearen alderrikapenerako audioa, iruditegi eta muralak egin. | - Egin diren ekintza kopurua. |

## ARLOA _ **MEMORIA _ 3**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK | | | | | | EPEA | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | | |
| M.3.1. | Zumaiako LGTBI+ memoria jaso eta ikertzeko diru-laguntza edo beka baten sorrera | X | | X | X | | X | Motza | Kultura sailarekin batera garatu daiteke zeharkakotasuna lantzeko | - Bekaren sorrera, diru kopurua eta aurkeztu diren proposamen kopurua. |
| M.3.2. | Eskoletako kurrikulumean herriko LGTBI+ errelato garrantzitsu edo pertsonak txertatu | X | X | | | | X | Ertaina | Hau ere herriko emakumeen memoria lantzeko neurria izan daiteke eta biak uztartu. Hezkidetza planaren barruan txertatu daiteke. | -Txertatu diren errelato kopurua.<br>-Errelatoa jaso duten ikasle kopurua. |
| M.3.3. | Herriko LGTBI+ memoria lantzeko egun erreferentziala sortu. | X | | | | | | Ertaina | Honetarako, herriko LGTBI+ pertsona istoriko erreferenteak hartu daitezke kontuan horiek omentzeko, edo herrian gertaturiko errelatu zehatz baten bueltan izan daiteke. Honek epika eta erreferentziltasun bat sortzen du, eta gainera, komunitatearen saretzea ahalbideuko luke | -Egun kopurua.<br>-Bertaratu diren herritarren kopurua. |

## ARLOA _ **SARETZE ETA KOMUNITATEA _ 4**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK | | | | | | EPEA | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | | |
| S.K.4.1. | LGTBI+ pertsonentzat sozializazio espazio eta aukerak sortu eta ahalbidetu. | | | X | | X | X | Ertaina | Hau, batez ere, aisialdirako eskaintzen bitartez irudikatzen dugu. Emakumeon* etxea bitarteko garratzitsua izan daiteke eskaintza hau egiterako orduan. | -Antolatu diren LGTBI+ ekintza kopurua. |

## ARLOA _ **KULTURA, KIROLA ETA AISIALDIA _ 5**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK | | | | | | EPEA | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | | |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K.K.A.5.1. | LGTBI+ kultura eskiantza ezberdinak barnebilduko dituen esukarri-gida bat sortu. | | X | | | | X | | Kultur teknikariari esukarri legungarria bat sortzea du helburu | -Gida sortu bai/ez.<br>-Gidan agertzen diren euskarri kopurua. |
| K.K.A.5.2. | Udaleko kultur arlotik LGTBI+ gaiaren baitako ekintza kultural zehatzak programatu. Egun puntualetaz gain, urtear zeharreko eskaintzan txertatu. | X | X | X | | | X | | | -Programatutako ekintza kopurua. |
| K.K.A.5.3. | Aisialdi ekintza ezberdinak diseinatzerako orduan, LGTBI+ ikuspegia txertatu ahal izateko irizpideak sistematizatzea | | X | X | | | X | | | -Irizpideen sorrera. |
| K.K.A.5.4. | Aisialdi eskaintzan aukera kulturalak txeratzeaz gain, emakume eta LGTBI+ pertsonentzako ahalduntzea ahalbidetuko dituzten tailer praktiko eta funtzionalak antolatu | | X | X | | | X | Motza | Teknologia berrien erabilera, soinu ekipo bat nola erabili, etxeko aparagailuak nola konpondu, autoren funtzionamendua... | - Antolatu diren eskaintzen kopurua.<br>-Partehartzaileen kopurua eta horien ezaugarriak |
| K.K.A.5.5. | Diru-laguntza publikoa jasotzen duten kirol-elkarteek LGTBI+ ikuspegia txertatuta izatea eskakizuna betezeko baldintza moduan | | | | X | | X | Ertaina | Hau burutzeko, diru laguntzetako adiministrazio atalean txartatu daiteke beste irizpideekin batera (azken atalean) | -Esleitu diren diru-laguntzetan irizpide hau aplikatzea. |
| K.K.A.5.6. | Kirol instalakuntza ezberdinetako giro heteronormatiboari buelta emateko bitartekoak aplikatu | | | X | X | | | Motza | -Espazioaren birbanaketa<br>-Iruditegi aldaketa<br>-Langileen formakuntza | -Aplikatu diren bitarteko kopurua. |
| K.K.A.5..7. | Herriko kirol instalakuntzak trans pertsonentzat seguru eta erosoak izan daitezen bitartekoak jarri | | | | X | X | | Motza | -Hirugarren aldagela bat ahalbidetu<br>-Aldagela bitarrak erabiltzekotan, bertan eman daitezkeen erasoen aurrean kirol instalakuntzak horren gaineko ardura eta erantzukizuna hartzea.<br>- Aldageletan bestelako gorputz ez-normatiboen ikusgarritasuna bermatzeko azalpen-orri bat jarri. | -Aplikatu diren bitarteko kopurua. |
| K.K.A.5.8. | Herrira begirako aisliadi esakintza egiten duten elkarte ezberdinei (Kirola, elkarte gastronomikoak, hezkuntza ez-formaleko elkarteak...)LGTBI+ gaia landu ahal izateko baliabideak eta formakuntza eskaini. | | | | X | | X | Ertaina | | -Eskaini diren formakuntza eta baliabide ezberdinen kopurua. |

ARLOA _ **HEZKUNTZA- ETA FORMAKUNTZA-ESPARRUAK _ 6**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK: Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | EPEA: Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H.F.6.1. | Egun martxan dagoen hezkidetza programaren baitan LGTBI+ ikuspuntua txeratua izatea. | X | X | | X | X | X | Ertaina | | -Txertatu diren ekarpen kopurua. |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H.F.6.2. | Hezkuntza formalean erabiltzen diren materialen berrikusketa egin, beharrezkoak liratekeen aldaketak eginez | X | X | | X | | X | Ertaina | Udalaren konpetentzien kanpo geratzen bada ere, lehentasunezko neurria dela baloratuko balitz, udalak kanpo aholkularitza bat kontratau dezako berrikusketa lan hau egiteko. | -Eskeinitako bitarteko berrien kopurua. |
| H.F.6.3. | Eskolako bullyng protokoloetan genero ikuspegia txertatu | | | | X | | X | Ertaina | Udalaren konpetentzien kanpo geratzen bada ere, lehentasunezko neurria dela baloratuko balitz, udalak kanpo aholkularitza bat kontratau dezako berrikusketa lan hau egiteko. | -Parte-hartu duten ikasle eta profesiionalen kopurua. |
| H.F.6.4. | Hezkuntza formal zein ez-formaleko profesionalek eraso LGTBIfobikoak identifikatu eta horien aurreran esku-hartzeko bitartekoak sortu | | | | X | | | Motza | | -Bitartekoak sortzea.<br>-Bitarteko kopurua.<br>-Bitarteko horiek jaso dituen profesional kopurua. |
| H.F.6.5. | Eskolaz aparteko gazteentzako espazio aske eta seguru bat sortu, bertan, feminismoarekin eta LGTBI+ gaiekin harremana duten edukiak landu ahal izateko | | | X | | X | | Ertaina | | |
| H.F.6.6. | Udal barruko langile guztiei LGTBI+ gaiaren inguruko formakuntza ahalbidetu | X | | | | X | X | Motza | | -Formakuntza kopurua |
| H.F.6.7. | Hezkuntza ez formaleko profesionalei LGTBI+ gaiaren inguruko formakuntza ahalbidetu. | X | | | | X | | Motza | | -Formakuntza kopurua |
| H.F.6.8. | Eskolan LGTBI+ gaiarekin loturiko edozien zalantza, kezka, aholku eta salaketa egiteko <u>bitarteko anonimo</u> bat sortu. | X | | X | | X | | Ertaina | Aholkusex programa existitzen bada ere, bestelako birtarteko gertuakoagoak sortu behar dira, gazteentzat eskuragariagoak izango direnak. Neurri hau hezkidetza programaren baitan txertatu daiteke. | -Bitartekoaren sorrera.<br>-Bitartekoa erabili duten ikasleen kopurua eta horien ezaugarriak |

ARLOA _ **ARRETA ETA ZERBITZUAK _ 7**

| | NEURRIAK | BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK: Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | EPEA: Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A.Z.7.1. | Emakumeon etxetik bitartekoak eskaintzea LGTBI+ kolketiboaren jabetze eta ahalduntzerako. Emakumeon etxea interlokuziorako eta saretzeko espazioa izatea | | X | X | | X | X | Motza | Emakumeon* etxeko eta asanblada feministarekin harremanean garatzeko neurria izango litzake | -Antolatu diren ekintza kopurua.<br>-Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak. |
| A.Z.7.2. | LGTBI+ gai ezberdinen inguruko informazio fidagarri baterako sarbidea ahalbidetuko duen euskarri bat sortu | | X | | | X | | Motza | | -Euskarria sortzea. |
| A.Z.7.3. | LGTBI+ nerabeak eta horien gurasoentzat doako aholkularitza eta akonpainamendu zerbitzua | | X | | X | X | | Motza | | -Zerbitzua sortzea.<br>-Zerbitzuko parte-hartzaileen kopurua. |
| A.Z.7.4. | LGTBI+ pertsonentzako aholkularitza, babes, zaintza eta arreta psikologikoarako espazio bat sortu | | X | | X | X | | Motza | | -Espazioaren sorrera.<br>-Zerbitzuko parte-hartzaileen kopurua. |

| | NEURRIAK | Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | EPEA (Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera) | NOLA GARATU | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A.Z.7.5. | Jazarpen edo indakeria kasu larri bat ematen bada, pertsona horrentzat espazio seguru bat ahalbidetu. | | X | | X | X | | Ertaina | | -Espazioaren sorrera.<br>-Zerbitzuko parte-hartzaileen kopurua. |
| A.Z.7.6. | Gizarte langileentzat LGTBI+ formakuntza egoera ezberdinen kasuistika ikuspegi horren arabera aztertu ahal izateko | | X | | X | X | | Ertaina | | -Egin diren formakuntza kopurua. |
| A.Z.7.8. | LGTBI+ gaietan aditu, kolektibo, elkarte eta baliabideen katalogo bat sortu, edozein motako beharren aurrean nora jo jakiteko | | X | | X | X | | Ertaina | Gipuzkoa mailako bitarteako izan daiteke eta bestelako elkarte eta instituziekin elkarlanean egin. | -Katalogoaren sorrera.<br>-Katalogo hori jaso duten herritar kopurua |
| | **ARLOA _ ADMINISTRAZIO ETA BARNE MAILA _ 8** | | | | | | | | | |
| | **NEURRIAK** | **BEHARRAK / ERRONKAK / HELBURUAK** Ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta errekonozimendua | Eskuragarritasuna | Sozializazioa eta parte hartze komunitarioa | Indarkeriarik gabeko bizitzak | Akonpainamendua, zaintza eta babesa | Zeharkakotasuna | **EPEA** Motza: 2022-2023 Ertaina: 2024 Luzea: 2025tik aurrera | **NOLA GARATU** | **ADIERAZLEAK** |
| A.B.8.1. | Administrazioko agirietako genero laukian beste aukerak zabaldu. | X | | | | | | Motza | Udaleko agiri ezberdinetan jadanik "ez-bitarra" laukiaren aukera ematen da. Dena den, beste formula batzuk arakatu daitezke generoaren sistematiazioa horren zurruna ez izateko. | |
| A.B.8.2. | Diru-laguntza publikoa jasotzen duten elkarteentzat LGTBI+ ikuspegia txertatzea baldintza izatea esleipenerako pliegoetan | | | | X | | X | Ertaina | | - Esleipenean LGTBI+ ikuspegia txertatu den bai/ez. |
| A.B.8.3. | Autodefentsa feminista tailerrak udaleko lan-tokiei egokituta | | | | X | | X | Ertaina | | -Tailer kopurua. |
| A.B.8.4. | Indarkeria LGTBIfobikoaren protokoloan udal barruan eta lan esparruan eman daitezkeen indarkeria kasuak aurreikustea | | | | X | | X | Motza | | - Protokoloaren barruan hau txertatzea bai/ez |
| A.B.8.5. | Udala eta LGTBI+ mugiemenduaren artean interlokuzioa bermatzeko bitartekoak jarri | | | | | | X | Ertaina | Beste herrietan kontseilu formak funtzionatu izan duen arren, bestelako forma eta aukerak | |
| A.B.8.6. | LGTBI+ plana garatu ahal izateko aurrekontu-partida bat esleitzea | | | | | | X | Motza | | |
| A.B.8.7. | LGTBI+ planaren jarraipena egingo duen aholku batzorde sortu, elkarte, norbanako eta administrazioko kideek osatuta | | | | | | X | Motza | | - LGTBI+ mahaiaren sorrera.<br>-Parte-hartzaileen kopuru eta ezaugarriak.<br>-Egiten diren bileren kopurua.<br>-Espazio hau egonkortzea bai/ez |
| A.B.8.8. | Kontratazio publikoetan LGTBI+ begirada txertatzea, klausula sozialen bidez | | X | | | X | | Ertaina | | -Aplikatu diren bai/ez |
| A.B.8.9. | LGTBI+ plana aurrera eraman ahal izateko sail ezberdinen elkarlana sustatu | | | | | | X | Motza | | -Hau egikaritzeko interlokuzio espazioa sortu eta sistematizatu da bai/ez. |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

### 5.1. NEURRIEN EBALUAKETA KUALITATIBOA

Neurrien ebaluaketarako adierazle kuantitatiboak ez ezik, adierazle kualitatiboak txertatzea ere ezinbestekoa zaigu. Horretarako, urte bakoitzaren amaieran *Ebaluaketarako mahai teknikoa* deituko da, eta bertan, neurri horien aplikazioan parte hartu duten teknikari, eragile eta norbanakoek hartuko dute parte, egindakoeren ebaluketa irizpide kualitatiboen baitan neurtzeko.

## 6. ZUMAIAKO IV. BERDINTASUN PLANAREKIN UZTARGARRIAKDIREN NEURRIAK

Aurten Zumaiako IV. Berdintasun Plana diseinatu du udalak, eta bi prozesu hauek modu pareleloan burutu diren arren, Eiherako kideok IV. Berdintasun Planaren prozesuan ere partu hartu dugu, egindako *Zumaiako LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko neurri eta politikak* txostenean ateratako ondorio eta hausnarketa batzuk haiekin konpartitu eta kontuan hartzeko. Hau horrela, Zumaiako

IV. Berdintasun Planaren behin-behineko txostena gurekin partekatu ostean, bi proposamenetan uztargarriak diren naurriak batu ditugu, horiek aplikatzerako orduan bi proposamenak kontuan hartu eta ikuspegi integralagoa aplikatzeko helburuarekin.



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| BI PLANETAN PROPOSATZEN DIREN NEURRI UZTARGARRIAK |
|---|
| ZUMAIAKO IV. BERDINTASUN PLANAREN BAITAKO NEURRIA |
| ZUMAIAKO LGTBI+ PERTSONEN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PLANAREN BAITAKO NEURRIA |
| GO 1.2.2. Emakumeon* Etxearek proiektua indartu eta bere garapen egokirako beharrezkoak diren baliabideak ezartzea. |
| A.Z. 7.1. Emakumeon* etxetik bitartekoak eskaintzea LGTBI+ kolektiboaren jabetze eta ahalduntzerako. Emakumeon* etxea interlokuziorako eta saretzeko espazioa izatea. |
| GO 3.2.2. Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko. |
| A.Z.7.2 LGTBI+ gai ezberdinen inguruko informazio fidagarri baterako sarbidea ahalbidetuko duen euskarri bat sortu |
| GO 4.2.1. Datu-bilketak sexu/generoaren arabera egin ahal izateko sistemak egokitu: datu-bilketak egiteko sistemetan sexu/genero-aldagaia jasota ez dutenak identifikatu; sexu/genero-aldagaia txertatzeko teknikoki dauden aukerak/oztopoak aztertu, eta nola bideratuko den erabaki sailekin elkarlanean. |
| A.B.8.1. Administrazioko agirietako genero laukian beste aukerak zabaldu. |
| GO 4.5.1. Klasula sozialak oro har, eta zehazki berdintasun klausula-tipoak non txertatzen diren aztertea eta hutsunea dagoenetan hauek aplikatzeko aukerak aztertzea eta klasula-tipoak zehaztea. |
| A.B. 8.8. Kontratazio publikoetan LGTBI+ begirada txertatzea, klausula sozialen bidez. |
| EGAE 2.3.1. Ikastetxeetako hezkidetza-programak indartzeko aukera aztertu eta, posible bada, aurreikusitako baliabideak areagotu (ordu-kopurua, Lanbide Heziketan ere lantzea…). |
| H.F.6.1. Egun martxan dagoen hezkidetza programaren baitan LGTBI+ ikuspuntua txeratua izatea. |


Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

| |
|---|
| H.F.6.4. Hezkuntza formal zein ez-formaleko profesionalek eraso LGTBIfobikoak identifikatu eta horien aurreran esku-hartzeko bitartekoak sortu |
| EGAE 2.3.2. Ikastetxeetarako unitate didaktiko bat sortu eta banatu, berdintasun, kulturartekotasun eta intersekzionalitatearen balioak landu eta Zumaiako emakume erreferenteak landuz. |
| H.F.6.2. Hezkuntza formalean erabiltzen diren materialen berrikusketa egin, beharrezkoak liratekeen aldaketak eginez. |
| EGAE 2.3.9. Hezkuntza ez formalean lanean diharduten hezitzaileen trebakuntza, beren beharretara egokituta, urtero eskaini. |
| H.F.6.7. Hezkuntza ez formaleko profesionalei LGTBI+ gaiaren inguruko formakuntza ahalbidetu. |
| EGAE 3.1.1. Gizarte Zerbitzuetako langileei, ikuspegi intersekzional batetik, |
| berdintasunean trebakuntza eskaini. |
| A.Z.7.6. Gizarte langileentzat LGTBI+ formakuntza egoera ezberdinen kasuistika ikuspegi horren arabera aztertu ahal izateko. |
| IM 1.3.1. Eskoletan aurrera eramaten diren prebentzio programen inguruan hausnarketa egin, hezkuntza-komunitate osoa (ikasle, irakasle eta familiak) aintzat hartuta, eta hurrengo urteetarako estrategia markatu eskolekin batera lanketa modu integralean egiteko: lanketen hartzaileak definitu, landu beharreko gai gakoak... |
| H.F.6.3. Eskolako bullyng protokoloetan genero ikuspegia txertatu. |
| IM 1.3.3. Gazteentzako aisialdiarekin lotutako ekimenak antolatu, berariaz indarkeria matxistaren prebentzioa eta nesken ahalduntzea lantzen dutenak. |
| H.F.6.5. Eskolaz aparteko gazteentzako espazio aske eta seguru bat sortu, bertan, feminismoarekin eta LGTBI+ gaiekin harremana duten edukiak landu ahal izateko. |
| K.K.A.5.4. Aisialdi eskaintzan aukera kulturalak txeratzeaz gain, emakume eta LGTBI+ pertsonentzako ahalduntzea ahalbidetuko dituzten tailer praktiko eta funtzionalak antolatu |
| IM 2.4.1. Protokoloak herriko eragile anitzekin lantzea, mugimendu feminista barne. Herri mailako sare sendo bat sortzeko helburuarekin. |
| P.K.1.1. Idarkeria LGTBIfobikoa lantzeko protokoloa sortu, instituzioa eta herri mugimenduaren arteko interlokuzioa eta elkarlana uztartuko dituena. |
| A.B.8.3.Indarkeria LGTBIfobikoaren protokoloan udal barruan eta lan esparruan eman daitezkeen indarkeria kasuak aurreikustea |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# 7. ONDORIO NAGUSIAK

⇒ Azkenaldian, trans-lege berriaren bueltan sortu diren korapilo batzuk eragina izan dute hainbat espazio feministetan, eta horrek, LGTBI+ politika eta neurriak diseinatu eta inplimentatzerako orduan, traba batzuk suposatu ditu instituzio batzuetan. Zorionez, ez dugu hori aurkitu Zumaiako mugimendu feministaren baitan, eta, gainera, gaiarekiko interes eta kokapena handia da. Beraz, neurriak martxan ipintzen direnean mugimendu feminista aliatu nagusi moduan izatea aurreikusten dugu, eta horrek indar handiagoa emango die proposamen ezberdinei.

⇒ LGTBI+ pertsonak inbisibilizatuak eta esparru pribatura kondenatuak izan dira historikoki. Horrek bizitza publiko eta politikotik kanpo egotera eraman ditu kolektiboko pertsonak. Ondorioz, zaila izaten da LGTBI+ pertsonentzat, eta herritarrentzat orokorrean, udaletxeak zerbait egin dezakeela irudikatzea, ez dagoelako ia adibiderik. Hau horrela, zaila egin zaigu batzuetan neurri zehatzak jasotzea eta jendeak proposamen eraikitzaileak egitea, eta, beraz, proposamen batzuk Eiheratik sortuak izan dira, beti ere testuingurua eta Zumaiako errealitatea kontuan hartuz.

⇒ Aurreko hamarkadetan herriko LGTBI+ pertsona asko herritik joan izan dira hiri handietara anonimotasun eta askatasun bila. Feminismoaren azken olatuaren ondorioz, ordea, neska gazte lesbiana asko herrian haien bizitza modu publikoan egitea erabaki dute, eta herriko erreferente ikusgarri bilakatu dira. Aitzik, asko kostatu zaigu gizon homosexualekin elkarrizketa egin eta haien testigantza jasotzea, askok alde egin dutelako, edo, bestela, mugimendu feministatik azpimarratu moduan, giro oso maskulinoek bizitzaez publikoa egitera behartu dituelako.

⇒ Ikusgarritasuna izan da gehien azpimarratu den beharra. Giroa batzuetan itxia eta maskulinoa dela aipatu da, eta horrek biolentzia sinboliko bat dakar. Herriak inertzia tradizionalista bat izan dezakeela ere komentatu da, eta horrek zaildu egiten du

pertsona batzuen armairutik ateratzeko prozesua. Espazio publikoan geroz eta espazio gehiago hartzea izango da, beraz, datorren ikasturteko erronka nagusienetako bat.

Gaia azaldu ondoren bozka ematen da.

**Aldeko botoak: 14 boto (8 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

1.- **2023-2026 urteetarako**, Zumaiako Udaleko I. LGTBI+ Planari behin behineko onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaren arabera.

---------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta zazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus